



XVII  
IDAZLAN  
KOADERNOA  
DBH/BATXILERGOA  
2018

**Argitaratzailea:**

- Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

**Laguntzaileak:**

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.

**Portadaren egilea:**

- Izaskun Martinez Intxausti (DBH 4. mailako ikaslea)

**Babesleak:**

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskara Zuzendaritza)

**Maketa eta Inprimaketa:**

- Eñaut Aiartzaguena -

**2018ko edizioa.**



## AURKIBIDEA

IZENA	MAILA	IDAZLANA	Or.
Ander Moreno Aurtenetxea	DBH 1. maila	“Misterio harrigarria”	5
Uguzne Uriarte Santamaria	DBH 1. maila	“Nire bizitzaren aldaketa”	9
Naia Azumendi	DBH 2. maila	“Zuk honekin eta gehiagorekin ahal duzu!!!”	11
Ane Mei Aspiazu Etxeandia	DBH 2. Maila	“Aske bizi”	13
Enara Ondarza Ruiz	DBH 2. maila	“Eguneroko irakatsiak”	16
Irati Perez Urbina	DBH 2. maila	“Aurki nazazu izarren artean”	19
Ainhize Sandia Provecho	DBH 2. maila	“Eta azkenik...”	22
Ismael Aomar Hamdane	DBH 2. Maila	“Hassan eta askatasunaren prezioa”	26
Ainhize Bengoa Gezuraga	DBH 2. maila	“Mutil arrunt baten istorioa”	29
Itxaso Olea Urionabarrenetxea	DBH 3. maila	“Eman denbora denborari”	32
Maria Basterretxea Aldana	DBH 3. maila	“Futbolari oihukatutako istorioak”	34
Ane Sarduy Kanalaetxebarria	DBH 3. maila	“Irailaren 19a”	38
Olatz Barayazarra Garay	DBH 3. maila	“Ameslari hutsa eta zer?”	41
Aielen Iturbe Urzaa	DBH 3. maila	“Isileko sekretuak”	45
Xabier Arteta	DBH 4. maila	“Maite, maite... baina ez soilik zeuen burua”	48
Ane Aldana Gainza	DBH 4. maila	“Ekaitzaren ostean dator barea”	52
Beñat Albizbeaskoetxea Sanchez	DBH 4. maila	“Zein urrun dagoen Europa”	56
Naroa Artetxe	DBH 4. maila	“Nire bizitza”	61
Imanol Loza Martinez	DBH 4. maila	“41 metro”	63
Arlene Rementeria Akordagoitia	BATX 1. maila	“Amesgaiztoa”	67
Ibai Zobarán Díez	BATX 1. maila	“Heriotzaren ondoren”	70
Jon Santa Maria-Amurrio Fernandez	BATX 2. maila	“Bidegurutzeta”	73
Oihane Abete	BATX 2. maila	“Neguko gau luzeetan”	81
Beñat Landajo Villaverde	BATX 2. maila	“Eskerrik asko”	84
Claudia Parfene Parfene	BATX 2. maila	“Atzeraezin”	87
Eider Salegi Frutos	BATX 2. maila	“Hil ala bizi”	91
Maidier Bengoetxea Regatos	BATX 2. maila	“Agurrak eta ongi etorriak”	98
Maidier Serrano Ezquiaga	BATX 2. maila	“Gaua da eta laster arte maitia”	105
Ziortza Barruetaña Erdaide	BATX 2. maila	“Aske”	108
Emilia Albizuri Arroategui	HHI/EPA	“Sasoian egotea”	111
Leire Crespo Beistegui	HHI/EPA	“Sineskeriak, egia ala gezurra?”	113


# HITZAURREA

Hizkuntza dugu tresna maitasuna zein edozein sentimendu goxotasunez adierazteko. Guk, euskara dugu horretarako tresna eta horrexeri eusten diogu, batzuek amaren altzotik jaso dutelako, beste batzuek euskarari dioten atxikimenduagatik eta, beste askok, euskarak eskaintzen dizkielako barbarik politenak.

Edozein hizkuntza baliagarri izanda ere, sentimenduak eta barruko gauzak adierazteko hizkuntza batek genero aldetik berbakera neutroa eta inklusiboa eskaintzen badigu, askoz ere hobeto, eta gure euskararen abantailetakoa bat horixe da, generoaren zama arindu egiten duelako.

Honako idazlanak borobiltzeko ikasleok euskara erabilia, ziur nago bihar-etziko gizartea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eraikitzeko oinarri sendoagoak jartzen ari zaretela.

Bizitza, maitasuna, sentimenduak, familia, lagun giroa, jolasak, harremanak,... horiek guztiak islatzeko erabili duzuen “euskaragatik” zorionak, neska zein mutil izan.



Marisa Aldamizetxebarria  
Euskara Zinegotzia



**Ander Moreno Aurtenetxea**  
**DBH 1.maila**

*“Irakurtzea eta kirola egitea, nire zaletasun gustukoenak”*

## **MISTERIO HARRIGARRIA**

Baziren behin, hamabi urteko lau neska-mutil, Mikel, Izaro, Markel eta June deiturikoak. Mikel eta Markel bikiak ziren, beraz, ezaugarri berdintsuak zituzten: altuak, argalak, begi urdinak eta sudur luzeak zituzten, bihotz onekoak ziren... Izaro alaba bakarra zen, begi berdeak zituen, oso lotsatia zen, jirafa bat bezain altua zen eta gainera, gelako zuhurrena zen, azterketa guztietan bikain ateratzen zuelako. Azkenik, June zegoen. Junek ahizpa nagusiagoa bat zuen. Bikien moduan begi urdinak zituen, baina, eltxo baten moduko sudur txikia zuen.

Denak eskola bereko lagunak ziren eta herri txiki eta polit batean bizi ziren, hau da, Gernikan. Astero, ostiral, zapatu eta domeka arratsaldeetan gelditzen ziren eta ikaragarri ondo pasatzen zuten jolasten, hitz egiten, gozoki-dendako gozokiak jaten, ibiltzen... Baina, beraiek ez ziren ohartzen istorio misteriotsu batean murgilduko zirenik.

Abenduko ostiral elurtsu batean, gure lagun taldea, Juntetxeko parke zabalean elur-zuriarekin jolasten ari zen. Bat-batean, gizon oso beldurgarri eta misteriotsu bat ezerezetik agertu zen eta beraien aurrean jarri zen. Ezertxo ere esan gabe, gizonak Juneren poltsatik bere mugikorra atera eta aldapa behera korrika joan zen. Neska-mutilak erreakzionatu bezain laster, gizonaren atzetik arrapaladan joan ziren. Hamar minutu zeramaten gizon haren pausuak jarraitzen eta 30 segundo beranduago Juneri mugikorra lapurtu zion gizona, horma baten aurrean beste hizkuntza batean hizketan ikusita, beragana hurbildu eta hau galdetu zioten.

- *Zer hizkuntzatan hitz egiten zaude?*- galdetu zuen Markelek.
- *Hori sekretua da eta ezin dizuet kontatu!*- erantzun zuen gizon misteriotsuak.
- *Galderak egiten hasi aurretik, nor zara?*- galdetu zuen Mikelek.
- *Ni Jonatan naiz eta Errusiarra naiz*- erantzun zuen gizonak.
- *Hori niri ez zait axola, eman nire mugikorra!*-esan zuen Junek haserre.
- *Ondo da, baina esan nortzuk zareten* - esan zuen Jonatanek.
- *Gu Mikel, Izaro, Markel eta June gara!*- esan zuen Izarok ausardiaz.

- *Orduan nirekin etorri beharko zarete*- esan zuen Jonatanek.
- *Baina, nondik eta nora?*- galdetu zuten Izarok eta Junek batera.
- *Horma honetatik gure helmugara arinago helduko gara* - esan zuen Jonatanek segurtasun osoz.

Hori esan eta jarraian, horma bere tokitik desagertu egin zen eta bide sekretu bat zabaldu zen. Gure neska-mutilak ezer esan gabe errusiar misteriotsua jarraitu zuten. Hasieran, bide sekretu arrunta zirudien, baina, gero eta beherago zihoazenean, bidea estuagoa eta ilunagoa izaten hasi zen. Ordu bat ibiltzen zeramatenean, Mikelek jakingurarekin hau galdetu zuen:

- *Noiz helduko gara?*
- *Lasai, laster helduko gara. Oso gutxi falta da* - esan zuen Jonatanek.
- *Begira, argia ikusten dut hor aurrean* - esan zuen Izarok harrিতuta.

Argitasun horretara heltzean, gure bost pertsonaiak gela zabal eta handi batean zeudela ikusi zuten. Gela hura urrez eginda zegoen eta diamantez, esmeraldez, urrez, perlez egindako lepokoz, koroez... betetako altxor kutzak zeuden. Baina interesgarriena erdian aulki erraldoi bat zegoela zen, gure lagun taldeari bizkarra ematen. Aulkia biratu zenean, neska-mutilak zaharra eta jakintsua zirudien gizon bat ikusi zuten aulkian jesarrita eta hau galdetu zioten:

- *Nor zara?*
- *Nik ez daukat izenik, baina badakit zuek Mikel, Izaro, Markel eta June zaretela* - erantzun zuen izengabeko pertsonak.
- *Zelan dakizu gu nortzuk garen eta zertarako gaude hemen?* - galdetu zuen Izarok harriduraz.
- *Ez dizue Jonatanek azaldu?* - galdetu zuen gizonak.
- *Ez kapitaina, ez diet esan* - erantzun zuen Jonatanek.
- *Ene! Orduan, nik azalduko dizuet. Joan den astean, Jonatan eta ni Bilboko Guggenheim museoa bisitatzen ari ginen, nik hango koadro batzuk margotu ditudalako eta niretzat hemen dauden altxorrak baino preziatuagoak direlako. Bertan sartzekoan ez zegoen koadrorik ezta eskulturarik ere. Bilboko ertzaintzari deitu genion eta etorri zirenean, harrিতuta gelditu ziren eta beste ertzaintza guztiei kasu hau ikertzeko eskatu nien. Baina, oraindik ez dute kasua argitu eta argitzen baduzue, sari ederra emango dizuet- erantzun zuen izengabeko gizonak.*
- *Eta zergatik gu eta ez beste batzuk?*- galdetu zuen Mikelek.
- *Zuek indartsuak, zuhurrak, ausartak... zaretelako. Bihar 10.30ean irtengo zarete* - erantzun zuen izengabeko gizonak.

Mikel, Izaro, June, Markel eta Jonatan Bilbora joateko ordua zen. Gernikako autobus geltoki nagusian irteteko, ordu horretan gelditu ziren. Denak sasoz heldu ziren eta jarraian ekin zioten bidaiari. 45 minutu gutxi gorabehera pasatutakoan, autobusa Bilbora heldu eta gure bost protagonistek misioa hasi zuten.

Lehenik, lapurreta gertatu zen lekura joan behar ziren, eta horrela egin zuten, baina, Guggenheim museoa itxita zegoen eta ezin zuten pasa. Sarreran, bi atezain zeuden inor ez sartzeko. Zorionez, Jonatanek atezainak ezagutzen zituen eta museoa ikertzeko pasatzen utzi zituzten, beraien egoera jakinda. Museo hura goitik behera ikertzea lan handia zen eta banatzea erabaki zuten. Ia lau ordu zeramatzaten, pistarik aurkitu gabe eta azkenean etsi egin zuten. Atsedean hartzeko, museotik hurbil zegoen jolastoki batera joan ziren. Jolasten ari zirela, Izarok belartzan gomazko eskularru bat zegoela ikusi zuen. Hurbildu zenean, eskularruaren ondoan, haizeak mugitutako txartel bat aurkitu zuten. Bustita zegoen eta ez zen dena erabat ondo ulertzen baina honako hau irakurtzea lortu zuten: “Jesus kapitainarentzako, Alde Zaharra, 2. ataria, 4. solairua, eskuina”. Izarok besteei erakutsi zien aurkitutako txartela.

Eztabaidatu ondoren, pista hori jarraitzea erabaki zuten beraien misioarekin bat zetorrela pentsatu zutelako.

Denbora galdu gabe abiatu ziren txartelean jartzen zuen helbiderantz. Gaua zen eta ez zebilen inor kaletik. Gainera, behe-laino izugarriak estaltzen zuen Alde Zaharreko kale estu eta ilunak.

- *Markel badakizu nondik gauden?*- galdetu zuen Junek.  
- *Ez, galduta sentitzen naiz* - erantzun zuen Markelek.  
- *Jonatani galdetuko diot* - esan zuen Izarok.  
- *Jonatan ez dago hemen! Nora joan ote da?* - oihukatu zuen Mikelek.  
- *Ez kezkatu, hor aurrean dagoen iturria ezagutzen dut. Badakit non gauden eta zelan joan txartelean agertzen den lekura*- baieztatu zuen Izarok.

Atarira heldu zirenean, gure protagonistek Jonatan bertan zegoela ikusi zuten. Izarok non egon zen galdetu zion, oso urduri zegoelako eta Jonatanek dei garrantzitsu bat egin behar zuela erantzun zion. Horrela gure bost protagonistek beraien abentura jarraitu zuten. Eraikuntzan sartu zirenean, Mikelek bi gizon misteriotsu ikusi zituen Jesus kapitainaren etxera sartzen. Korrika joan ziren euren atzetik eta sartzetakoan, kapitaina eta biak ihes egin zutela konturatu ziren. Baina ez zegoen dena galduta, Jesus kapitainaren logelako mahai txikian, itsasontzi baten argazkia zegoen eta argazkian Bizkaiko zubiaren aurrean zegoela ikusten zen.

Denbora pixka bat igaro ondoren, Markel, Mikel, June, Izaro eta Jonatan argazkian zegoen kokalekura iritsi ziren. Itsasontzia Argi deitzen zen eta jende mordoa zegoen itsasontzia zaintzen. Markelek zarata eginez zaintzaileen arreta erakarri zuen, eta bitartean, itsasontzira lotuta zegoen soka batetik igo ziren besteak. Itsasontzia oso handia zenez gero, laurak bi taldetan banatu ziren. Lehenengoa Mikel eta Izaro upategira eta bigarrena June eta Jonatan kanpoko aldea arakatzerara.



Upategira sartzetakoan, Guggenheimen lapurtutako koadro eta eskultura guztiak hor zezdela ikusi zuten. Bat-batean, Jonatan sartu zen eta Izarori lepotik heldu zion; hori ikusita, Mikel korrika batean upategitik irten zen. Kanpoan, June ikusi zuen, bi maltzurren eskuetan zegoen. Beste hiru, beregana korrika zetozen eta bere burua salbatzeko uretara salto egin zuten. Nahiz eta, ura hotz egon, portuko ertzera heltzea lortu zuen eta hor Markel zegoen. Biak korrika urrundu ziren eta beraien burua salbu ikusi zutenean, ertzaintzari deitu zioten.

Ertzaintza di-da batean heldu zen eta lapur talde guztia, Jonatan barne, atxilotu zuten, eta Izaro eta June askatu zituzten.

Handik aste batera, lagun bakoitzak bere etxean ezusteko bisita bat izan zuen. Mezulari batek pakete bat eraman zien. Barruan, kutxa eta gutun-azal bat zegoen. Kutxa esmeraldez, diamantez eta urrez beteta zegoen eta gutun-azalean orri bat bi hitzekin: *“Eskerrik asko”*.





**Uguzne Uriarte Santamaria**  
**DBH 1. maila**  
*“ Musika eta surfa ditut gogoko.”*

## **NIRE BIZITZAREN ALDAKETA**

Kaixo, ni Urko naiz, eta 15 urte ditut. Jende askok esaten dit oso mutil zintzoa eta berbatia naizela, eta nik ere hori uste dut. Baina bakarrik konfiantza dudan lagunekin naiz berbatia. Bestela ez dut ezer ere ez esaten. Kirola asko gustatzen zait, baina gustukoena, tenisa eta golfa dira. Eta kirolaz kanpo, beste zaletasun batzuk ere baditut; esaterako, irakurketa.

Ikastolara joaterakoan, gelan sartu eta denak txarto begiratzen naute, baina ez hori bakarrik, iraindu ere egiten naute.

Niri mutilak gustatzen zaizkidalako iraintzen naute, baina zergatik? Horregatik? Nire ustez hori txorakeria bat da. Gauza bera izango litzateke nik zu irainduko bazintut, baina, ni ez naiz horrelakoa, niri ez zaizkit horrelako pertsonak gustatzen.

Lagun asko ditut, baina kasu hauetan, bakarrik batek defendatzen nau. Nerea du izena. Nerea neska oso jatorra da, edo gutxienez nirekin bai. Arazo bat izaterakoan beti laguntzen nau, eta hori, eskertzekoa da.

Nire gurasoek badakite niri mutilak gustatzen zaizkidala, baina ez dakite iraindu egiten nautenik. Kontatzeko asmoa daukat, baina beldurra dut aldi berean. Nereak beti esaten dit etxean kontatu behar dudala, baina ni ez naiz ausartzen.

Lehenengo egunean ikastolako patioan, gauza itsusiak esan eta jo egin ninduten. Nerea nirekin zegoen eta ni bakean uzteko errepikatu zien behin eta berriro. Baina halako batean, talde hartako ume batek isiltzeko agindu zion. Orduan, Nereak, beldurtu eta alde egin zuen, ni bakarrik utziz.

Momentu hartan oso gaizki nengoen. Zarataka hasi nintzen andereño bat etorri arte. Ea zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan, baina, negar batean komunera joan eta atea zarratu nuen. Andereñoa nire atzetik zetorren, korrika bateaz.

Atea jotzen ari zen denbora luzean eta ea lagunekin zerbait gertatzen zitzaidan bakarrik galdetzen zuen. Nik, aldiz, beste leku batera joateko eskatzen nion, bakarrik eta lasaiago egon nahi nuelako. Azkenean, eserleku batean jesarri eta pixkanaka gertatutako guztia kontatzen hasi nintzen.

Burla egiten didatela esan eta harrিতuta geratu zen: “zergatik?” galdetzen zidan. Nik, dena azaldu nion. Homosexuala naizela eta horregatik iraintzen nautela. Bere eskuetan uzteko esan zidan. Hitz haiek entzuterakoan beldurtu egin nintzen, irain hori gehiagora joango zelako. Baina aldi berean, banekien niretzako hobeagoa izango zela.

Andereñoa joan zenean, Nerearengana joan nintzen, andereñoarekin hitz egin dudala esanez, eta beraiekin hitz egingo duela. Nereari esker, andereñoari kontatu izan ahal diot nire arazoa, baina orain gurasoei kontatu behar diet, baina beraiei kontatzea ez da hain erraza.

Etxera heltzerakoan, nire ama eta aitari eskatu nien momentu batean isilik egoteko. Oso urduri nengoen, baina kontatzea lortu nuen, gainera bukatu nuenean hitz egiten, oso gustura geratu nintzen.

Hurrengo egunean gelara sartu nintzen, eta ez nituen pertsona txar haiek ikusten. Orduan, Nerearengana joan nintzen, eta kanporatuak izan zirela esan zidan. Momentu hartan oso pozik jarri nintzen.



**Naia Azumendi**  
**DBH 2. maila**

*“Irakurzaletasunari eutsi behar diogu gauza onak baino ez dakartzalako!”*

## **ZUK HONEKIN ETA GEHIAGOREKIN AHAL DUZU!!!**

Orain dela aspaldi lagun bat egin nuen, bere izena Lore zen. Oso jatorra zen, baina problema bat zuen, oso lotsatia zen. Lotsatia zen leuzemiaren minbizia pasatzen ari zelako eta eskolan denek arraro samar begiratzen ziotelako.

Gabon osteko klaseak iritzi ziren. Loreri deitu nion ea ibiliz joan nahi zuen esateko, baina bere amak hartu zidan deia. Esan zidan Lorek ospitalean zegoela hotz zelako eta gauean botaka egon zelako. Orduan, ni bakarrik abiatu nintzen oinez klasera. Horra ailegatzean, betiko lagunekin joan nintzen eta Lore non zegoen galdetu zidaten. Nik ihardetsi nien gaixorik zegoela. Andereñoak ere bai galdetu zidan eta, orduan nik, gauza bera erantzun nion.

Arratsalde berean berriz deitu nion Loreri eta bere amak hartu zidan deia. Esan zidan ea joan ahal nintzen bisitatzera asper eginda zegoelako. Nik baietz esan nion amari, ezer esan gabe. Amari deitu nion eta baiezkoa eman, ospitalerantz abiatu nintzen.

Bidean zehar gozoki eta panpina dendak zeuden. Orduan, opari bat egitea bururatu zitzaidan. Neukan diruarekin panpina eder bat erosi nuen. Panpina hartz marroi zen.



bat

Ospitalean sartu nintzen eta topatzen nituen erizain guztiei galdetu nien ea non zegoen Lore eta esan zidaten 2. solairuko 257. logelara zegoela. Logelako atea jo nuen eta Lorek zabaldu zidan. Lorek besarkada bat eman zidan. Gero, oparia eman nion eta asko gustatu zitzaion. Bobi jarri zion izena. Esan zidan laster etxera joango zela eta egun berean alta eman zioten. Etxera eraman zidaten kotxez ia gaua zelako.

Baina ez zen sendatzen. Minbiziarekin jarraitzen zuen. Egunak aurrera joan eta gero eta txarrago jartzen zen. Egun gutxi falta zitzaizkion gure bizietatik alde egiteko.

Horregatik, egunero joaten nintzen bisitan ospitalera. Berak asko eskertzen zidan eta oso ondo pasatzen genuen elkarrekin. Denbora oso azkar pasatu zen. Horrek esan nahi zuen, gero eta hurbilago zegoela bere heriotza.

Nik operitutako panpina bueltatu zidan, bere oroimenez nik gordetzeko.

2017ko ostiral arratsalde bat zen; eskolatik irten eta Lore bisitatzera joan nintzen. Ospitalera sartu eta bere logelara abiatu nintzen. Bere ama ohearen gainean leher eginda aurkitu nuen. Orduan, negarrez hasi nintzen eta besarkatu egin nuen.



Ez nuen sinisten gertatu zena. Lore hil egin zen... Lore gehiago ez nuela ikusiko pentsatuz... eta bere panpina Bobi nuela oroimenez... egunen batean denok hilko garela pentsatuz...

**BETI BIHOTZEAN BOBIREKIN, LORE!!!**



**Ane Mei Aspiazu Etxeandia**  
**DBH 2.maila**

## **ASKE BIZI**

Nik jada, 20 urte ditut, eta jakingo duzue, nerabezaro garaia pasatua daukat, baina ez pentsa ahaztua daukadanik, izan ere garai hari esker, gaur egun naizen pertsona bihurtu naiz.

Denok dakigun bezala nerabezaro garaia ez da batere erraza eta gazteen jarrera desegokia izaten da. Nirea ere...

Nerabearoa heldu baino lehen, oso pertsona arduratsua, adeitsua eta zintzoa nintzen eta hamarrekoko ikaslea baita. Nire gurasoak oso harro zeuden nitaz, eta andereño-maisuek beti gauza onak esaten zizkidaten. Baina egoera asko aldatu zen, aipatutako garai hau heldu zenean. Pixkanaka-pixkanaka, lehenago lortutako hamarrak, zazpi bihurtu ziren, eta hauek berriz, bost. Itzarotekoa zenez, nire gurasoak kezkatzen hasi ziren, ezinezkoa iruditzen zitzaielako, beraien seme argiak egun batetik bestera, hamarrak ateratzen bostak ateratzera pasatzea. Denborarekin, ohikotzat hartzen hasi ziren, modu honetan kezka sermoi bihurtuz.

Andereño-maisuek ere berdin egiten zuten, errietak gora errietak behera gelditu gabe.

Dena dela, nire ingurukoei buruz nahikoa hitz egin dugu, ez dut uste oso interesgarria denik sermoiak behin eta berriro botatzen zizkidatela errepikatzea. Nik izandako esperientzia eta bizipenak askoz ere interesgarriagoak dira.

Abentura asko bizi izan nituen urte hauetan, baina horietako batek, nire jarrera eta pentsatzeko modua guztiz aldatzea lortu zituen.

Ez dakit susmatzen duzuen zergatik izan nuen hainbesteko aldaketa institutuan. Arazo guzti hau 2.DBH-n hasi zen, gelakideei larregi ikasten nuela iruditzen hasi zitzaientean. Esan dudana bezala, hamarrak ateratzen nituen, beraz, honen ondorioz jendeak perfektua nintzela pentsatzen zuen, modu honetan irainak sortuz. Burlek eta irainek eragin asko izan zuten nire notetan, ez nuen ikasteko motibaziorik, eta hori gutxi balitz, nire gurasoak borrokan jarduten zuten egun osoan nitaz arduratzeko denbora alde batera utzita. Gainera, niri patioetan neskekin hitz egitea gustatzen zitzaidan futbolekin ibili beharrean, izan ere neskekin zerbaiti



buruz hitz egiteko aukera nuen eta ez mutilekin bezala, beti txorakerietaz hitz egiten zuten: nesken fisikoa, futbola, bideojokoak... Hasieran ez nituen irainak hain txarto hartzen, izan ere nota onak ateratzea eta neskekin ondo eramatea ez zela norbait iraintzeko arrazoi bat izan beharko uste nuelako. Baina, hilabete pare bat pasatu ziren eta konturatzen hasi nintzen sexu bakoitzak eginkizun bezalakoak-edo zituela. Neska azkarrak onartzen ziren gure adineko gizartean, baina mutilak ez, hori arraragoa zen, eta ulergaitza den arren, horrela zen. Neskek arazorik ez zutela ematen zuen, niretzako behintzat, ez zutela kezkarik iruditzen zitzaidan.

Gutxika-gutxika, gero eta txarrago sentitzen hasi nintzen ez nuelako ezer ulertzen. Baina noski, nire gurasoek ez zekiten ezer honi buruz, eta andereño maisuek ere ez, a ze lotsa bestela!

Atzo izan balitz bezala gogoratzen dut. Ostirala zen, eta lau azterketa izan nituen aste hartan. Goizean, ia gosalduta Gabe abiatu nintzen institutura, tripak nahasiak nituela, matematikako azterketa oso garrantzitsu bat bainuen; egia esan ez zitzaidan askorik axola azterketak, tripak nahasiak nituen egunero bezala. Uste moduan, azterketa erdipurdi egin ostean, patiora joan nintzen neskekin hitz egitera. Baina hemen, gauzak ez ziren nik uste bezala irten. Institutuko burlati ohia hurbildu zitzaidan zirikatzerara. Baina oraingoan, normalean baino kasu gehiago egin nion. Bat-batean, atzera begiratu bezain laster, neskak nigandik urrunduta zirela konturatu nintzen, beldurra-edo. Bakarrik nengoela ikustean, oso txarto, kostata, negarrari eustea lortu nuen. Etxera heltzean, nire logelako atea itxita zegoela ziurtatuz, ohean etzanda negar guztiak kanpora botatzen hasi nintzen.

Lasaiago nengoela, pijama jantzi eta etxeko-lanak egin gabe, afaltzera abiatu nintzen. Gurasoak kezkatuta-edo ziruditen baina ez zidaten ezer galdetu, gure arteko harremana eskas xamarra baitzen garai hartan. Beti bezala, aita eta ama haserre bizian zeudela, liskar erdian, logelara abiatu nintzen. Sasoi haietan, ez nien garrantzi askorik ematen gurasoen arteko ikamika haiei.

Ederki gogoratzen dut, gaua mugikorrarekin pasatu nuela, baina ustekabean, begiak zabalik mantendu ezinik nenbilela, loak irabazi ninduen.

Goiz altxatu nintzen, goizeko zazpitan gutxi gorabehera. Egia esan ez dakit zergatik esnatu nintzen hain goiz, izan ere larunbata zen. Aurpegia garbitzera nindoala, nire ezkerreko sorbalda gainean animala bitxi bezalako bat nuela konturatu nintzen. Bat-batean, hari begiratzen nengoela, “*Kaixo!*” esan zidan oso tonu alai batean. Aho zabalik gelditu nintzen, eta nor zen galdetzeko denborarik utzi gabe, bere burua aurkeztu zuen:

*- Egun on! Edgar nauzu. Hemendik aurrera egunero izango duzun laguntzaile eskusiboa.*

Harritzekoa iruditu zitzaidan intsektu arraro hark hitz egiten zekiela ikustea. Nik bakarrik entzun eta ikusiko nuela esan zidan.

Institutuan, denbora osoan zegoen nire atzetik. Baina onartu behar dut nota askoz hobek ateratzen hasi nintzela, eta horrez gain, maltzurrenek ere beraien arazoak zituztela erakutsi zidan.

Egoera larri batean nengoela ikustean, nola aurre egin erakusteko denbora gelditzen zuen. Bitxia iruditu arren, horrela zen. Mundu osoa gelditutakoan, gu biok bakarrik geunden bizirik, mugimenduan, beraz memento honetan nola egin behar nuen azaltzen zidan

xehetasunez, eta nik hala errepikatu, baina oraingoan errealitatean, hau da mugimenduan.

Egunak pasa ahala, nire bizitzan ezinbestekoa nuela Edgar konturatu nintzen, berarekin edozertaz hitz egiten nuelako eta segurtasun handia ematen zidalako. Nigatik kezkatzen zen, eta horrek, maitasuna edo adiskidetasuna sentiarazten zizkidan. Izan ere, nire gurasoak eta gelakideek ez zidaten hori adierazten; nire gurasoak nahikoa zuten beraien artean ondo eramatearekin, beraz ez ziren nigatik asko kezkatzen.

Esan dudan bezala, animo asko ematen zizkidan, eta egun osoa igarotzen zuen nire ondoan lagun txiki bat izango balitz bezala.

Baina ezustean, konturatu gabe sei hilabete pasatu zirela, neguko egun hotz batean ni bakarrik esnatu nintzen. Intsektu arraro haren arrastorik ez zegoen. Goibelduta pasatu nuen egun hura, baina konturatu nintzen, bizitza aurrera zihoala eta nik jada nire bidea erdi egina nuela, hari esker. Beraz, sukaldean gosaltzen nengoela, konturatu nintzen gurasoak beti egon direla eta egongo direla nire ondoan, ni izan nintzela beraiengandik aldentuta zebilena.

Astlehena heldu zen, eta beti bezala institutura nindoan, baina oraingoan inoiz baino indartsuago. Nire jarrera honek, zirikatze gogo zuten guztien ahoak itxi zituen. Betirako.

Kontatu dizuedana, amets edo mirari bezalako bat izan dela pentsatuko duzue, eta egia esan, nik ere ez dakit ziur zer izan zen. Dakidana, nire bizitzako sei hilabete hoberenak izan zirela da, eta gaur naizen pertsonan bihurtzen lagundu didatela.

Gaur egun kazetaria naiz eta mundu osoan zehar bidaiatzen dut albiste interesgarrien bila. Zorte handia izan dudala uste dut, nerabezaro garai hura pasatu ostean, lagun handiak egin nituelako, oraindik lagun izaten segitzen dutenak. Eta bai, mutilak gustatzen zaizkit, ez neskak, baina ez zait asko gustatzen “gay” naizela esatea, ez dut uste izen propio bat jartzea egokiena dela. Gurasoek, azkenean dibortziaztea erabaki dute, eta honi esker orain isiltasuna da nabarmen nire bi etxeetan. Hala ere, biak ditut maite, bai aitarena eta bai amarena.

Azkenengo gauza bat, nire egoeran zaudeten guztioi, zuengan segurtasuna eta itxaropena izateko gomendatzen dizuet, eta Edgar ikusi ezker, eman goraintziak nire partez.

A! Ia ahaztu dut esatea, John naiz.



**Enara Ondarza Ruiz**  
**DBH 2.maila**

## **EGUNEROKO IRAKATSIAK**

### **2017ko maiatzaren 2a, igandea, Amaiaren egunerokoa:**

Gaur oso pozik nago, egun guztia igaro baitut nire lagun min Maitanerekin: goizean, bizikletan ibiltzera joan gara; ondoren, nire etxean bazkaldu dugu guk egindako pizza, rnrnm, bai goxoa gainera!; gero, bero handia zegoenez, kanpora irten gara urarekin jolastera eta azkenik; etxera joan aurretik, gangarkeria batzuk egin ditugu, ups! Zin egin dit hurrengo astean ere, berdina egingo dugula.

### **Maitaneren egunerokoa:**

Itzelgarrizko eguna izan da gaur! Amaiarekin (nire lagunik onena) ibili naiz hara eta hona, bizikletaz eta oinez, goizean eta arratsaldean. Nahiz eta nekatuta egon biok jarraitu nahi genuen jolasean, eta etxera etortzeko ordua heldu denean, zin egin diot datorren domekan ere honelako zerbait egingo dugula.

### **2017ko maiatzaren 4a, asteartea, Amaiaren egunerokoa:**

Ikasgelan egon garen bitartean, ikasle berri bat sartu da, Paul izenekoa, eta Maitaneren ondoan eseri da, libre baitzegoen eserlekua. Maiteminduta zirudien, ematen zuen begietatik txinpartak irteten zitzaizkiola eta gorri-gorri jarri da, tomate heldu bat bezala. Izatez, mutikoa nahiko liraina da, nire ustez.

### **Maitaneren egunerokoa:**

Buah! Ezin dut sinetsi oraindik, gaur kaletik fitxatuta neukan mutila etorri da gure ikasgelara. Paul deitzen da (izena ere polita) ... eta noren eta nire ondoan eseri da! Atetik sartu denean, ia adurra erori zait, arnasa hartzeak ere kostatzen zitzaidan! Ez dakizu ze moñoñoa den: bere begiak, bi harri-bitxi dira; ilea, kotoia bezain leuna du, eta hau mugitzean are lirainagoa da; eta bere irribarrea, ai bere irribarrea!, distiratsua, gela guztia argiz betez ahoa irekitzen duen bakoitzean.

## **2017ko maiatzaren 6a, ostirala, Amaiaren egunerokoa:**

Banengoen ba ni. Gaur Maitanek kontatu dit Paulekin irteten hasi dela eta bihar ere geldituko direla. Oso pozik dirudi, pozten naiz nire lagunagatik, bere lehen mutil-laguna da eta.

Batzuetan, beste planeta batean dagoela nabaritzen dut, dituen pentsamenduetan murgilduta. Hala ere espero dut niri ere kasu pixka bat egitea, gaur adibidez, arratsaldea bizitza oso bat bezain luzea egin baitzait.

## **Maitaneren egunerokoa:**

Eguneroko maitea, sekretutxo bat kontatu behar dizut: asteazkenean hitz egin nizun mutil galant, dotore eta xarmangarri Paulekin irteten hasi naiz. Gaur arratsaldean izozki batzuk jatera joan gara, eta bioi gustatzen zaigu kiwizko zaporea duena! Begira nolako kasualitatea, pentsatzen nuen bakarra nintzela. Patuak bateratu gaitu. Hodeietan nago. Ametsetan.

Zapatuan berarekin gelditu naiz zinemara joateko, film erromantiko bat ikustera artokrispetak jaten ditugun bitartean, eta gero, kanpora afaltzera joateko baimena daukat etxean. Irrikan nago biharko eguna heltzeko!

## **2017ko maiatzaren 7a, larunbata, Amaiaren egunerokoa:**

Oso egun aspergarria izan da: egun guztia egon naiz etxe barruan sartuta, telebista eta mugikorra txandakatu. Horregatik, gauean buelta bat ematera irten naiz aire pixka bat hartzeko, eta Paul beste neska batekin ikusi dut! Nola jakin dudan ez dela Maitane? Beno, ba gaueko hamaikak izan dira eta bera beti joaten da hamarretarako etxera, bestela, ama deika hasten zaio; gainera, ikusi dudan neskak ile beltza izan du eta bera ilehoria da.

Zantar halakoa! Gurutze bide ezezagun baten aurkitzen dut nire burua: ez dakit ikusitakoa esan ala ez lagunari. Esaten badiot, behar bada ez du sinetsiko; eta ez badiot esaten, engainatuta egongo da bere mutil-lagun "maitatuaz", eta baita nitaz, egia ezkututzen baitiot.

## **Maitaneren egunerokoa:**

Gauzak, nik pentsatu baino hobe irten dira, egun mundiala izan da. Arratsalde guztia elkarrekin egon gara, hamarrak arte. Oso maiteminduta gaude biok, asko maite dugu elkar.

## **2017ko maiatzaren 8a, igandea, Amaiaren egunerokoa:**

Maitanerekin geratuta egon naiz goizeko hamaiketan, baina badakizu zer gertatu den? Ez da etorri! Ezta deitu! Non dauka burua ba? Gero, deitu egin diot etxetik ea zergatik ez den joan geratutako lekura adostutako orduan eta esan dit ahaztu egin zaiola. Sinetsi ahal duzu?

Orduan pentsatu dut esan egin behar diodala atzo ikusitakoa, baina pentsatu du gezurretan nabilela (uste nuena) eta azkenean haserretu egin gara. Oso triste nago gertatutakoagatik, baina ziur nago ondo egin dudala egia esaten eta ez hau ezkututzen. Hobe da ahalik eta arinen egia jakitea, gero eta denbora gehiagorekin, gehiago sufritu ahal duzu eta.

### **Maitaneren egunerokoa:**

Gaur, Paulengan pentsatzen egon naizenez, Amaiarekin geratuta nengoela ahaztu zait eta deitu egin dit. Oso txarto sentitu naiz momentu horretan. Ondoren, haserretuta zegoenez, gezurra esan dit: Paul beste neska batekin dagoela! Baina hori ezinezkoa da!

Esan diodanean ez diodala sinesten, are gehiago haserretu da eta azkenean ni ere. Orain ez nago oso ondo, baina ez zait batere ondo iruditzen gezurra esatea, zer dago ba, jeloskor ni hain zoriontsu ikusita? Nire laguna zela uste nuen!

### **2017ko maiatzaren 9a, astelehena, Amaiaren egunerokoa:**

Buah! Maitanerekin hitz egiten egon naizenean gauzak konpontzeko asmotan, Paul agertu da beste neska zaharrago batekin. Orduan, horma bat baino zuriago gelditu da. Berarengana joan da ziztu bizian eta bueltatu denean negar malkoetan itota etorri da. Bihotza ere txikitu egin zait. Barkamena eskatu eta besarkatu egin gara. Ni ere beldur nintzen laguna galduko nuen.

### **Maitaneren egunerokoa:**

Oso arraro nago: alde batetik pozik, Amaiarekin dena konpondu dudalako, frogatu dit lagun ona dela eta beti egia esango didala, pozten nau honelako lagun zintzoa eta bihotz onekoa izateak, ez nuke nahiko inola ere gure harreman hau galtzea edo hondatzea; baina beste alde batetik, oso apurtuta Paulen arazo guztiengatik ... Amaiak esan didan bezala pentsatu beharko dut, pila bat mutil daudela oraindik guri itxaroten!

Nire amonak bai arrazoia oraingoan ere: adiskidetasuna urezta beharreko landarea dela, maitasuna bezala.





**Irati Perez Urbina**  
**DBH 2. Maila**

*“Musikarik gabeko bizitza errakuntza hutsa izango litzake”*

## AURKI NAZAZU IZARREN ARTEAN

Arratsaldeko azken orduak heltzen ari direla adierazten du nire aurreko eguzki erdi ezkutuak. Bihotza gero eta arinago dabilkit; nire oinek ezin dute gehiago, nekeak harrapatu ditu, baina nire abesti gogokoena entzuten ari naiz, eta musikak aurrera bultzatzen nau, zangoak arintzen dizkit, eta lasterka ari naizen aldi berean argiaren abiadura hartzen dudala dirudi. Munduak nire inguruan jira-birak ematen ditu etengabe. Nire aldean dauzkadan guztiak atzean uzten ditut, nik ere ezagutzen ez nituen indar guztiekin korrika ari naiz. Musikak errealdetatik urruntzen nau. Atzean daukadan bizitza nazkagarri horretatik aldentzen naizen heinean, biziago sentitzen naiz. Nola da posible?

Benetako mundura itzultzen naiz, zerbaitekin talka egitean lurrera erori naizenean. Eskua zoruko harriekin urratzen dut, eta begiratu gabe, badakit zauri bat daukadala eskuan, nahi gabe atera zaidan malkoak ez baitu gezurrik esaten.

- *Ene... barkamena eskatzen dizut!* - esan dit mutil baten ahots ezezagunak. Eskua itxi ezinik, lurretik altxatu naiz, laguntza eskaintzen didan mutilaren eskua alde batera utziz.

- *Ondo al zaude?* - galdetzen dit, nigana hurbilduz. Atzera pauso bat eman eta inpotentzia osoz, etxerako bidea hartzen dut, erantzunik eman gabe. Egia esan, badakit nire errua ere izan dela, baina etxera itzultzeko ideia ez zait batere atsegina egiten, eta mutil horrekin ordaindu izanaz damu naiz.

Aste bete pasa da, eta zauri deseroso honek ez dauka itxura hobetik. Ez diot amari komentatu, ez dut galdeketa bat entzuteko batere gogorik. Supermerkatutik atera naiz, amak eskatutako erosketak bete ondoren. Pentsatzen hasten naiz, aterkia irekitzen dudana bitartean, euria hasi baita. “Zein ote da nire eginkizuna bizitza aspergarri honetan? Erosketak egiteko eta eskolara joateko besterik baino ez dut balio? Hori dirudi.” Bat-batean, aterkiak eskutik ihes egiten dit eta harrapatzen saiatzen naiz, baina erosketen pisua gehiegizkoa da eta ez nau besoa altxatzen utzi. Zauriaz ohartu gabe, poltsa eskuineko eskuarekin hartu dut, eta zauria ukitzean, eskua ahuldu eta poltsa erori zait. Aterkia galdu dut, eta erositako gauza gehienak errepidera erori dira eta autoek, konturatu gabe, zapaldu egin dituzte. Amorrua nitaz jabetu da,

eta indar guztiekin aurrean neukan laranja ostiko gogorra eman diot. Bat-batean, nigana datorren mutil gazte bat ikusten dut, txano lodia buruan eta bota dudan laranja eskuan daramatzala. Errieta egingo didala ustean, beragandik aldentzen saiatzen naiz.

- *Lasai* - esaten dit, laranja desegina zaborrontzira bota ondoren. Besotik hartu eta bere aterki beltzaren azpian kokatzen nau. Ez dakit zer esan.- *Ikusten dut zauria ez zaizula sendatu, ezta?*- Bera da.

Bera da, Ander, urte betean nire lagun onenean bihurtu den mutil ezin hobea; bera da, nire bizitza guztiz aldatu duen pertsonatxoa; bera da, pertsona hobea izaten lagundu didan ezinbesteko laguna; bera da, irribarre eta poztasun ezezagun guzti hauen arrazoï bakarra. Anderrekin nagoen momentu bakoitzean, ez zait batere axola nire inguruan gertatzen ari dena, denbora une batez geldituko balitz bezala sentitzen naiz. Bere besoek segurtasuna transmititzen didate, eta eskutik heltzen nauenean, mundu eta Unibertso osoko pertsonarik indartsuena eta zorionsuena naizela nabaritzen dut. Alboan norbait dudala sentitzen dut: ulertzen nauen norbait, hitzik esan gabe begiradarekin aurrera jarraitzeko indarra ematen didan norbait. Nahiz eta, batzuetan, bere aldetik, ezagutzen ez ditudan aldentze txikiak egon, egiaztatu dut edozertarako nirekin egongo dela.

- *Ikusten duzu izar hori?* - xuxurlatzen diot belarrira, goian daukagun izarrez betetako zerua seinalatuz.- *Hor dago nire aita, irribarrez, aurrera jarraitzeko esanez.*- Malko bat erortzen zait, baina nahi gabe atera zaidan irribarre txiki batek laguntzen du.

- *Sentitzen dut.*- Belarrean etzanda gaudela, besarkada suspergarri eta beroa ematen dit. Ez dut gehiagorik behar.

- *Ander* - esaten diot. Bere begirada ederrak sentsazio arraro eta atsegin batek gorputz osoa zeharkatzea lortzen du.- *Egunen batean, gure ondorengoek, izarrak kontatzen ari diren bitartean, beraien artean aurkituko gaituzte, eskutik helduta. Zin egiten dizut, bizitza osoan zure ondoan egongo naizela. Betirako elkarrekin izango gara, ezta?*

Eskutik heltzen nau eta berak bakarrik dakizkien irribarreetako bat oparitzen dit. Irribarre gozo horrek mila hitzek baino gehiago balio ditu.

Eskutik helduta gaudela begiak ixten ditut. Loaldi sakon batean kulunkatu naiz. Zoriontsu naiz, behar dudan guztia ondoan baitut. Anderrekin nago, ezin da ezer txarto atera.

Kaletik datorren auto baten klaxon zalapartatsuak esnatzen nau. Ingurura begiratzen dut, nire logelan nago, dena lasai dago. Ama ez dago etxean, aste bete da lana duela eta urrun bidaiatu behar izan duela. Gau-mahaiaren lehen ez zegoen paper zuria aurkitzen dut. Jakingura osoz ireki eta gutun bat dela konturatzen naiz.

*Lierni maitea:*

*Agurtu egin beharra, minbiziak gainditu nau, bizitzeko mina da bihotz ziztrin honen barruan eraman dudana bizitza osoan. Eskertu behar dizut, laguna, bihotzak taupadak ematen dituen bitartean, zurekin igaro dudan 14 urte hauetako azkenengoa, inoiz baino hobea izan dela. Nire ordua heldu baita; gero arte Lierni, ez iezadazu agur esan, laztana, egunen batean berriz elkartuko gara. Mesede bakarra eskatzen dizut. Ez iezaiozu inoiz izarrak kontatzeari utzi eta aurki nazazu haien artean. Badakizu nire bihotzean betirako aurkituko zaitudala. Maite zaitut.*

*Ander*

Orain ulertzen dut dena. “*Nik ere maite zaitut*” esan nahiko nuke, baina berandu da jada. Malko bat erori zait, gutunaren erdi-erdira. Papera alde batetik bestera zeharkatu duela dirudi, irakurri berri ditudan hitzek bihotza zeharkatu didaten moduan. Gutuna tolestu, praktetako poltsikoan gorde dut eta tximistak zero ekaiztsu bat igarotzen duen abiaduran ospitalera naraman kale luzean zehar lasterka ari naiz, nire oin nekatuek zapaltzen dutena kontuan hartu gabe. Oihu egin nahiko nuke, baina eztarrian sortu zaidan marapilo erraldoiak hitzak ateratzea galarazten dit.

Ospitalean ikusi dut, han dago, etzanda, betirako amets batean murgilduta. Mundu krudel honen aurka nuen babes bakarra, arnasarik gabe geratu da. Ez ditut inoiz berriz ikusiko begi berde itxaropentsu horiek, haien atzean itxaropen askorik ez zegoen arren.

Kale erdian nago, bakarrik, berriz ere. Bai, jendea dago nire inguruan, baina nik itzal ilunak besterik ez ditut ikusten, derrigortasunek erakarritako itzalak, egunerokotasun aspergarri eta behartu baten atzetik, irribarrea gero eta ezkutatuago geratzen zaien bitartean. 3,2,1... Korrika hasi naiz. Malkoak bikoiztu egiten dira segundoro eta aurrean dagoena argitasunez ikustea galarazten didate; bihotza bularretik irtengo zaidala sentitzen dut aldi berean. Nora noa? Errealitate triste eta faltsu honetatik ahalik eta urrutien.





**Ainhize Sandia Provecho**  
**DBH 2. maila**

*“Lagunek eta saskibaloiak zoriontsu egiten naute.”*

## **ETA AZKENIK ...**

### **1933ko ekainaren 28a**

Orain, Ameriketako aireportu batean nago. Lau ordu barru nire hegazkina irtengo da Donostiako aireporturantz. Irrikan nago Zumaiara heltzeko. Orain dela bost urte ez dugula nire lagunek eta nik elkar ikusten. Hamabost urte nituenean Nueva Yorkeko aitona hil zela esateko deitu ziguten bertako ospitaletik. Amak eta nik hegazkina hartu, eta bertarantz abiatu ginen. Nire aitak, nik bost urte nituela bakarrik utzi gintuen. Goiz batean bere gauza guztiak batu zituen eta inori ezer esan gabe eta dena bertan behera utzita, etxetik alde egin zuen. Ameriketara ginela, ama gaixotu egin zen; egunero ari zen botaka eta horregatik medikuarengana eraman nuen. Ospitalean hilabete bat egon ginen amari frogak egiten zizkioten bitartean. Gau eta egun egoten nintzen bera zaintzen. Gogoan dut data hura: 1928 ko urtarrilaren 31.

\* \* \*

*- Barkatu Mikel, utziko dizkidazu bost euro mesedez? Kafetegian jateko zerbait erosi nahi dut, gose naiz eta!*

Mikel ospitale hartan ezagutu nuen mediku bat zen. Denbora gutxitan lagun oso onak egin ginen. Nire ustez oso gaztea zen medikua izateko, 28 urte besterik ez zituen. Ile iluna zuen, bere aurpegi zurbilarekin kontrastatzen zuena eta begi urdin eta berdeak. Ni baino bi buru altuagoa zen. Egia da itxuraz oso guapoa zela. Izaeraz oso alai ematen zuen, baina, ezagutuko ez bazenu lotsatia eta aiurri hotzeko gizona zela pentsatuko zenuke, niri lehenengoz ikusi nuenean gertatu zitzaidan bezala.

*-Noski, hementxe dituzu.- esan zuen bere poltsikotik dirua hartuz eta niri emanez.*

Kafetegirantz joan nintzen, baina bat-batean amantal kolore desberdinez jantzitako sendagile multzo bat ikusi nuen nire kontrako norabidean arrapaladan zihoazela. Bira erdia

eman eta haien atzetik jarraitu nuen, oso kuxkuxeroa naizelako. Sendagileek korridorearen amaieran ezkererantz egin zuten, gaixo baten gelara sartu eta nire muturren aurrean atea itxi zuten. Une hartan ohartu nintzen gela hura nire amarena zela. Ate-joka ibili nintzen Mikel etorri zen arte. Hark esan zidan nire amak konortea galdu zuela eta frogak egin behar zizkiotela. Lasai egoteko ere eskatu zidan.

Kafetegira joan ginen elkarrekin eta bertan bazkaldu genuen. Jan ostean ia-ia arratsaldea zen. Mikelek lanera bueltatu behar zuen eta nik itxarongelara. Bertako aulki batean eserita ia loak hartu ninduen.

- *Matxalen Iturriaga? - galdetu zuen norbaitek.*

Begiak ireki nituenean egongela erdian amantal zuriz jantzita zegoen gizon nagusi bat aurkitu nuen. Nire amaren gelan egondako mediku bat zela eta eskuan paper batzuk zituela konturatu nintzen. Berehala hurbildu nintzaion.

- *Zure ama Leire Iturriaga da? - galdetu zidan gizonak.*

- *Bai. Ondo dago? Zer gertatu zaio? Itzarrrik dago? Joan naiteke bisita egitera?*

Horiek eta beste galdera asko zebiltzan nire buruan hara eta hona, neuretzat bakarrik gorde nituenak.

- *Egon zaitez lasai neska. Bai, zure ama itzarrrik dago, baina minbizia du.*

Une hartan ez nuen jakin zer egin, ez nola erreakzionatu, bihotzean gezi batek jo banindu bezala sentitu nintzen. Gorputza dardarka nuen, gero dena ilun bihurtu zen arte.

Zaratak entzuten nituen, baina nigandik oso urrun. Minutu batzuk geroago begiak ireki nituen eta dena zen zuria: hormak, oheak, nire arropak ... Ospitalean nengoen oraindik.

- *Non dago ama? - galdetu nion handik bueltaka zebilen erizain bati. Baina ez zidan ezer erantzun.*

Ohetik jaitsi eta korrika hasi nintzen oinutsik 765 zenbakia zuen gelarantz. Atea ireki eta bertan aurkitu nuen ama doktore batekin. Amaren gaixotasunaren berri eman zidan doktore bera zen. Biek hurbiltzeko keinua egin zidaten.

- *Lehenago esan dizudan bezala zure amak minbizia du, baina senda daiteke. Zoritxarrez lau urteko tratamendua da eta ospitale honetan egon beharko da.*

Gaixotasuna senda zitekeela esan zuenean pixka bat lasaitu nintzen.

- *Berdin da zenbat denbora egon behar dugun ospitale honetan. Ama osatzearren edozertarako nago prest.*

- *Laztana, tratamendu hau oso garestia da. – argitu zidan amak, atsekabez.*

- *Eta? Lanean hasiko naiz. Esan dizut edozer egingo dudala zu sendatzearren.- ihardetsi nion amari begiak malkoz beterik.*



Elkar besarkatu genuen eta gelatik irten nintzen. Bertan, korridorean aurkitu nuen Mikel eta gertatutako guztia kontatu nion. Argi utzi zidan bere eskuetan zegoen guztia egingo zuela guri laguntzeko. Zerbait behar izanez gero, berarengana joatea besterik ez nuela.

Ospitaletik irten nintzen lana aurkitzeko asmoz. Lehenik hurbileko supermerkatuetara joan nintzen baina ez zuten langilerik behar; gero jatetxe batera eta zarataka bota ninduten bertatik. Azkenik taberna batera sartu nintzen. Tupustean norbaiten estropezu egin eta edaria jaurti zidan. Andra bat zen, nire tamainakoa eta 30 urte bueltakoa. Ilehoria eta itxuraz oso ederra.

Barkamena eskatu eta arropa berriak erosteko dirua eskaini zidan. Ezetz erantzun nion. Orduan berarekin mahaian jesartzeko eta zerbait hartzeko gonbidapena luzatu zidan.

- *Zenbat urte dituzu? - galdetu zidan kafeak eskatu ostean.*
- *Hamabost.*
- *Eta lanik badaukazu?*
- *Ez, zergatik?*
- *Moda-agentzia bateko zuzendaria naiz eta nire ustez modelo izateko baduzu presentzia. Nahiko zenuke gurekin lan egin? - esan zidan paperezko txarteltxo bat emanaz.*
- *Noski! Eskerrik asko benetan. Holakorik! Noiz hasiko naiz lanean?*
- *Bihar bertan ondo datorkizu?*
- *Bai. - erantzun nion irribarretsu eta sinetsi ezinik.*
- *Bihar arte orduan. - bi musu eta alde egin zuen.*

Ospitalera bueltatu nintzen eta dena kontatu nien amari eta Mikeli.

\* \* \*

Azkenean lanean lortutako diruarekin tratamendua ordaindu genuen eta ama osatu egin zen. Gaur egun oraindik modelo izaten jarraitzen dut.

### **1933ko ekainaren 29a**

Gaur Zumaian zerura begira nago eta laster eguzkia joan egingo da. Euripean emango diegu ongietorria herriko jaiei.

Nekatuta eta urduri nago. Goiz-goizean jaiki naiz eta orain berandu da. Laster euria etorriko da eta etxetik botako nau. Hori baino lehenago nire momentua aprobetxatuko dut. Bizitako argi-ilunak elkar banatuko ditut Zumaiako herriarekin, batez ere, San Telmo elizarekin eta Itzurun hondartzarekin.

Nire lehenengo izpi hotz eta beroak San Telmori oparituko dizkiot. Egunero ikusiko dut ermita soineko zuriz eta txano gorri jantzita. Egunero begizatuko dut irribarre gozo eta distiratsuz, adi-adi, olatuek abesten duten kanta entzunez. Soinu ezti horrek haur-kanta bat ekarriko dit gogora.

Egunsentia ere helduko da; itsaslabarretik miloi bat kilometrora dauden izpiek, suge talde handia balira bezala aterako dira eta beheranzko norabidea hartuko dute urre kolorezko

harea bigun eta ur berdexka eta hotza berotzera. Hareatzatik irteten diren harri xafla meheak urak segundoro estaltzen dituen aizto iltzatuak irudituko zaizkigu. Baina orain kresala usaina sentitu nahi dut eta banoa. Zumaiako zirimiria sentitu nahi dut.





**Ismael Aomar Hamdane**  
**DBH 2. maila**

*“Betidanik futbola eta irakurmena gustuko izan ditut”*

## **HASSAN ETA ASKATASUNAREN PREZIOA**

Behiala, Saharako basamortuan bere familia eta lagunekin batera bizi zen mutiko apal, sinestun eta gazte bat. Bere haurtzaro eta nerabezaro guztia bertan eman zuen oso egoera txarrean bertako jende gehienak bezala.

Egun batean, hamabi urte zituela bere amari galdetu zion ea zergatik bizi diren basamortuan. Orduan bere amak erantzun zion orain dela berrogei urte bere jatorrizko herrialdetik kaleratu zirela marokoarrek eta basamortura ihes egin behar izan zutelako.

Hassanek, ez zuen ikusten batere zuzen bere herrikideei egindakoa eta uste zuen zerbait egin zezakeela injustizia horren aurka borrokatzeko. Hortaz, sei urte geroago, zuzenbide ikasketak egin zituen, bere herrialdearen eskubideak defendatu ahal izateko.

Behiala, unibertsitatean ikasten zegoela, neska marokoar bat, Fatima izenekoa ezagutu zuen eta beraz maitemindu zen. Hilabete batzuk igarota bere gurasoei kontatu zion neska marokoar batez maitemindu eta berarekin ezkondu nahi zuela, baina Hassanen gurasoek ez zuten onartu bien arteko harremana bi herrialdeen arteko gatazkengatik.

Baina gurasoek ez zekitena zen Fatima marokoarra izan arren, Sahararen askatasunaren aldekoa zela. Hassan hilabete batzuetaz txundituta gelditu zen, ezer egiteko gogo gabe, ezta bere ikasketak jarraitzeko ere.

Eta egun batzuetaz, unibertsitatean joateaz utzi zuen, ez baitzuen ikusten bere burua gai ikasketak jarraitzeko. Fatima, Hassan animatzen ahalegindu zen baina ez zuen ezer lortu, oso deprimiturik baitzegoen.

Oso triste jarraitzen zuen gau batean, bat-batean, aingeru bat agertu zitzaion esanez bere ametsak, desioak eta helburuak defenditu eta borrokatu egin behar zituela eta horretarako ausarta izan behar zela.

Hassanek, lur jota, erantzun zion urteak eta urteak zeramatzala Sahararen askatasunaren bila baina ez zuela ezer lortu eta gainera, Fatimaz maiteminduta zegoen arren haren gurasoak ez zutelako hura onartzen, soilik marokoarra zelako.

Orduan, aingeruak erantzun zion askatasunak prezio bat zuela eta berantzako eta bere herriarentzako askatasuna lortu nahiko balu, arazo ugariei aurre egin beharko ziela, eta hau esanda, agertu zen bezala desagertu egin zen.

Protagonistak, gau osoa eman zuen pentsatzen aingeruak esandakoaz eta konturatu egin zen egia esaten zuela, berak nahi zituen helburuak lortu nahi bazituen agertuko zitzaion arazoei aurre egin behar zizkien.

Hurrengo egunean, ikasketetara bueltatu zen beste jarrera positiboago batekin, aurreko gauean ikasitako irakaspena buruan izanda, eta bere helburuarekin, Sahararen askatasuna, lortzeko asmoz eta gogoz.

Aste batzuk igarota, udaberriko oporren hasieran, bere gurasoei bisita egitera joan zen.

Gurasoekin bildu zenean Hassanen aitak galdetu zion ea Fatimarekin harremanetan jarraitzen zuen. Gazteak, oso urdurik baietz erantzun zion aitari.

Jarraian, aita eta gaztearen artean oso gatazka handia piztu zen, baina aita konturatu egin zen geroago, benetan maitemindurik zegoela, eta jakinik ez ziola grazia handirik egingo bere onespina eman zion. Hassanek, oso pozik gurasoei besarkatu zizkien eta hurrengo egunean, Fatimari bisita egitera joan zen.

Fatima aurkitu zuenean, belaunikaturik berarekin ezkontzeko eskatu zion. Fatimak baietz erantzun zion. Ondoren galdetu egin zion ea bere gurasoek onartzen bazuten ezkontza. Hassanek erantzun zion, azkenean konturatu egin zirela benetan beraz maiteminduta zegoela.

Bi urte geroago, haien ikasketak bukatu zituzten esfortzu asko egin ondoren eta ezkondu egin ziren. Baina protagonistak betidanik izan duen helburua lortzeko, Europara alde egin beharko zuela eta bertan bizitza-proiektu bat egin beharko zuela konturatu zen, benetako demokrazia eta boterea politikoa bertan zegoelako.

Fatimak, berarekin batera joan egingo zela esan zion, hura ere Hassanekin bat zetorrelako gai honetan, baina dena utzi beharko zutela jakinik. Hala ere, biek zekiten horrelako pausua egiteko laguntza behar izango zutela.

Mohamed izeneko gazte bat ezagutu zuten, haien bezala arazo honen aurka borrokatzen zuela. Hassanek, bere proiektuari buruz hitz egin zion gazteari eta honek laguntza eskaini nahi zuela esan zion.

Sei hilabetetan hamar pertsonaz osatutako talde bat ziren, denak Hassanen helburu berberarekin, Sahararen askatasuna berreskuratzea. Espainiako herrialdera joateko prest zeuden, bertan Espainia herrialdeko ordezkariarekin bilera bat antolatuta zegoen Sahararen egoerari buruz hitz egiteko.

Espainiara heldu zirenean ordezkariarekin programatutako bilera egin zuten, eta ordezkaria bere eskuan zegoen guztia egingo zuela esan zien Hassan eta bere taldeari.

Protagonista, ilusioz beterik irten zen bertatik, baina jakinik bere lana ez dela bukatuko hemen, zeren eta, alderdi batetik, baitzekien prozesu hura luzea eta zaila izango zela.

Urte bat geroago, Hassan eta Fatimak seme bat izan zuten, oso pozik zeuden, eta gainera Hassani gurasoek gutun bat bidali zioten, gutuna honako hau esanez:

*Hassan maitea,*

*Oso pozik gaude lortzen ari zarenagatik, beste kontinente batera joatea zure herrialdearen eskubideak eta askatasuna defendatzeko, ez da batere erraza. Beno, zelan zaudete Fatima eta zu? Espero dugu denok ondo egotea, gu oso ongi gaude, ilusioz beterik. Zelan Espainiako ordezkariarekin izandako bilera? Aurrerapenik egin ahal duzue?*

*Brahim eta Asiza*

Hassanek, gutuna irakurri eta gero, honako gutun hau egin zien gurasoei haien galderak erantzuteko:

*Brahim eta Asiza*

*Oso ondo gaude Fatima eta ni eta orain dela bi egun semea jaio da. Bileratik, oso pozik irten ginen izandako elkarrizketagatik Ordea, jakin badakigu, talde osoak, egiten ari garen lana ez dela batere erraza baina ez dugu amore emango. Gure helburua lortu bezain pronto, gure herrialdera itzuliko gara.*

*Hassan eta Fatima*

Bost urte geroago, azkenean, Saharak askatasuna lortu zuen, Hassan, Fatima eta bere taldeari esker. Berrehun mila lagunek, zoritzarrezko egoera horri amaiera eman ahal izan zioten.

Azkenean, Hassan eta Fatima jatorrizko herrialdera itzuli ziren, gauzak aldatu ahal direla ikasiz. Saharara heldu zirenean, herrikide guztiek heroi batzuk bezala eman zieten ongietorria.







**Ainhize Bengoa Gezuraga**  
**DBH 2. maila**

*“Euskaraz irakurtzea eta idaztea gustatzen zait.”*

## **MUTIL ARRUNT BATEN ISTORIOA**

Ba al dakizu zein den sentimendu hori norbait lehenengo aldiz ikustean eta tximeletak urdailean sentitzen dituzunean? Patuak elkartu egin bazintu bezala? Ba al dakizu pertsona bat lehenengo aldiz ikustean eta zure begiak bere begiekin topo egitean sortzen diren txinpartak zer diren? Edo akaso zure barnean sentitzen den su kiskalgarri hori zer den?

Beno, txapada botatzen hasi baino lehen nor naizen esatea ondo egongo zen. Ni Markel Igartiburu naiz, pertsona arrunta, baina istorio batekin. Neure buruari buelta asko eman ostean kontatzea erabaki dut. Bai, ni horrelakoa naiz denbora bat behar izaten dut nire barneko sentimenduak askatzeko, lehenengo ondo barneratu eta onartu behar izaten ditut.

Istorio hau Finlandian kokatzen da, bertako hiriburutik nahiko hurbil dagoen herrixka batean. Ni Erasmus beka batekin joan nintzen medikuntza ikasten bainengoen eta herrialde horrek munduko medikurik onenetarikoak ditu. Gainera, nik gutxi gorabehera badakit finlandiera, nire osabaren emaztea hangoa baita. Bikote ziren garaian gure etxera etortzen ziren biak eta pixkanaka-pixkanaka hizkuntza hau ikasi nuen. Baina momentu horretan Finlandian zeuden eta horrek asko erraztu zidan bidaia.

Lehenengo hiru hilabeteetan arma desberdinek sortutako zauriak nola sendatu geunden ikasten eta orduan, maisuak armadako pare bat pertsona etorriko zirela esan zigun. Bigarren hilabetera arte ez ziren etorri.

Lehenengoa mutil bat zen, azal beltzarana eta begi marroi ilunak, ia beltzak zituen. Gihartsua eta garaia zen, ile beltza eta ile motza zuen, kasik larru-arras moztua. Ni baino zaharrago zen, hogeita hamar urte izango zituen gutxi gorabehera. Bestea neska gazte bat zen. Nire adina zeukala zirudien, ilehoria, baina bere ilea ia zuria zirudien, eta begietara begiratu ninduenean benetan uste izan nuen txinpartak saltoka hasiko zirela, nire urdailean tximeletak ez ziren izan, ez, nik uste dut tximeleta erraldoiak izan zirela eta nire lepoan korapilo bat sortu zen, ezin nuen hitz egin. Bere begiek urdin kolorea zuten eta azalaren kolorea zuria zen. Nabari zen ez zela asko zaintzen: azalean pare bat orbain zituen eta ilea edonola batua zuen motots batean, baina halere oso ederra zen. Biak militar uniformeak zuten jantzita, mahuka

luzeak zituen, sorbalden azpialdean Finlandiako bandera txiki bat zuten berdea eta marroia zen, patrika askorekin. Konturatu nintzen ez zutela armarik; nire ustez, sarreran utzi behar izan zuten, unibertsitatean ezin baitzen inolako armarik sartu. Bular aldean, bihotzaren parean gutxi gorabehera, zilarrezko domina bat eta brontzezko bi zituzten biek, denak kolorezko zintatxoekin dekoratuta. Bota altuak zituzten, horien zola zuloz beterik zegoen, mendiko oinetakoen antzera. Buruan txapel zapaldu bat zeramaten uniformearen kolore berdinak zituen.

Maisuak esan bezala, armek eragindako zauriak nola sendatu azaltzen hasi ziren, horretarako lehenengo bi asteetan teoria ikasi behar izan genuen eta hurrengo astean praktikatzen hasi ginen, baina gizakiekin oraindik ez. Azkenengo astean militarren egoitzara joan ginen, benetako gizakiak sendatzeko.

Egoitzatik aparte entrenatzeko leku ugari zituen leku horrek, bai kanpoaldean eta barnealdea; pertsona gehienak barnealdean zeuden. Denak zeuden zerbait egiten: batzuk entrenatzen, beste batzuk fitxa batzuk begiratzen... Gu gure maisuei itxaroten geunden: Kalle eta Henna; horiek ziren beraien izenak.

Ez nuen espero Kalle bakarrik etortzea, hori gertatu zenean oso urduri jarri nintzen, ez nekielako non zegoen Henna, nire maitea. Nik patuan sinesten dudanez banekien berriro ikusiko ginela, bata bestearentzat eginda baikeunden. Kallek gogoratu zigun kontu handiz ibiltzeko pertsona baten bizitza gure eskuetan zegoelako. Bakoitzak zauritu bat izan genuen eta nire sorpresarako nirea Henna zen. Bizkarraldean bala bat zuen, nabari zen zauria garbitu ziotela, bala barruan zuen, ordea.

Aurpegira begiratzerakoan bere betiko aurpegi serioa ikusi nuen. Aitzitik, begietara begiratzean bere barneko mina nabaritu ahal zen; begiak baitira arimaren ispilu. Irribarre txiki bat jarri zuen aurpegian, nire begirada kezkatua ikustean. Atzamarrekin hurbiltzeko esan zidan. Hurbildu eta belarrira honako hau xuxurlatu zidan:

*-Badakit oso mediku ona zarela, zugar konfiantza osoa dut.*

Hori entzuterakoan martxan jarri nintzen. Nire tresnak hartu eta bala kontu handiz atera nuen. Ahalik eta min gutxien egiten saiatu nintzen eta uste dut lortu nuela. Bukatzerakoan beste gela batera eramane zuten.

Kallek esan zigun oso lan ona egin genuela denok eta egoitzan gelditzeko lo egiten. Ohera joan aurretik Henna zegoen gelara joan nintzen. Esku-ohetatean zegoen etzanda liburu bat irakurtzen. Hitz egiten hasi ginen eta gauak ihes egin zigun.

Hurrengo goizean beste praktika batzuk egin behar izan genituen eta ondoren Henna ikusten joan nintzen berriro. Horrela egon ginen aste osoan. Ni maiteminduta nengoen, baina ez nekien Hennak zer sentitzen zuen. Nik banekien hori gazteleraz “amor a primera vista” deiturikoa zela, eta sinetsita nengoen patuak batera ikusi nahi gintuela.

Hurrengo hilabeteetan askotan gelditzen ginen kafe bat hartzeko. Lagun oso onak egin ginen eta nik ez nuen hori hautsi nahi. Banituen unibertsitateko beste lagun batzuk, denak oso atseginak ziren eta oso eskuzabalak ere bai, baina Hennarekin egotea nahiago nuen. Berdin jarraitu genuen goizeroko kafea hartzen, Euskal Herrira itzuli behar izan nuen arte.

Egun hori bereziki tristea izan zen banekielako ez nuela berriro ikusiko. Bihotzean orban sakon bat gelditu zitzaidan, oraindik ere hor dagoena. Jadanik ez da lehen izan zen bezain sakona, baina oraindik min ematen du gogoratzea. Ausartagoa izango banintz eta musu bat eman izan banio, edo nik sentitzen nuena esan izan banio... Baina ez. Horren orde bezarkada bat eman nion. Koldarra!

Orain ez dakit non zauden, ezkontuta, mutil-lagunarekin edo ezkongai zauden, ezta hilda ala bizirik zauden ere. Badakit oso penagarria eta patetikoa dela. Baina bizitzan behin maitemintzen zara horrela eta maitasun hori bizitza osorako da. Beste pertsona batzuk estimu handitan izan ahal ditugu, baina ez da berdina. Badakit ez duzula hau inoiz irakurriko, ez dakizu euskaraz eta. Baina gauza bat nahi dut zuk jakitea: gu patuak arrazoi batengatik elkartu gintuen, lehen begiradan maitemindu bainintzen zutaz. Ez dit axola zer esaten duten besteek. Badakit ia inork ez du horrelako gauzetan sinisten. Baina jendeak ez dakizki gauza asko eta beste askotan erratu egiten da. Gauza berriei edo ezezagunei beldurra die. Baina argudio horiek ez dute ezer esaten. Berdin dit hori egia edo gezurra den. Hau da, patua edo “ amor a primera vista” benetan existitu ahal diren bi gauza direla eta oraindik ez matematikariek eta ez psikologoek edo beste zientzialariek ez dute ezer esan, ez daukatelako inongo frogarik.



**Itxaso Olea Urionabarrenetxea**  
**DBH 3. maila**

*“Ez ditzala haizeak euskal hitzak eramán, erabil  
ditzagun haien xarmak erakutsi”*

## **EMAN DENBORA DENBORARI**

Eguzkia ezkutatzear zegoen ehun biztanle besterik ez zituen herri txiki hartan. Eguraldi ona zen nagusi.

Egoera larrian zegoen etxe batean hamalau urteko neskatila bat bere ama alargunarekin bizi zen. Beraien aberastasun bakarra bata besteari ematen zion laguntasuna eta maitasuna zirelarik.

Bere izena Maria zen, Maria Fontaneda. Neskatilak udazkeneko gaztainen koloreko ile luzea zuen, begi marroi ilunekin, hori zela eta, batzuetan Maialen Lujambio bertsolariarekin nahasten zuten, antz izugarria baitzuten. Baina ez hori bakarrik, eskolan ere denek Maria Dorada deitzen zioten. neskatoari ez zitzaion gustatzen jendeak horrela deitzea gaileten koloreko aurpegi borobila baitzuen.

Maria familia txiro batean bizi izan zen, afrikar jatorria zuena. Hain zuzen ere Angolakoa, egunero eskolatik irtetea Maria eta bere amatxo portalak garbitzen joaten ziren, beraien bizitzak aurrera eramateko behar bezain beste diru irabazteko. Mariak gauero idazten zuen bere egunerokoan sentitzen zuen eta besteengatik pentsatzen zuena. Egia esan bere egunerokoa arazoz eta pentsamendu tristez beterik zegoen. Baina hainbeste gauza ilunen artean distira zuen zerbait agertu zen. Markos izeneko mutil gazte dotorea.

Negu gorrian zeuden eta egun euritsu batean, Mariaren amak bere egunerokoa irakurri zuen. Orduan konturatu zen Markos izeneko mutil laguna zuela eta beraien herriko printzea zela.

Ama izugarri poztu zen zeren eta zorionez Markos aberatsa eta jatorra zen. Maria gizarajoak ez zuenez ezer jakin, gauero gauero idazten zituen sentimendu tristeak egunerokoan.


Mariak ez zuen ezer susmatzen, eta bere amak Mariaren egunerokoa irakurtzen jarraitu zuen. Egun eguzkitsu batean, Mariak bere amari esan zion mutil laguna zuela, Markos izeneko printzea hain zuzen ere, orduan bere amak ez jakinarena egin zuen, harritu aurpegia jarritz, beko suaren inguruan elkarri galderak egiten. Nongoa da? Nola deitzen da? Printzea Markos deitzen zela eta hemeretzi urte zituela kontatu zizkion alabak, hau da Maria baino lau gehiago.

Egunak joan egunak etorri, bi urte igaro ziren eta Maria eta Markos ezkondu egin ziren. Markosek asko lagundu zion Mariari etorkizun zirrargarria eduki zezaten. Mariak amaieraraino indarrarekin jarraitu zuen, eta gauza txar guztiei aurre egin eta dena gainditu zuen. Bikote alaiak negozio bat jartzea pentsatu zuten, fabrika bat hain zuzen ere. Honen oinarria Mariaren haurtzaroa zen.

Penintsulako gaileten fabrikarik handiena zen Maria Fontaneda deiturikoa. Izugarrizko enpresa eraiki zuten eta hainbat langile kontratatu zituzten.

Fabrika honetan batez ere bi gaileta mota sortzen zituzten, beraien sortzaileak errepresentatzen zituena “Maria Dorada” eta “Printzipe” gailetak, handik denbora gutxira ezagunak egin ziren eta geure kontinente eder honetan zabaldu ziren, Europan izan ere.

Gaur egun gaileta hauek mundu osoan zabaldu dira, familia bakoitzeko kideei egunero egunero goizak gozatuz!





**Maria Basterretxea Aldana**  
**DBH 3. maila**  
*“Zarena zarelako eta izango zarelako”*

## **FUTBOLARI OIHUKATUTAKO ISTORIOAK**

Kattalin eskolarantz zihoan, triste, beti bezala. Ez astelehena zelako, ezta lehenengo orduan matematikako klase aspergarria zuelako. Ez,ez zen hori.

Kattalin ederra zen, oso ederra, azkarra eta pertsona oso ona, baina duela urte batzuk, Kattalin, bulling-aren biktima bihurtu zen, bere gelakideek ez zuten gogoko eta berak ez zuen ulertzen zergatia, agian zergatirik ez zegoelako. Kattalinen lagun bakararra futbola zen. Kattalinek asko baloratzen zituen gauzak, orain dela bost urte inguru bere aita hil egin zen bihotzeko batengatik, horrek izugarritzko tristeziaz gain, arazo ekonomiko asko ekarri zituen. Orduan Kattalinen amak oraindik lan gehiago egin behar zuen Kattalinen futbola ordaintzeko, eta Kattalinek beti eskertuko zion.

Bere bizitzaz pentsatzen zegoela, ez zen konturatu institutura heldu zenik. Orduan, sarrerako atea zabaldu eta lehenengo gelakidea ikusi zuen, Beñat, gelakide, bai gelakide hitza zen Kattalinek Beñati deskribatzeko erabili ahal zuen hitz goxoena. Kattalin hainbat eta hainbat aldiz joan zen negarrez etxera Beñaten erruz eta berak ez zuen ezer egin hori galarazteko; eta bere amari ezer esan barik. Noski, Kattalin ez zen inongo ahozabala, baina Kattalinek ez zion inongo amorrurik gordetzen. Egia esan izugarritzko tristura ematen zion munduan zehar horrelako pertsonak egotea, orduan elkar begiratu eta ez ziren agurtu. Atea zeharkatu bezain laster, Hadei eta bere lagun taldea ikusi zuen, Hadei inozente aurpegiarekin geratu zen Kattalin ikusterakoan, <<Zein ederra den... baina zergatik nago hau pentsatzen? Ez, ez zait gustatzen. Ezinezkoa da. Oso desberdinak gara. Nik nahiko nukeena baino gehiago...>> Pentsatu zuen Hadeik. Kattalinek aurpegi arraroarekin begiratu zion <<Gero entrenamenduan ikusi behar izango dut eta ez dugu elkar hitz egingo. Noski, bere institutuko pertsonarik famatuena denez, ezin dio nire moduko neska arraro bati hitz egin...>> Pentsatu zuen Kattalinek bere kolporako. Hadei oso oso ederra zen eta neska askok zuten gogoko. Baina Kattalinek ez zekien Hadei berarekin maiteminduta zegoela eta ez zitzaiola hurbiltzen lotsa ematen ziolako. Horrez gain, zer pentsatuko luke jendeak? Nola egongo zen Hadei Kattalin moduko neska batekin, izugarria izan arren? Hadeik ez zuen gehiago pentsatu eta gelara joan zen Matematikako klasea hasteko prest.

Klaseak bukatu ondoren, Kattalin tximista baten moduan irten zen eskolatik etxera; ahalik eta azkarren iristeko. Heltzean, bere eskolako motxila utzi, entrenamendukoa hartu eta korrika joan zen futbol zelairantz, irribarre batekin. Eguneko irribarre bakarra ordea.

Futbol zelaira iritsi, aldagelarantz abiatu, bertan arropak aldatu eta bere entrenamendua hasi zen. Bat-batean entrenatzaileak denak batu zituen:

- *Asteburuko partidura denok joango zarete, ezta?*
- *Bai! -Erantzun zuten denek Hadeik izan ezik.*
- *Bada... Nik ezin dut joan, aitona gaixorik dago eta bisitatu egin behar dut, egia esan hemendik oso urruti bizi da.*
- *Ongi da Hadei, ez larritu. -Erantzun zion entrenatzaileak.*

Denak entrenatzen jarraitu zuten, Kattalin pixka bat larritu zen Hadeiren hitzak entzuterakoan, baina ez zion garrantzi askorik eman. Azkenean, Hadeik ez zuen ezer egin beragatik, ez zuen defendatzen bere lagunak barre egiten ziotenean eta tratu txarra ematen ziotenean. Astea aurrerantz joan eta azkenean asteburua iritsi zen. Kattalinekin gogo asko zituen partidua jokatzeko eta are gehiago poztu zen bi golak berak sartzerakoan. Bai, bere taldeak irabazi zuen.

Astelehena, abenduaren 5a, goizeko 8:30ak, oraindik ez zen irakaslerik etorri. Arraroa. Oso arraroa. Bat-batean, gelako atea ireki zen, Ainhoa, Historiako andereñoa, azkenean gelara sartu zen. Isilik, oso isilik eta oso aurpegi txarrarekin. Bost minutu igaro ziren eta azkenean hitz egiteko erabakia hartu zuen...

- *E... Beno, ikusten duzue, e... Gelakide bat falta da... - Orduan Kattalin konturatu zen Hadei falta zela... - Nola?!*
- *E... -Jarraitu zuen Ainhoak -*

Beno.. .Larunbat honetan, Hadei bere aitona-amonak bisitatzera joan zen eta bidean auto istripua izan zuen. Orain, gorpil aulki batean dago.

Kattalini bihotza apurtu zitzaion, nola zen posible? Kattalinen begietan malko batzuk agertu ziren. Andereñoak ere esan zuen Hadei aste bat barru bueltatuko zela eta beti bezalako tratua emateko. Egun guztian ez zuten klaserik eman, inork ez baitzuen indarririk.

Kattalin etxera heltzean pentsakor geratu zen: Zergatik geratu zen horrela berri hori entzundakoan? Agian, Hadei gustuko zuen? Ez, hori ezinezkoa da, oso desberdinak dira.

Aste bat igaro, eta Hadei lehenengo aldiz ikusterakoan istripua izan ondoren, Hadei liluratuta geratu zen Kattalin ikustean. Hadei bakarrik zegoen, bere "lagunek" bizkarra eman zioten ibiltzen ez zekiela eta gorpil-aulki batean zegoelako. Akaso berak aukeratu zuen hori? Ez, noski ezetz. Nahiko erotuta egon behar da hori nahi izateko. Kattalinekin egoera hura ikustean berarengana joan zen:

- Kaixo - Esan zion.*
- Kaixo - erantzun zion lotsatuta.*
- Sentitzen dut gertatutakoa...*
- Bai, lasai, hau ez da txarrena. Txarrena da lagun barik geratu naizela...*
- *Aizu erotuta zaude ala zer? Nola geratuko da eskolako pertsonarik ospetsuena lagun barik!*
- *Jajajaja, ez horrelakorik esan, mesedez!*
- Biak barrez lehertu ziren eta momentu batean elkarri begira geratu ziren.*
- *Nirekin bazkaldu nahi? -Esan zuen Hadeik azkenean.*



- *Noski!* -Erantzun zuen pixka bat lotsatuta.

Egun guztia egon ziren bazkalordua itxaroten eta azkenean heldu zen momentua, bertan zeuden biak bata besteari begira, mundutik aldenduta, azkenean Kattalinek galdetu zion:

- *Beno zeintzuk dira zure ametsak?*

- *Lehen nire ametsa futbol jokalaria bikainena bihurtzea zen, orain, aldiz, ibiltzea eta lagunak berreskuratzea... Eta zureak?*

- *Bada neure ametsa da zure lagunak bakean uztea.*

Hadei lotsatu egin zen ez zuelako ezer egin hori galarazteko eta bat-batean izugarrizko amorrua sentitu zuen gorputzean.

- *Nik lagunduko dizut!* -Esan zuen Kattalinek

- *Lagundu zertan?*

- *Ibiltzen, noski!*

- *Nola?*

- *Larunbatean 10:30etan igerilekuan, ados?*

- *Noski! Baina zeren truke?*

- *Ez dut ezer behar gizon!*

Baina momentu hartan kanpaiak jo zuen eta bere solasaldia bertan bera geratu zen. Larunbatean, igerilekura joan ziren, baina Hadeik ez zuen ezer lortu, baina horrela jarraitu zuten hurrengo hilabeteetan zehar, Hadeik mugikortasuna lortu zuen arte. Bi hilabeteren ondoren, Kattalinek hondartzara eraman zuen eta bertan ibiltzen hasi zen. Lortu zuen bai! Eta beste hilabete batean Kattalinek berriz irakatsi zion futbolera jokatzeko. Denbora guzti horretan elkarrekin maitemindu ziren baina ez zioten elkarri ezer esan lotsagatik.

Egun batean, Haizea hurbildu zitzaion Hadeiri esanez:

- *Aizu badakizu Kattalinek erabili egin zaituela zure babesa izateko?*

- *Begira, utz nazazu bakean.*

Eta urrundu egin zen, baina egia esan arrazoia zuen, edo hori pentsatzen zuen behintzat. Orduan egun guztia egon zen Kattalini hutsa egiten, baina Kattalin nekatu egin zen eta beregana joan zen hau esanez:

- *Aizu arazorik ahal duzu nirekin?*

- *Bai erabili egin nauzula neure babesa lortzeko.*

- *Baina zer diozu? Begira, pentsatu nahi duzuna. Agur.*

Eta Kattalin haserretu egin zen.

Domeka batean, martxoak 20, torneoko finalean, Kattalinen taldeak irabazi zuen eta ondoren taldeko bazkaria egon zen. Hadeirekin hitz egin beharko zuen. Bazkaltzeko ordua heldu zen, Hadei eta Kattalin jatetxe kanpoan zeuden, bakarrik, eta Hadei hasi zen hizketan:

- *Aizu Kattalin sentitzen dut*

- *Ez Hadei ez, zukanako sentimenduak ditut eta ez dakizu zelako gogorra izan den...*

Baina esaldia bukatu aurretik Hadeik Kattalin musukatu zuen eta maite zaitut xuxurlatu zion. Ordutik aurrera ez ziren gehiago banatu, Kattalin bakean utzi zuten eta Hadeik bere lagunak berreskuratu zituen, baina ez zituen nahi, ez ziotelako tratu ona eman gurpila-aulkian egon zenean.

Istoria hau orain dela hamar urte gertatu zen, gaur egun Kattalin eta Hadei ezkontuta daude eta seme bat itxaroten daude, futbolaria noski.





**Ane Sarduy Kanalaetxebarria**  
**DBH 3. maila**

*“Garena pentsatzen dugunaren emaitza da”*

## **IRAILAREN 19a**

Ni Javier Cortes naiz, baina Javi dei diezadakezu. 1979an jaiotako gaztea naiz eta nire bizitza ez da oso erraza izan orain arte. Nire ametsa...beraz amets asko ditut etxe handi batean bizitzea, diru pila bat izatea, lan izugarri bat lortzea... baina momentu honetan errealitatea jasan behar dut. Ez dakit idazten ez irakurtzen eta ez daukat familiarik. Nire herrian biolentzia oso komuna da egunero hogeit hamar pertsona inguru hiltzen dira baina gaur gertatutakoak ez du izenik.

Gaur nire biziko esperientzia txarrena izan dut 1985. urtea da hau, nik ez dakit zu zein urtetan zauden orain, seguruenik nik bizia galdua izango dut. Momentu honetan 6 urte ditut eta esan bezala ez dut familiarik. Mexikoko herri batean bizi naiz eta gaur....., gaur dena hondatu da.

Egunero bezala goizeko seietan jagi naiz. Nire etxean ez dago urik beraz errekarra bajatu eta ur apur bat edan ondoren zerbait harrapatzen ahalegindu naiz. Hemengo arrainak oso arinak dira eta ez zait oso erraza egiten familia guztiarentzat janaria aurkitzea. Bost nebarreba ditut eta ni naiz gazteena, nire aita hil egin zuten urte bat nuela eta nire amak denok zaindu behar gaitu baina amonaren laguntzaz egiten du. Bueno hiru arrain harrapatu ditut beraz etxerantz joan naiz nahiko handiak izan dira eta. Etxerantz abiatzean auzokoak arraro sumatu ditut normalean Antonio gure auzokoa ordu horretan kanpoan egoten da bere goizeko purua erretzen baina ez diot garrantzi handirik eman, nik nire bidea jarraitu dut. Etxera heltzean ez dut ezer esan baina giro arraroa igarri dut, hala ere, bada ez bada ez dut ezer galdetu amari ia malkoak erortzen zitzaizkion begietatik.

Orduan kalera irten naiz nire lagunekin futbolera jolastera. Ni auzo txiro batekoa naiz beraz ez dugu ezta baloirik jolasteko, trapu zaharrez egindako pelota batekin aritzen gara. Denok irten gara kalera eta bertan ibili gara futbolera jolasteaz aparte barrabaskeria ugari egiten. Mari Soli eskegita zituen gona guztiak ostu dizkiogu, Pedrori betaurrekoak kendu dizkiogu... baina Luisen ama agertu da eta etxera eraman du arrapaladan. Guk gureak egiten jarraitu dugu baina banan banan gurasoak eta senideak etortzen hasi dira eta une batetik

bestera bakarrik nengoen kalean. Orduan etxera bueltatu naiz, ohikoena hamabietan ama bazkaria prestatzen egotea izaten da baina gaur ez da izan kasua. Mahaiak mugitzen hasi da eta etxeko gune ezberdinak husten. Nire neba arrebak oso urduri egon dira baina ez didate ezertxo esan.

Hasieran pentsatu dudana “banda” tiroteo bat egongo zela izan da, hemen ohikoa da pistolen soinua entzutea baina horren beste neurri hartzea... ez dut ondo ulertzen izan. Bat batean dena ulertu dut lurra dardarka hasi da eta garrasiak entzun ditut. Orduan nire amak besotik heldu nau eta mahai azpian sartu nau. Han geunden denak baina bera ez zen sartzen, orduan Tamara arreba nagusia mahaitik irten da eta amari lekua utzi dio, baina honek ez zuen bere alabak bizia galtzea nahi beraz ez da sartu. Orduen dardara handiagoa hasi da eta denak geldirik geratu gara beldurraren beldurrez. Bai, lurrikara baten erdian aurkitzen ginen.

Sentitu dudana? Beraz ez dut ezer sentitu, mahai baten azpian egon naiz, beste sei pertsonarekin, garrasiak entzuten eta nola inguruko txabolak hondatzen ziren ikusten. Ez dut irtenbiderik izan nire bizia jokoan egon da momentu horretan eta ezin izan dut ezer egin. Esan bezala nire ama ez da gurekin aterpera sartu eta bat batean horman arrakala bat sortzerakoan hautsa jausten ikusi dugu eta erantzun baino lehen ama lurrean egon da harri pisutsuz zapalduta. Orduan izarretatik bajatu naiz eta gertatzen egon den guztia bizi dut. Ama nola hil den ikusi ondoren leku arriskutsu batean aurkitzen garela ulertu dugu eta nire neba arrebak kanpora atera naute, babesleku hobe baten bila.

Etxetik irten garenean eraikinak birrintzen ikusi ditugu eta zaurituak, hildakoak eta hautsa baino ez da ikusi. Lurrak dardarka jarraitu du baina horrek ez gaitu gelditu nire neba nagusiak Pepe buruan ideia argi bat duela ibaira hurbildu gaitu. Bertan ez dago eraikinak eta babesturik egongo ginen. Baina bidean gora behera ugari izan ditugu.

Ibaia etxetik nahiko urrun dago lurrikara erdian joateko kilometro erdira gutxi gora behera baina ez gaitu ezerk atzera bota. Atetik irten eta lehenengo oztopoa, harrapatuta egon gara ezin izan gara errez irten ateko inguru guztia harriz betea egon delako. Baina lortu dugu amonak min pixka bat egin du orkatilan baina jarraitzeko moduan dagoela esan digu. Nik ez dut oso ondo ikusi baina garrantzi handirik ez ematea esan dit. Ez dakit nola jarraitu dugun gure bidea dardara izugarria izan da eta.

Esan bezala amama ez da ondo egon baina ez digu ezer esan, errautsetatik ibiltzen egon gara eta salto ugari eman behar izan ditugu, orduan hanka txarrerantz joan zaio. Lehenengo joan direnak arrapaladan ibili dira, bitartean ni amonarekin joan naiz atzetik baina apur bat aurreratu dudanean eraikin bat erori egin da bere ondoan eta lurrean geratu da. Nire neba-arrebek aurrera jarraitzea erabaki dute, momentua gogorra izan da baina salbatzeko aukera izanik ahalegindu egin gara.

Baina bidea gero eta txarrago joan da, gero eta zailagoa zen bertatik ibiltzea eta aterpean egon behar izan gara baten baino gehiagotan. Gure herria nola suntsitu den ikusi dugu, bai, pena handia sentitu dugu denok baina aurrera jarraitu behar izan dugu. Bizia galdu duen hurrengo Pepe izan da, nire anai nagusia guri bidea zabaltzen ari dela zuhaitz bat erori zaio gainera, hasieran konortea baino ez du galdu, ateratzen ahalegindu gara baina ezin izan dugu. Konortea izatea lortu duenean ia ia ezin izan du arnastu, beraz aurrera jarraitzea esan digu. Penaz utzi dugu hor baina ezin izan dugu beste ezer egin, zuhaitz handi eta pisutsua izan da gainean izan duena.

Ibaira hurbiltzen joan gara baina gero eta arazo gehiago batu dira. Momentu batzuetan ezin izan gara pasatu bide asko guztiz zarratuta egon direlako, beste batzuetan atzera egin behar izan dugu...

Lau neba-arreba geratu gara, baina banan bana joan egin dira denak. Lehenik, Pedrok, nire beste anaiak oihuak entzun ditu eta norbait laguntza eske egon denez bera salbatzera joan da. Harriak mugitzen hasi da, baina ez da konturatu azken harria alde batera uztean, goikoak mugitu dituela, orduan harri landu pilo bat erori dira eta ez dugu gehiago jakin hari buruz.

Hiru geratu gara, ni eta nire arreba biak eta ez dugu jakin zer egin. Geldirik geratu gara blokeatuko bagina bezala. Orain zer, zer egin, azkenean Tamarak hirurotatik nagusienak, ekimena hartu du eta aurrera jarraitze buruan sartu digu. Hau ezta behar bezala irten, arreba gazteena, Maria besoa harrapatuta geratu delako eta bidean utzi behar izan dugulako. Negar artean Tamarak besoetan hartu nau eta gelditzen ez ustea esan dit. Orduan nire azkeneko familia kidea galdu dut, mendi baten alboan egon gara eta mendiko harri pila erori da.

Ni bizirik nago, nire arreba alboan daukat baina ez dut ezer ikusten, berak ez dit erantzuten. Ez dut ezer ikusten harri artean bainago, eta nire hankak, ez ditut ezta sentitzen. Arazo bat daukat, bai, eta ez dakit zer egin, ia ezin dut ezta arnastu. Beraz ez pentsatu munduko zori txarrena duzula erosketak egin behar dituzulako, zaborra atera behar duzulako, lagunekin irten ezin zarelako... zoritxarra nik izan dut gaurko egun honetan irailak hogeita bederatzia, beti egongo da nire buruan. Egia esan momentu honetan ez dakit zer egin, familiarik gabe, etxerik gabe... Zer egingo zenuke zuk?





**Olatz Barayazarra Garay**  
**DBH 3. maila**

*“Ez gara lortzen duguna gainditzen duguna baizik”*

## **AMESLARI HUTSA ETA ZER?**

Ametsetan ezkututzen naiz, errealitatea existituko ez balitz bezala. Liburuak eta liburuak irakurtzen ditut ni pertsonaia nagusia izango banintz bezala. Abestiak entzuten ditut niretzat konposatuak izango balira moduan. Gezur hutsean bizi naiz, imajinazioan. Mozorro baten azpian ostentzen naiz. Eta zer axola zaio jendeari? Ez al da NEURE BIZITZA?

Milaka aldiz galdetzen diot neure buruari eta zer gertatu izan zitekeen ezberdin jokatuko banu? Eta egunen batean elkarrekin topo egingo bagenu? Ezin dut hura burutik kendu. Gau eta egun eramaten dut nirekin neure itzala izango bazen bezala.

Duela 10 ume arrunt bat nintzen. Eskolara zihoan edozein neska arrunt. Maite ninduen familia bat neukan beti nire ondoan zegoena. Babesten ninduten lagunak nituen beti laguntzen. Denbora haietan pertsona alaia eta zoriontsua nintzela esatera ausartuko nintzateke. Edonork amesten zuen guztia neukan.

Baina hau ez da amaiera zoriontsua duten printzesa istorio horietako bat. Hau nire bizitza da, NEUREA. Eta uste baino ilunagoa da

*1999ko abenduaren 15ean.*

Egun eguzkitsua zen, urteko martitzen arrunt bat. Eskolatik bueltan nindoan nire mugikorrarekin jolasten nindoala. Bat-batean itzal bat hurbiltzen zitzaidala ikusi eta beso sendo batzuek oratu ninduten. Bertan geratu nintzen, geldi. Nik mugitu nahi nuen baina nire hankek ez zuten erantzuten. Bertatik ihes egin nahi nuen, urrutira baina nire hankek ez zuten erantzuten. Hortik aurrera buruan poltsa bat jarri eta kontzientzia galdu nuela soilik gogoratzen dut. Kontzientzia berreskuratu nuenerako mugitzen zen gela batean nengoan, kamioi batean. Ez nuen ezer ulertzen. Zalantzez josia nengoan, beldurrez hilda. Izerdi patsetan nengoela gogoratzen dut eta begiak negar tantaz beteta. Barruan neukan ezinegonak neure burua menperatzen zuen eta ezin nuen argi pentsatu. Non nengoan? Nora nindoan? !5 urte besterik ez nituen eta nire bizitzaren amaiera hurbil zegoelakoan nengoan.

Egun horretatik aurrera dena aldatu zen. Leiho gabeko gela ilun eta txiki-txiki batean giltzapetu zidaten azalpenik eman gabe. Gelan mahai bat, ohe bat eta komun bat besterik ez zeuden. Mahaiaren gainean papera eta arkatza nituen musika aparatu baten ondoan. Egunean birritan janaria ematen zidaten. Bueno janaria edo okel zati siku bat. Egunak luzeak eta tristeak ziren.. Nire familia, nire herria, lagunak bizimodua, dena botatzen nuen faltan. Denbora negarrez igarotzen nuen norbaitek entzun eta bertatik atera nezakeela pentsaturik, baina alferrik zen. Ez zen inor entzuten, dena isilpean zegoen.

Aste bat igaro nuen horrela, nire negarretan itotzen, baina ez zuenez ezer konpontzen erabaki bar hartu nuen. Ez nuen berriro negar tanta soil bat gehiago isuriko. Hortik aurrera iragana atzean utzi eta aurrera begiratuko nuela zin egin nion nire buruari. Gogorra izan beharko nintzen zulo nazkagarri horretatik ateratzeko eta horixe bera egingo nuen.

Egun batean paperean zerbait margotzen nenbilela zerbait entzun nuen. Nire ondoko hormatik zetorrela zirudien. Nor ote zebilen bertan?

Nire bizitzarekin aurrera jarraitu nuen ipuinak idazten, abestien letrak konposatzen, irudikatzen...

Oharkabean hormak adreilu artean zeukan zulotxo batetik zerbait ateratzen zen. Paper zati bat zen zimur-zimur eginda eta honela zioen:

*Kaixo :)*

*Aspaldi da egunero goiz zein gau negarrez entzuten zaitudala. Mesedez ez ezazu negarrik egin penaz betetzen bai nauzu. Badakit oso gogorra dela egun osoa kartzela moduko gela ziztrin honetan egotea familiarengandik eta lagunengandik urrun. Zinez nazazu ulertzen zaituen norbait badagoen hori neu naiz. Hiru hilabete daramatzat zulo honetan eta hasieran zu zaudenez nengoen ni ere baina apurka-apurka eguneroko bizitzara ohitzen joan naiz. Denbora pasatzeko musika entzuten dut edo zerbait marrazten dut baina batez ere asko idazten dut. Edozeri buruz idazten dut; ditudan ametsei buruz, egin nahi dudanari buruz, hemendik ateratzean (inoiz ateratzen banaiz) egingo nukeenaz, gustatzen zaidanez... Idazteak bakarrik ez sentitzen, barruan daukadan guztia kanporatzen eta libre sentitzen laguntzen dit. Proba ezazu ikusiko duzu ezberdintasuna.*

*Tira oraindik ez naiz aurkeztu ere egin. Ni Ander naiz eta 17 urte ditut. Kontaidazu zerbait zuri buruz lasaiago sentituko zara. Egidazu kasu eta har ezazu nire aholkua.*

*Zure erantzunaren zain egongo naiz,  
Ander*

Ezin nuen sinetsi. Beraz, ez nengoen bakarrik. Nolatan izan zitekeen mutil hau hain baikorra putzu horretan hiru hilabete eramanda? Ez dakit zer egingo nukeen nik hiru hilabete hemen sartuta 10 egun soilik eta asper-asper eginda bainengoen. Mutilari honela erantzun nion:

*Kaixo Ander:*

*Zer moduz zaude? Ez dakizu nola poztu nauen zure gutuna aurkitzeak. Bestaldean norbait zure egoera berdinean dagoela jakiteak segurtasun ikaragarria eman dit eta hemendik ateratzeko itzaropena apur bat ere.*



*10 egun daramatzat hemen giltzapetuta eta ezin dut gehiago. Neure buruari ez nuela negar gehiago egingo zin egin badiot ere ez dakit askoz gehiago jasango dudan honela bizitzen. Ezin naiz ezjakintasunean bizi; erantzunak behar ditut. Non gaude? Zergatik gu?*

*Barkatu aspertzen ari banatzaizu baina nire barnetik ateratzen ez banuen azkenean eztanda egingo nuen. Beno, ni Miren naiz eta 15 urte ditut. Irakurtzea gustatzen zait eta abesteak zoritzen nau. Dantzatzea ere gustuko dut. Nire denbora librean lagunekin ateratzea gustatzen zait. Gezurrak gorroto bai eta hizketan ari naizenean moztea. Ez zaizkit pertsona bat ezagutu gabe epaitzen dituztenak gustatzen. Nire familia eta lagunak ikaragarri maite ditut askotan esaten ez badiet ere. Eta zu?*

*Zure zain,  
Miren*

Horrela jarraitu genuen. Egunero zenbait aldiz elkar idazten genuen gure bizitzaz zerbait kontatzeko edota saman genuen korapiloa askatzeko. Astiro. astiro konfiantza hartzen joan ginen eta txikitatik ezagutuko bagina bezala tratatzen ginen. Ander irakasle familia batetik zetorren mutiko argal eta beltzarana zela ikasi nuen. Futbolak zoritzen zuen eta bere gitarraz maiteminduta zegoen. Bere txakurra piloa maite zuen eta bere amama eredutzat hartzen zuen. Ikastolan nota onak ateratzen zituen ingelesean izan ezik. Kirolari aparta eta musikari bikaina izateaz gain idaztea asko gustatzen zitzaion. Ameslari hutsa zen eta bere desira nagusia bere amama berriro ikustea eta besarkatzea zen.

Gure beldurrak, zalantzak, arazoak dena kontatzen ginen. Egunez gauera ezinbesteko ohitura batean bihurtu zen. Berehala maitemindu ginen bata besteaz eta hasierako gutun laburrak maitasun olerki luzeak bihurtu ziren. Bertan, leku horretatik irtetea nolakoa izan zitekeen idazten genuen, elkar ezagutzea nolakoa izango zen, gure lehen musua, gau luzeak elkarren ondoan egunsentia begiratzen, ... Irudiak bidaltzen hasi ginen bata bestea nola imajinatzen genuen adierazteko edota abestiak idazten sentitzen genuena adierazteko. Mutiko berezi hark bihotza lapurtu zidan.

Hiru hilabete iraun genituen horrela. Bakardadeak aspaldi egin zuen ihes nire bizitzatik eta eguneko 24 orduak gela horretan pasa arren ni nire mundu zoriontsuan bizi nintzen. Nire mundua arrosa kolorekoa zen, txoriak kanta-kantari zebiltzan eta beti eguzkia egiten zuen.

Baina bat-batean bizi nintzen amets horretatik esnatu nintzen. Anderri bidali nion azken mezu horrek ez zuen erantzunik jaso. Orduak joan eta orduak etorri eta ez zegoen Anderren arrastorik ere ez. Nik mezuak eta mezuak idazten jarraitu nuen baina arrakastarik gabe. Horrela jarraitu nituen hurrengo egunak ez zegoen bere berririk.

Hutsik sentitzen nintzen; nire bihotz zati bat kendu bazidaten moduan. Minduta nengoen eta ez nekien nola lasaitu mina. Egunak negarrez betetzera bueltatu ziren. Eta nitaz aspertu bazen? Eta ihes egitea lortu bazuen? Ezin nuen bat ere sinetsi; ez nuen bat ere sinetsi nahi. Min gutxiago ematen zidan oraindik hor zegoela pentsatzeak eta errealitatetik ihes egiteak.

Gero eta gogorragoa zen lau horma horien artean irautea. Bakardadea itzuli zen nire bizitzara. Beldurrak nire gorputza menperatzen zuen. Nire familia faltan botatzen nuen, nire lagunak falta igartzen nuen baina batez ere Ander falta nuen.

Haren oroimenean ipuinak eta abestiak idazten nituen. Barnean neukan minari letra jartzen hasi nintzaion eta musika entzuten hasi nintzen. Ezin nuen mutil hori burutik kendu.

Hilabete bat beranduago hona sartu zidan gizon bera atean agertu zitzaidan eta buruan poltsa bat jarri ondoren kontzientzia galdu eta berriz izartu nintzen hain ezaguna zitzaidan kamioi hartan. Ezberdintasun bakarra lehenengoz joan nintzenean beldurrez hilda nengoela da eta bigarrenez berriz pozarren nengoen. Etxera bueltatzeko garaia iritsi zitzaidan. Bazirudien urteak eman nituela toki nazkagarri horretan. Esku sendo batzuek atera zidaten kamioitik eta errepidearen izkina batean utzi zidaten. Handik 10 minutura nire gurasoen autoa bereizi nuen. Korrika etorri eta besarkada amaiezin batean aurkitu ginen. Zenbat bota nuen faltan familia-maitasun hau. Negar malkotan geunden hiruak, hainbeste denbora eta gero berriz ere elkaturik geundelako. Nire gurasoek beraien soldata estuarekin nire erreskatea ordaintzea lortu zuten.


Orain 12 urte beranduago abeslari ezaguna naiz mundu osoan zehar bere istorioa kontatzen duena. Anderrekin trukaturako gutun guztiak munduan zehar abesten ditut noizbait berak entzun eta berriz elkartzeko ametsarekin. Berriz ikusi eta egin genituen promes guztiak betetzeko eta esan ez genituen hitzak oihukatzeke .Bai abeslari hutsa naiz eta zer?



**Aielen Iturbe Urzaa**  
**DBH 3**

*“Perfekzioaren bila gabiltza, existitzen ez den zerbaiten bila”*

## ISILEKO SEKRETUAK



Abuztu bero hartan piztu zela aitortu beharko dut itzalita zegoen eta berriro pizteko erremediorik ez zuen argizari hura; bat-batean, ustekabean, baina hala ere, nerabeon amodio guztiak bezala, bat-batean iparra galtzera garamatzan ongizate amaigabea bailitzan begiratu nion lehen aldiz begirada finkoz, etxeko atea jo zuen lehenengo “tok-tok” hartan. Amak ireki zuen atea, baina ni, pasillo osoa zeharkatzen zuen amonak bernizarekin horrenbeste maitasun emandako altzariaren atzean eseri nintzen, eta bertatik

buruaren erdia ateratzen nuela, beraien ahoetatik irteten zen hitz-jarioa ulertu nahian nengibilen, baina ezinezkoa zen. Nire begiak ireki nituen lehenengo unetik, ez dut piperrik entzuten, nire mundua, telebista “mute” jartzea bezalakoa da, zeinuak ulertzen ditut soilik, gor gaudenon eskuen bidez transmititzen den hizkuntza arraro hori. Bere kafe koloreko begi haietatik begiradaren bitartez, bidaltzen ari zitzaizkidan mezu sekretuak, ustekabean bere irria begiratzen ari nintzen segundo bakoitzeko. Lurretik jaiki eta laster batean joan nintzen pasilloaren sakonean dagoen bakardadez beteriko mundu polit txiki hartara, bakardadean eta isilpean senti nintekeen amaigabea zen unibertsoa. Leihora aurreratu nintzen, eta bertan ikusi nuen nire soslaia. Nire irudia aurrean nuela kontuan izanik, begirada, irudiaren begietara josi nuen, horrela nire izaerari, galderak eratzten hasi nintzen, azken finean, isilezko sekretuetan, norbera da bere buruaren sekreturik handiena. Niregan bilatzen hasi nintzen, denboran atzean izan nintzena, baina naizen horretan, mapen bideetan bezala, galdu egiten nintzen. Une hartan leihoa ireki nuen, soinu bortitz bat ateraz, kolore urdinez beteriko mundu hartan murgilduz,

zeruko hodeiek bere aurpegiaren irudia margotzen zutela irudikatu nuen nire barnean, halako batean hamaika bat minutu irudi magikoetara begira egon ondoren, norbait leihora harri koxkorrak jaurtitzen ari zela iruditu zitzaidan. Aurrera begiratu nuen, auzoko bizilagunaren leihora. Bertan zegoen, kolore beltzeko errotulagailua eskuineko eskuarekin heldu, eta leihoaren aldamenean galderak egiten hasi zitzaidan. Halako batean, ametsei buruz galdezka hasi zen, nik, errotulagailu urdina hartu eta nire burmuinean islatuta zegoen irudia azaldu nuen kristal puska gardenean, Hawaiiin aurkitzen diren ia benetakoak antzemateko ezinezkoak diren hondar zuri eta ur garbiko hondartza bat irudikatu nion, horrekin batera aldamenean nuen txikitako Hawaiiiko argazkia erakutsi nion, leihoan itsasten nuen bitartean. Nire ametsetako bat, ordenagailuaren pantailaren atzealdean aurkitzen diren paradisu haietara bidaiatzea zen. Gogoan dut, txikia nintzela, aitak, besoetan hartzen ninduen eta hondartzaren aldamenean zeuden arroka txikietatik ur eremu zabaletara jaurtitzen ninduen. Itsasoaren barrenean urperatzen nintzen, begiak ireki eta infinitua zen mundu zoragarri hartan, espezierik bereziena nintzela sentitzen nuen, ahalik eta denbora gehien eusten nuen bertan, burua uretatik irteteko beldurrez, mundu magiko hartan galdu behar nintzela uste nuen, laranja koloreko itsas izarrekin. Etxe guztia goitik behera zeharkatzen duten eskailerak jaitsi nituen ziztu bizian, jauzi bat ematen nuen momentu berean. Etxeko sarrerara hurbildu eta egongelako leihoa zabalik zegoela nabaritu nuen, hegoaldeko haize zakar eta beroak nire ilea nahastu baitzuen. Bertara hurbildu nintzen jakin min hutsez. Amak Saharatik ekarritako ia usteldu beharrean zegoen kaktus puntazorrotzaren aldamenean aurkitzen ziren, hondar mota desberdinak, begietako betile bat haustea baino errazagoak ziren ontzi garden eta estuak. Bertan zegoen ontzi batek, sekretutxo bat ezkututzen zuen, eskuizkribu bat zuen bertan, letra mehez eta kolore beltzez idatzia; horrek, aldamenean zegoen hondar iluneko ontzia irekitzeko eskatzen zidan. Beste ontzian berriz, tolestuta zegoen eskutitz bat aurkitu nuen eta bere barnean, paradisura eramango ninduten hegazkineko bi txartel. Ezer entzun ez arren, nire bihotzaren taupadak, kalean norbait ni atetik irteteko zain zegoela antzeman nuen. Eskua luzatu eta kotxera sartu ginen biok, bertan begiak itxi nituen. Irekitzean, hegaz nindoan jada, munduaren nukleotik 1000 km-tara, hodeiak ukitzen, ia-ia atmosferako ozono geruzaren menpe. Hegazkineko ezker aldean nuen leihotik, burua azaldu eta Ozeano Atlantikoa ikusten nuen nire begien parean. Heldu eta jarraian, hondartza magikoaren hondar zurixka ukitu nuen, oinetako behatzekin, poliki-poliki txikitako oroitzapenak nire burmuinera itzuli ziren, momentu haietan aurpegian nuen irria nire aurpegian berriro ere itsatsiz. Gogoan dut, arratsalde hura, eguzkiak eta itsasoak topo egiten zuten, marra zuzen bakar bat osatuz, itsasora begiratu eta eguzkiaren soslaia ikusten genuen bitartean eskuetatik heldu eta uretara erori ginen biok. Begirada uretatik aldendu genuen, elkarren artean sortzen ziren txinpartak elkarri adieraziz; gaua luzea bezain iluna iruditu zitzaidan egun hartakoa. Hondarraren gainean etzan ginen biok, bat-batean eskua eman genion elkarri, begirada gainean genuen izarren munduari elkarrekin begiratu. Begiak ireki eta ezkutaketan jolasean zebilen eguzkia bere gordeleketatik irten zen, goizeko bederatziak puntu-puntuan ziren, ohetik eguzkiaren izpiekin jaiki eta zuzen abiatu nintzen balkoira. Azkenik gogoratzen dudana momentua da, eguzki izpiek begi-ninian jo zidatenean, nire bizitza segundo txiki baten gelditu zen, belarrian nuen arazoak bere erantzunak izan zituen jada, “pi” soinua errepikatzen zen nire barnean behin eta berriz. Momentu hartan, lurretik ez nintzela inoiz ere jaikiko uste nuen. Denboraren orratzak jada geldirik zeuden, ametsa egia bihurtu zidan mutikoaren erreflexua ikusi nuen kolore ilunekin, begiak geroz eta gehiago zarratzen ziren bitartean.

Eta orain hemen nago, geroz eta hurbilago, zeruan existitzen den mundu misteriotsu erraldoi horretatik, ospitaleko leihotik begiratu zu zaudela desiratuz, nire ondoan zaudela sentituz. Orain, esnatzean, faltan sumatzen zaitut, nire ondoan ez baitzaude. Zuk oparitutako katea dut samatik zintzilik, esku biak elkarrekin batuta. Guk elkarrekin bizitako une gazi-gozoak ditut gogoan, momentu denak batuz, film bat egin beharko genuen ustetan. Arratsaldeko bostak dira jada, abuztu hartako egoera berbera errepikatuz, atetik sartzen ikusi zaitut, baina oraingoan ni nor naizen gogoan duzula jakinik, eskuan kolore gorriko arrosa sorta erraldoia duzun bitartean, niregana zatoz poliki-poliki, esna ez nagoela pentsatzen duzun bitartean. Zu ezagutu baino lehen, ametsak gure barneko munduan dauden imajinazio ez-errealak zirela uste nuen, baina orain, barnean nuen betetzeko ezinezko ideia bete dela burura eramatean, atzean esandako hitzak bazterrean uzten ditut, nire ahoa kremaileta batez ixten dut.





**Xabier Arteta**  
**DBH 4. maila**

*“Euskaraz eta kitto!!!”*

## **MAITE, MAITE... BAINA EZ SOILIK ZEUEEN BURUA**

Zortzi urte nituen nire gurasoak banandu zirenean. Gaur bertan izango balitz bezala gogoratzen dut!

Ordura arte, aita, ama eta ni, Oizondo herri txikitxoko etxe polit baten bizi ginen. Pozik bizi ginen. Edo, hala pentsatzen nuen nik behintzat! Gure etxearen inguruan beste etxetxo batzuk zeuden eta eurretan bizi ziren nire lagunik onenak. Arratsaldeetan eta asteburuetan, etxeko lanak bukatu ondoren, denok batzen ginen eta geure gustuko ekintzak antolatzen genituen: bizikletak hartu eta auzoko herriak bisitatu, harrapaketatara, pilotaka, futbolera... jolastu; sagarrak, madariak, marrubiak, intxaurrak... batu, karakolak bilatu, landetan lorak batu eta lagun ezkutuari erregalatu, sastarrak batzen lagundu,... Primeran pasatzen genuen!

Handik urrun joatea tokatu zitzaidanean ere, Unai, Ander, Leire, Izaskun eta batez ere Asier, beti eramán izan ditut nire bihotzean.

Asier, berezia zen. Zintzoa, zurrak, fidela, leiala, fina, ikasle bikaina, isila. Oso isila. Hitz gutxi egiten zuen baina nik, askotan, ahotik ateratzen ez zuena, aurpegian irakurtzen nion.

Ni, aldiz, sorgina, berbatia eta ez hain ikasle ona; pixka bat oilaloka nintzen eta Asier ondoan izateak asko lasaitzen ninduen. Gustura sentitzen nintzen.

Bata bestearentzako eginak ematen genuen. Horregatik zen magikoa bion arteko harremana.

Baina egun batetik bestera, kristalezko edalontzia mahai gainetik lurrera jausten denean gertatzen dena gertatu zitzaion nire bizitzari: txiki-txiki eginda gelditu zen. Agur nire familiari! Agur nire etxe kutunari! Agur nire herri maiteari! Agur munduko lagunik onenei!

Negarra, malkoak, mina, atsekabea, haserrea, bakardadea... nire gurasoek horrela eman zioten hasiera nire bizitzako etaparik tristenari.

Larunbata zen. Astero egiten genuen bezala, saski-baloiko partidurako autobusa sasoz hartzeko prestatzen ari ginen. Goizean goiz esnatu, musika jarri, dutxa bat hartu, harro-harro ekipajea jantzi,...

Sukaldeko mahai borobilaren inguruan gosaltzen ari ginen... aita azalpenak ematen hasi zenean:

- *Maite, amak eta biok zerbait esan behar dizugu.*
- *Ah, bai?*
- *Bai. Ez zaizu gehiegi gustatuko, baina ez dago atzera bueltatzerik.*

Susmo txarra hartu nion eta golpera, bihotzak buelta eman eta eztanda egin behar zidala sentitu zuen.

- *Ama eta ni banandu egingo gara. – esan zuen aitak.*

Burua bueltaka, zorabiatuta. Hankak dardarka. Irakitan, sutan nengoen. Negarrari eman nion. Begiak itsutu egin zitzaizkidan. Aurrekorik ere ez nuen ikusten.

- *Lasai egon. – esan zidan amak.*
- *Zu gure alaba kuttuna izango zara beti bezala eta gu beti izango gara zure aita eta ama baina aitak lan hobea aurkitu du eta Gasteizera joango da bizitzera. – jarraitu zuen amak.*
- *Eta, etxe hau biok bakarrik bizitzeko handiegia denez, saldu egingo dugu eta Bilbora joango gara. – izan ziren amaren azken hitzak.*

Bitartean, arrazoi bat ere ez. Aita isil-isilik, burua makurtuta, hozkailuko izotza baino kafesne hotzagoari eskuetan zeukan koilaraz atzera eta aurrera bueltaka.

Handik aurrera gurasoen arteko borrokak eta errietak, elkarren arteko mesprezuak... Maite nirekin, Maite zurekin, Maite maletarekin hara eta hona, Maite gaur Gasteizera eta bihar Bilbora...

Eurek euren bizitza egiteko eskubidea zuten, baina inoiz ez ziren nire lekuan jartzeko gai izan, inoiz ez zitzaien burutik pasatu nik zer nahi nuen, nik



zer sentitzen nuen, nik zelan bizi nahi nuen... Ez nuen antzematen ez, zulo hartatik inoiz aterako nintzenik.

Hamasei urte bete nituenean Ingelesa ikasteko aitzakiarekin, udan, denbora batez Ingalaterrara joatea erabaki nuen. Aldi batez gurasoen bizitzara bakea eramatea zen nire desiorik handiena, euren bizitzara lasaitasuna eramango zuela pentsatzen bainuen.

Londresen, gutxien espero nuena gertatu zen: Asierrek aurkitu ninduen.

Eskolan, arratsalde librea geneukan eguna zen. Oxford Streeten zehar gindoazen eta urrunetik ezaguna egin zitzaidan mutil dotore bat aurrez aurre begietara so gelditu zitzaidan.

Urteak elkar ikusi gabe, baina begi haien sakontasuna, distira, zintzotasuna... Batak bestearengana salto egin eta inoizko besarkadarik luzeena eman genion elkarri. A ze poza sentitu genuena! Zenbat kontu elkarri esateko!

Asier Batxilergoa ikasten ari zen eta egun gutxi barru oportretan Oizondora joatekoa zen. Bitartean turismoa egiten ari zen eta ondorengo egunak elkarrekin pasatzea proposatu zidan. Buckingham jauregia, San Pablo katedrala, London Eye noria, Picadilly Circus eta Trafalgar Square plazak, Chinatown, Shakespeare's Globe Theatre, ea., bisitatu genituen eta Tamesis ibaitik zehar bidaia harrigarri bat ere egin genuen. Biok bakarrik.

Etxera ez bueltatzeko erabakia hartu nuen. Gutun bana bidali nien gurasoei. Nire bizitza, sentimenduak, eurei buruz pentsatzen nuena... nire egia gordina kanporatzeko sasoia zela iruditu zitzaidan. Aita edo ama batek irakurri zezaken gutunik garratzena, mingarriena... idatzi nien eta handik egun gutxitara Londresen bertan izan nuen erantzuna.

Aita eta ama, elkarrekin aurkeztu ziren ingelesa ikasten ari nintzen barnetegian. Barkamena eskatu zidaten!

Negarrez, lotsatuta zeuden. Urte galantak eman zituzten euren arteko arazoetan murgilduta, nahastatuta eta itsututa. Luzaroan, ez ziren gai izan arazoei aurre egin eta, biek gehien maite zutena, Maite alaba, babesteko eta zaintzeko. Ezin nuen sinetsi hainbeste maite nindutenik!

Londreseko egonaldia bertan behera utzi eta Asierrekin Euskal Herrira itzuli ginen. Zenbat txikitako oroitzapen burura!

Oizondon bukatu genituen oporrak eta hurrengo ikasturtean Asierrek eta biok Londresen jarraitu genituen Batxilergoko ikasketak.

Zein zoriontsu nintzen!



**Ane Aldana Gainza**  
**DBH 4. maila**

*“Txorien antzera libre hegan egin nahi dut”*

## **EKAITZAREN OSTEAN DATOR BAREA**

Gaur, egun zoriontsua da niretzat. Denbora luze batean eta nire amets ederrenetan desiratzen nuen eguna heldu da. Gurasoekin medikuarengana joan naiz eta guztiz sendatuta nagoela esan dit. Azkenean! Lau urte borrokan egon eta gero aske nago. Bai, dagoeneko konturatuko zineten minbizi izeneko gaixotasun baten aurka borrokatzen egon naizela. Orain hamalau urte dauzkat eta gaixotasunari buruz gauza asko dakizkit baina hamar urteko neskatila nintzenean gauza berria zen eta ez nintzen zuen larritasunaz

Oraindik gogoan dut dena nola gertatu zen. Apirilaren 12a zen eta Aste Santuko oporretan geunden hain zuzen ere, hondartzan. Izugarritzko beroa zegoen egun horietakoa zen. Ez neukan neba-arrebarik eta amarekin hondartzara joan nintzen eguna aprobetxatzearen. Ama andereñoa zen eta libre zuen baina aita lanean zegoen eta arratsaldera arte ez zen aterako. Goizean joan ginen, hamaikak aldera. Bertan klaseko lagun Libe aurkitu eta berarekin jolasten hasi nintzen. Tortilla ogitartekoa bazkaldu ostean, digestioa egin behar nuen eta Liberekin gazteluak egiten nengoen denbora pasatzeko. Halako batean, izugarritzko olatu bat etorri eta Liberen neba, Markel, korrikan hasi zen olatuarengandik ihesi. Ez zen konturatu eserita nengoenik eta nire gainera erori zen. Une horretan izugarritzko karrakada sentitu nuen besoa eta amarengana joan nintzen. Amak egoera ikusita Gurutzetako ospitalera eramanez ninduen. Bertan hezurra hautsita neukala esan zidaten, beraz, aita etorri bezain laster frogak egin zizkidaten. Zorionez, ez zen larria, eskaiola hamar egunez eduki eta kito! Ni, pentsatuko duzuen bezala, oso zoriontsu nengoen berria entzunda baina orduan medikuari aurpegia guztiz aldatu eta beste berri bat zuela esan zigun. Berehala konturatu nintzen zerbait ez zihoala ondo. Gurasoak kanpora atera zituen eta amaren negarrak baino ezin izan nituen entzun.

Astebete egon nintzen etxean besoa zela eta. Amari momentu oro galdetzen nion ea zer gertatzen zitzaidan eta mesedez gezurrik ez esateko. Azkenean, emakume gizajoak kontatzea baino ez zuen beste aukerarik izan. Gogoratzen dut ohean nengoela eta nire ondoan eseri zela. Honela esan zidan aurpegia laztantzen zidan bitartean: *”begira laztana hemendik aurrera ospitalera maiz etorri behar izango dugu, alde batetik beso hori nola daukazun ikustera eta bestetik, leuzemia izeneko gaixotasuna osatzera. Leuzemiak gorputzean daukazun zelula onak txar bihurtzen ditu eta botika baten bidez osatuko zara. Ez da astebeteko gauza izango baina zu egon lasai dena ondo aterako da eta”*. Hitz horiek esatean

malkoak baino ez zitzaizkion ateratzen baina nik argi nuen berak esan bezala dena ondo aterako zela.

Nire ospitaleko bisitak opor ostean hasi ziren eta lehenbailehen botika hartzen hasi nintzen. Botika horri medikuek kimioterapia esaten zioten. Oso ahul sentiarazten ninduen eta gutxi balitz, ilea erortzen hasi zitzaidan. Hainbeste itxaron behar izan nuen printzesak bezalako ile luzea edukitzeko, zeren oso zaila egin zitzaidan egoera onartzea. Pixkanaka-pixkanaka jaio berriak baino ile gutxiago nuen eta zapi batekin estaltzen nuen burua.

Kimioterapia sesioak oso gogorrak ziren. Hartzen nuen egunean ahul egoten nintzen eta hurrengo hiru egunetan ere bai, beraz, etxean egon beharra neukan eta ezin nintzen eskolara joan. Behin ondo nengoenean, joan nintekeen eta primeran pasatzen nuen. Oso lasaigarria egiten zitzaidan bertan egotea. Izan ere, kideek asko zaintzen eta laguntzen ninduten.

Sei hilabeteko tratamendu ostean, nire egoerak okerrera egin zuen eta ospitalean ingresatuta gelditu behar izan nintzen. Horren ondorioz, ikastola utzi behar izan nuen eta jada ez nituen nire lagunak eta ikaskideak ikusten ezta familiakoak ere. Pentsa, hamar urteko ume bati berak ezagutu duen mundutik eta ingurunetik ateratzeak eta hogeit metro karratuko gela batean isolatzeak nolako kaltea egin diezaiokeen. Horrenbestez, ospitalean lagun asko egin nituen. Amaia eta Eider izeneko erizainak, nitaz etengabe arduratu eta une latzenetan ni animatzen nindutenak. Baita Xabier izeneko hamar urteko mutikoa, nire egoera berberean zegoena. Segituan lagun minak egin eta ospitaleko eskolara batera joaten ginen. Honek bost urteko arreba bikiak zituen, Ainhoa eta Ane. Hauek sarritan etortzen zitzaizkion bisitan eta izugarri maitatzen zuten neba. Begi-bistan zegoen, izan ere, ikusten zuten bakoitzean ez ziren beragandik urruntzen ezta komunera joateko ere. Ni, ordea, nire gurasoekin egoten nintzen eta hauek itzelezko animoak ematen zizkidaten baita ipuinak eta pelikulak ekarri ere. Gogoan dut egun batean Pirritx eta Porrotxen pelikula ekarri zidatela “Eskerrik Ask” izenekoa eta bertan minbizia zuen Mari Motots agertzen zen. Horri esker, nire egoera askoz hobeto ulertzea lortu nuen. Baita pirata bat printzesa bat baino indartsuagoa zela ohartu nintzen eta nire zapi more honek pirata bat egiten ninduela. Bere arazoak konpontzeko gai zen pirata indartsu eta ausarta nintzen. Bai horixe!

Ia urtebete igaro zen gaixoa diagnostikatu zidatenetik baina egoerak berdin jarraitzen zuen. Ez nengoen egoera larrian baina ezta hobeto ere. Botikarekin jarraitzen nuen eta beti bezala, egun onak eta txarrak nituen. Ospitalean ume gehiago zeuden denetariko egoeretan zeudenak. Batzuk izar bilakatzen ziren heinean beste batzuk beren familiekin batera, onkologia gunetik zoriotsu ateratzen ziren, hortaz, esperantzara kondenatuta nengoen. Gurasoak egunero zetozen eta ni Xabierrekin ikastera nindoan. Elkar laguntzen genuen eta ulertzen ez genituen gauzak azaltzen saiatzen ginen. Amaiak eta Eiderrek asko laguntzen ziguten, sarritan antzerkiak egin ere guri irribarre bat ateratzearren. Ospitalean bizitza beste era batekoa zen eta maiz botatzen nituen faltan nire lagunak.

Egun batetik bestera nire egoerak oraindik gehiago egin zuen okerrera eta ohean gelditu nintzen. Ez neukan indarririk ezta jaterakoan ahoa irekitzeko ere. Astronautak Ilargian dabilzanean bezala sentitzen nuen gorputza, pisutsu. Gabonak ziren. Urtebete eta erdi nenbilen borrokan eta minbizia osatzeko lanetan. Familia osoa etorri zitzaidan bisitan baita nire lehengusu txikiak ere. Arratsaldea alaitu zidaten kontatzen zizkidaten istorioekin, behintzat ondo pasatu nuen. Oroimenean daukat Gabonak ospatzeko Olentzero eta Mari Domingi etorri zirela baita Athletic taldeko jokalaria ere. Hauek beraiek sinaturiko kamiseta

oparitu zidaten. Geroxeago, Olentzerok ea zer nahi nuen galdetu zidan eta nik sendatu baino ez nuela nahi esan nion. Berak orduan, magian sinetsi behar nuela esan zidan eta horrela izanez gero, osatuko nintzela. Ni beraz fidatzen nintzen gau osoa lorik egin gabe pasatu nuen nire mirariaren zain.

Hurrengo egunean, gauza sinestezin bat gertatu zen. Medikiak etorri eta gurasoei odol transfusioa behar nuela komentatu zieten baina horretarako odol bateragarri bat aurkitu behar zutela niri kalterik ez egiteko. Ez zen zertan %100 bateragarria izan behar gutxienez %60 funtzionatu ahal izateko. Hau lasai hartu beharreko kontua zen izan ere, transfusioa eta gero hiru hilabete gehiago gelditu beharko nintzen. Jarraipen bat egingo zidaten minbizia nola zihoan ikusteko. Gurasoek birritan pentsatu gabe lehendabizi beraiek egin zuten froga baina ez zen berri onik egon. Nire familiakoak ere saiatu ziren baina alferrik. Orain heriotza gero eta gertuago ikusten nuen baina pirata kementsua izan behar nintzen eta ekaitz honetatik atera. Ez nion ni eramaten utzi behar, aurrera jarraitu eta gelditzen zitzaidan bizitzaz gozatzeko aukera bat behar nuen.

Hortik pare bat egunetara Xabierren familiakoak prestatu ziren eta beraiek ere froga egin zuten. Momentu horretan Xabierren arreba, Ane, nirekin bateragarria zen. Biak O negatibo ginen eta %80ko bateragarritasuna zuen nirekin. Hori bai miraria! Olentzerori eskerrak eman nizkion bihotzez behin ere, nire nahia betetzeagatik.

Martxoaren 22a nire urtebetetze eguna zen eta ni ospitalean nengoen. Hamabi urte egiten nituen, nerabezaroan sartu berri nintzen. Hiru hilabete pasatu ziren transfusio egunetik, abenduaren 29tik, eta dena ondo zegoen. Oso gogorra izan zen momentu hura baina era berean oso pozgarria. Nire urtebetetze egunean Amaiak eta Eiderrek alta eman zidaten. Minbiziaz garbi nengoen arren, oraindik ospitalera hainbat bisita egin beharko nituen kontrolatzeko. Medikiak berriz gertatzeko aukerak txikiak zirela zin egin zidan. Beraz, Xabier, Eider, Amaia eta medikuak agurtu eta etxera abiatu nintzen. Forura heltzean lagunak eta familiakoek izugarritzko harrera egin zidaten eta festa oso dibertigarria antolatu jolas eta puxika piloarekin.

Uda bat batean heldu zen eta bi urte oso txar igaro ondoren nire osasunak hobera egiten zuela ikusten nuen. Negu hotza jasan duen eta loratzen hasi den zuhaitza bezalaxe. Lagunekin harremana segituan berreskuratu nuen. Bi lagun min nituen Ariane eta Maria eta beraiekin igarotzen nuen denbora gehiena. Oso hilabete bereziak izan ziren hondartza zapaltzeko gai izan nintzelako. Bertan hasi baitzen nire azken bi urteotan bizitako guztia. Gainera, irailean institutura hasiko nintzen, nagusien eskolara. Dena Xabierri kontatzeko amorratzen nengoen.

Irailean institutuan hasi nintzen eta, noski, oraindik zapia neraman baina ez more kolorekoa jada, orain gorria zen eta amaren ustez hobeto gelditzen zitzaidan. Oso gogorra egin zitzaidan. Izan ere, ikasleen eta irakasleen begiradak jasotzen nituen. Denetariko begiradak zeuden. Batzuek penaz begiratzen zidaten edo irri batekin agurtzen ninduten baina beste batzuk, ostera, barre egiten zidaten. Begira nolakoa zen bizitza eta adinak duen eragina gure pentsatzeko eta errespetatzeko eran. Lehen laguntzen zidatenek orain iraindu egiten ninduten. Hauek, ordea, ez zidaten minik egiten, alderantziz, indartsuagoa sentiarazten ninduten. Gainera, nik erabaki nuen ez nuela ileorderik nahi nahiz eta gurasoak asko tematu. Munduari ni nolakoa nintzen erakutsi gura nion, naturaltasun osoz. Hilabete horretan, Xabier bisitatzera joan nintzen. Legoak eramanez nizkion opari bezala eta bere ahizpei panpina bana nigatik egin zuten guztia eskertzeko. Zoritzarrez, Xabier oso txarto sumatu nuen eta gurasoak oso triste zeuden. Banekienez zerbait gertatzen zela azalpenak eskatu nizkien. Esan zidaten

Xabier ezin izango zela osatu eta zortzi urtez minbizia pairatzen egon ondoren hil egingo zela. Momentu horretan lur jota gelditu nintzen eta besarkada bat eman nion. Gabonak heldu ziren eta horrekin batera notak. Egia esan oso onak atera nituen. Denak zortzitik gorakoak. Nire lehenengo Gabonak ziren etxean ospitaletik irten eta gero. Familiarekin elkartzeko eta ondo pasatzeko irrikan nengoen. Oraindik medikuak sarritan bisitatu beharko nituen benetako alta hartzeko.

Otsailaren 28ko gau hotz eta euritsu hartan joan zen Xabier zerura ni zainduko ninduen izar bilakatzera. Ospitale osoa hunkiturik zegoen urte askotako pazientea baitzen eta edozein izkinatan zegoen bere oroitzapenen bat. Sekulako omenaldia egin genion bizitzeko gogoak zituen mutil ameslari eta borrokalariari. Nik bihotza hautsita neukan hilabeteak baineramatzan Xabierren ondoan. Klasetik atera orduko etortzen nintzen berarekin egotera. Berriro ere, minbiziak eragiten duen sufrimendua islatzen ari zen egun hura.

Aste Santuko oporrak heldu ziren azkenean. Hiru urte eta gero berriz ere, mendira bueltatu nintzen koadrilakoekin. Izan ere, institutuan hainbat lagun berri egin nituen eta Maria eta Arianerekin batera koadrila bat osatu genuen. Asko gustatzen zitzaidan guztiak oso desberdinak ginelako. Aurreko bi hilabeteetako sufrimenduaz geroztik, lagunekin egoteko beharra neukan eta Katilotxura igo ginen bazkari eta guzti nire hamahirugarren urtebetetzea ospatzeko. Pixka bat kostatu zitzaidan indarrak guztiz berreskuratuta ez nituelako. Hala ere, oso ondo pasatu nuen eta azken hilabeteetako egunik onena izan zen.

Hilabeteak etxean eta lagun artean askoz arinago igarotzen zitzaizkidan eta zer esanik ez klase egunetan. Aitortu beharra daukat udan oso ondo pasatu arren, klasea pixka bat faltan botatzen nuela. Ez galdetu zergatik baina horrela zen. Oporretan ere joan nintzen, Irlandara. Txikitatik amestu izan nuen lekua zen. Bertan hainbat gaztelu eta leku zoragarri bisitatu genituen. Egia esan Euskal Herriaren antz handia zuen, dena paisai berdez inguratuta baitzegoen.

DBH 2 hasi berria nintzen eta irakasle pixka bat xelebreak nituen arren koadrilako lagun askorekin nengoen klasean eta asko dibertitzen nintzen. Nire barnean oso sentsazio ona neukan. Hain zuzen ere, zerbaitek esaten zidan nire gaitza amaitzeaz zegoela. Nik ordea, ikasketekin kontzentratuta jarraitzen nuen eta hilabeteak oso azkar igaro zitzaizkidan, konturatu gabe. Gabonak igaro ziren. Gero, nire hamalaugarren urtebetetzea eta Aste Santuko oporrak. Itzel pasatu nuen eta lagunek opari oso berezia egin zidaten. Argazkien bideo bat musikaz lagunduta. Eta Azkenean, berriro ere, ekaina eta nire azken kontrol sesioa iritsi dira!

Bai, gaur da egun hori eta lehen esan bezala alta eman didate. Orain hiru hilabeterik behin baino ez dut medikua bisitatu beharko. Oso pozik nago eta ez nuke bizi izan dudana ezergatik aldatuko izan ere, ez nukeen Xabier ezagutuko ezta gaur egun dauzkadan lagunak ere. Oso zorionsua naiz naizen bezalakoa izanda. Jada ez dut zapirik erabiltzen ilea baitaukat. Oraindik motza baina haziko da eta konturatzerako ile luzea edukiko dut, seguru! Espero dut uda honetan hamalau urterekin nire lehenengo parranda egitea baina hori bai, edan gabe. Nire helburua inguruko jaietako Vendettaren kontzertu guztietara joatea da. A! Eta ahaztu baino lehen esan behar dut Ariane eta Mariarekin surf ikastaro batean izena eman dudala itzel pasatzeko asmoekin. Ea lagun asko egiten ditudan eta gurasoek ez nauten ohiko bezala hainbeste kontrolatzen. Orduan, nik, Miren Zabalak txorien antzera libre hegan egin nahi dut.



**Beñat Albizbeaskoetxea Sanchez**  
**DBH 4. maila**

*“You don’t have to burn books to destroy culture.  
Just get people to stop reading them”.*  
– Roy Bradbury, *Fahrenheit 453*.

## **ZEIN URRUN DAGOEN EUROPA**

### ***2015eko irailaren 6a; Shamer, Siria***

Zerua argi zegoen, lasai, udako arratsalde bero hartan. Ia lurrean gertatzen zenaren kontrakoa balitz bezala. Khaled Asri lehen leiho bat zegoen tokira hurbildu zen, eta kalera begiratu zuen. Soldaduak ikusi zituen, ilara luzeetan martxan tankeen eta auto blindatuen atzetik. Aleporantz zihoazen, Estatu Islamikoarengandik ihesi. Eia hurbiltzen zegoen, eta Siriar Armadak ezin zuen hainbeste etsairen kontra borrokatu. *“Aste bitan, Alepora helduko dira”*, entzuten zen kale eta etxeetan. Khaledek gauza bera uste zuen. Herrialde hura hondoratzen zegoen, eta alde egin beharko zuten berehala.

Jada lau urte ziren gerraren hasieratik, eta bakearen oroitzapena gero eta urrunagoa zen. Khaleden alabak, Azharrek, ez zuen bakea bizi ere izan, hiru urte besterik ez baitzituen. Bere semeak, Abdulek, eskola utzi behar izan zuen gerra hasi zenean, eta bere lagun gehienak ihes eginda zeuden, beste milioika siriarrekin batera. *“Gerra infernua da”*, pentsatu zuen lazki.

Orduan, Eguzkia desagertzen hasia zela, zarata indartsuak entzun ziren zeruan. Soldaduen kapitaina ematen zuenak zenbait garrasi egin zituen, eta soldaduak gelditu egin ziren. Khaledek bazekien nondik zetozen zaratak, baina ez zuen sinetsi nahi.

Zeruan puntu beltz batzuk ikusteak egiaztatu zituen bere usteak.

*-Drone amerikarrak!* -Garrasi egin zuen leihotik, lehen leherketak urrunean entzutearekin batera. Soldaduek ilarak apurtu eta atarietan sartu ziren, eraso posizioan. Khaled leihotik aldendu eta etxe barruan garrasi egin zuen- *Abdul! Azhar! Kaamla! Goazen sotora! Orain!*

Bi seme-alabak eta emaztea bat-batean esnatu ziren lo-kuluxkatik, eta eskaileretatik jaitsi ziren arin batean. Gelaxka barruan egon ziren, lurrean besarkatuta, ordu bat, bi, hiru, lau...Khaledek ezingo luke erantzun zuzen bat eman.

Azkenean, leherketak amaitu ziren, eta isiltasunak herria mende hartu zuen. Hautsez estalita, laurak ezkutalekutik irten ziren. Zerua ilun zegoen, eta ez zegoen ilargirik. Kaleetan,



soldaduek haien kideen eta zibilen gorpuak ateratzen zituzten hondakinen artetik. Etxe asko guztiz suntsituta zeuden, eta odola zegoen lurrean. Khaledek Azhar eta Abdul begiak estali zizkien, baina jada betirako markatuta zeuden.

Momentu hartan, maila altukoa zirudien soldadu bat hurbildu zitzaien.

*-Bizirik dauden zibilak, eskerrak Jainkoari. Negoziazioek arrakasta izan dute, eta hirurogeita hamabi orduko su-etena onartu da. Autobus bat dago geltokian, Gaziantepgo hirirantz irtengo dena, zibilen ebakuazio gisa. Mugi zaitetzte!*

*-Eskerrik asko, jauna -erantzun zuen Khaledek erdi negarrez-Goazen, maiteak!-*

## ***2015eko irailaren 7a; Kilis, Turkia eta Siria arteko muga***

Hurrengo eguneko iluntzean, Khaledek muga ikusi zuen: errepidea erdibitzen zuen eraikin xume bat. Errepidearen alboetan, lau turkiar soldadu eta kasko urdin bat zeuden, arma automatikoak eskuetan zituztela. Turkiar batek besoa altxatu zuen, lehen autobusari gelditzeko esanez. Gidaria miatu ondoren, bidaiariei autobusetik irteteko esan zieten, eta banaka-banaka arakutzen joan ziren.

Khaled pozik zegoen. Azkenean, bakea metro gutxi batzuetara zegoen. Bere aurrean, langa horien atzean, bizitza berri baten aukera zegoen. Bazekien, noski, ez zela batere erreza izango, eta asko borrokatu beharko lukeela, baina aukera hor zegoen; ia eskuaz uki zezakeen.

Azharek eta Kaamlak miaketa igarotzean, Khaled Abdul haiekin ez zegoela konturatu zen. Autobusean banatuta bidaiatu zuten, ez zuen bidaia osoan ikusi, baina ordura arte amarekin zegoela uste izan zuen. Larritu egin zen, eta ingurura begiratu zuen, lerrotik atera gabe.

Lasaitasun handia izan zen Abdul lerroan ikustea, zenbait metro atzerago. Khaledek eskuaz agurtu zuen, eta Abdulek agurra itzuli zuen.

Azkenean, Khaled ilararen amaierara heldu zen. Miaketaren ondoren, bere emaztea eta alaba besarkatu zituen, eta bidearen albo batean gelditu ziren, Abdulen zain. Gizon bakarra falta zen umearen txanda izateko.

*-Altxa besoak eta banatu hankak -esan zion soldaduak gizonari-*

*-Ez -erantzun zuen gizonak, eta momentu batez, dena gelditu egin zen. Ondoren gertatu zenak argazkien lerro bat zirudien. Terrorista labana ateratzen poltsikotik, laban hura soldaduen bihotzean, turkiarra gar-gar egiten ahotik odola zeriola, eta ondoren lurrera erortzen, hilik.*

*-Ezin duzue Kalifatza Islamiarretik ihes egin! Gora Abu Bakr al-Baghdadi Kalifa! -beste poltsikotik detonagailu bat atera zuen- ALLAHU AKBAR!*

Beste soldaduek erreakzionatu ahal izan baino lehen, detonagailua sakatu zuen. Terroristek eta autobusek zituzten lehergailuek eztanda egin zuten, Khaled, Azhar eta Kaamla atzerantz botaz.

*-EZ! ABDUL! -Khaledek garrasi egin zuen, negar batean.*

Ez zegoen ezer egiterik. Sua, gorpuak eta hondakinak nahastu egin ziren, Infernua bera gaindi zezakeen irudia eratuz. Bizirik geratu zen soldadu bakarrak telefono bat atera zuen, eta histeriko hitz egiten zuen, laguntza eskatuz.

Khaled momentu batzuk atzera bere semea izan zen gorpu errera hurbildu eta bere alboan belaunikatu zen. Abdul besarkatu zuen, garrasika. Berriz lurrean uztean, bere semeak zeraman urrezko lepokoa hartu eta otoi egin zuen. Kaamla ere hurbildu zen otoi egitera, atzean Azhar zuela, ezer ere ez ulertuz.

Gaua heldu zenean hirurak altxatu eta muga gurutzatu zuten. Ez zuten non lo egin, ez zer jan. Haien helmuga zen gauza ziur bakarra: Europa.

### ***2016ko martxoaren 18a; Kara Tepe kanpamendua, Lesbos, Grezia***

Khaled ilara egiten zegoen, eguneko janaria hartzeko. Aurrean eta atzean, dozenaka errefuxiatu gehiago.

Jada bederatzi hilabete ziren Shamerretik ihes egin zutenetik. Denbora horretan, Turkiatik oinez ibili ziren aurrera eta atzera, dirurik gabe, Lesbosko uhartera mafia batek saldutako txalupa batean heldu ziren arte, beste berrogeita hamar errefuxiatuekin batera. Bertan ezagutu zuten benetako miseria. Milaka errefuxiatu, inprobisatutako dendetan lotan. Ia medikurik edo zerbitzurik gabe.

Egun batzuk lehenago arte, etorkizuna ikatza baino ilunago ikusten zuen. Khaledek Grezia gurutzatzeko baimena lortu zuen, baina ez zeukan ferryko tiketik ordaintzeko dirurik. Hori Nazio Batuetako langileek eskaintza berezi bat egin zutenean aldatu zen: Ingeles maila ona zuten errefuxiatuek itzultzaile lana egitearen orde, Atenaserako ferrya ordainduko zieten. Khaledek bitan pentsatu gabe onartu zuen.

Khaled berriz orainaldira itzuli zen, eta eguneko janari bakarra hartu zuen, bera eta bere familiarentzat: Arroz eta barazki errazioa. Kanpamenduko kalezulo zikinak igaro zituen, bere dendara heldu zen arte. Barruan, Kaamla koltxoian zegoen etzanda, eztulka, eta Azhar alboan zuen, belauniko.

*-Maiteak, janaria ekarri dut -esan zuen Khaledek eztiki-.*

Plastikozko sardexka zahar batekin, pasta hartu eta ahora sartu zion emazte gaixoari.

*-Lasai, Kaamla, nire azukre koxkorra. Egun batzuk barru ferrya hartu ahalko dugu, eta ospitale batean osatuko zara. Zin egiten dizut -hura zin bat baino gehiago erruki eskari bat zen, etsipenaren etsipenaz-.*

Orduan, soinu elektronikoko bat entzun zen kanpamendu osoan. Khaled dendatik irten zen, zer gertatzen zegoen galdetuz. Orduan, megafonoak piztu ziren, eta gizon baten ahotsa entzun zen, arabieraz.

*-Europar Kontseiluaren eta Greziar Gobernuaren eskutik, mezu garrantzitsu bat helarazi behar dut. Momentu honetatik aurrera, asiloa eskatzen duten guztiak Turkiara bueltatuak izango dira, bertan berriz asiloa eskatu eta inmigrazio-prozesua berriz hasteko. Eskerrik asko.*

Honela erori zitzaion gainera zerua Khaledi. Momentu batean, bere azken itzaropena desagertu egin zen, kea besterik ez balitz bezala. Haren inguruan, milaka errefuxiatu kexatzen hasi ziren, gero eta bolumen altuagoan. Funtsez, Europako ateak haien muturretan itxi zituzten.

Kaamla bi egun geroago hil zen, gaixotasunak zimelduta. Azhar bakarrik geratzen zitzaion Khaledi. Nola edo hala, Europara iritsi beharra zuen. Nola edo hala.

## ***2016ko Gabon Zahar eguna; Egeo Itsasoa, Grezia***

Gaua belusezko errezel lodi bat gisa erori zen Egeo Itsasoaren gainean. Khaledek alaba besarkatu zuen, eta itsasontziaren ertzaren kontra jarri ziren. Hura zen haien aukera bakarra: gau hartan, Greziara heldu edo saiakeran ito egingo zen.

Lesbosen gertatutakoaren ondorego hilabeteetan, Khaledek lan besterik ez zuen egin, GKE eta Nazio Batuetako langileei laguntzen. Milaka familia ikusi zituen uhartera heltzen, haien aurrean atea itxita aurkitzeko. Itoak ikusi zituen, hondartzetan itsasoaren ertzean etzanda, panpinak gisa. Itsasoak bereak gisa erreklamaturakoen oskolak ziren. Salbatzeko aukerarik gabe hilak, etsipenaren eta gerraren arteko uretan itoak. Asko umeak besterik ez ziren.

Hainbeste hilabetez lan egin ondoren, beste laurogeita hamar errefuxiaturekin batera arrantzaleen itsasontzi batean bidaiatzeko beste diru lortu zuen. Egun hartan bertan, eguerdi inguruan, itsasontzira igo ziren.

Eta hor zeuden, Egeo itsasoan nonbait, abenduaren 31an. Zerua guztiz lainotuta zegoen, ez baitziren ez izarrak ez Ilargia ikusten. Ordu gutxi batzuk barru, Jainkoak hala nahi balu, Grezian lurra ukituko zuten. Azkenean, urtebete baino gehiagoko bidai bere lehen helmugara helduko litzateke.

Baina hori onegia zen egia izateko.

Urrunean, lehen trumoiak heldu ziren, eta euria hasi zen. Hasieran, zirimiri bat besterik ez zen, baina gero eta lodiagoa egin zen, zaparrada bihurtu arte. Inor ez zen tapatu. Aurrean, kilometro batzuetara, itsasargi baten dirdira ikusi zen; ahul-ahula zen, baina hor zegoen, eta horrek poztasun deiadar ugari eragin zituen itsasontzian.

Orduan, trumoiak eta tximistek itsasontzia inguratu zuten. Olatuak gero eta altuagoak ziren, eta ontzia era arriskutsuan kulunkatzen zuten. Khaledek Azhar estu besarkatu zuen, lasai zedin. Azkenean, olatu erraldoi batek itsasontzia alboz jo zuen, eta honek bira egin zuen, bidaiari guztiak Egeoko ur hotzen eskuetan utziz. Zorionez, Khaledek igeri egiten bazekien, baina hotza ezin izango zukeen asko jasan.

Euriaren artean, argi bat agertu zen. Itsasargia... ez, ez zen hori. Itsasontzi handi bat zen. Khaleden itxaropena berriz piztu zen, hainbeste denbora itzalita egon ondoren.

*-Volontaritato Italiano! Siamo qui per aiutare! Stai per caricare tutto! Prendi questi salvavita!* -garrasi egin zuen norbaitek itsasontzitik.

Khaledek ez zuen ulertu, baina ez zen beharrezkoa. Itsasontzi handitik flotagailuak eta salbamendu-ontziak bota zituzten. Errefuxiatu guztiak ontzi handira hurbildu ziren, flotatzen saiatzen, eta hildakoak atzean utziz. Khaled, azken indarrak errez, ontzi batera igo zen, bere alaba eskuetan zuela, eta hor konortea galdu zuen.

Gogoratzen zuen hurrengo hondartza bat zen. Goizaldeko lehen eguzki-izpiak haren islatzen ziren, bere inguruan. Ia ametsa zen. “*Grezia*”, pentsatu zuen. Ohatila batera igo zuten, eta berriz galdu zuen konortea.

## ***2018ko urtarrilaren 12a; Europar Parlamentua, Brusela, Belgika***

Khaledek janzkia leundu eta gorbata ondo jarri zuen, eta hizlariak, Europar Alderdi Berdeko ordezkari batek, gonbidapena eman zion. Khaled txaloen artean altxatu eta tribunara igo zen.

*-Egun on, diputatuak, eta egun on, Europa.*

*«Ziur nago zuetako gehienek irakurrita duzuela Alessandra Rizzoren artikulua; bai, orain urtebete argitaratu zen hori. Bai, nire bidaiari adierazten duen eta hainbeste protesta eragin zituen artikulua. Existitzen ez zela bezala egin zenuten hori.*

*Ba azkenean, “arazoa” zuen etxera heldu da. Eta “arazo” honek etorkizun baten bila Europara jo duten milioika errefuxiatuen ahotsarekin hitz egingo du.*

*Krisi honek Europaren benetako aurpegia argitara ekarri zuen, duela bi urteko paktua sinatu zenean. Europaren, etorkizunaren ateak milaka pertsonen muturretan itxi zenituztenean. Ez al da Europar Batasuna askatasunaren, berdintasunaren eta bakearen defendatzaile sutuena? Ez al da Europar Batasuna “ideal altuenetan” oinarritu zena? Ez, hori jada ez da Europako benetako izaera. Milaka pertsona ateetan hil dira, Infernutik ihesi, beste Infernu bat aurkitzeko. Umeak, emakumeak, gizonak... itsasoak irentsita, mafien aberastasunerako. Orain arte ez ikusiarena egin duzue, baina hori amaitu da.*

*Nire semea, Abdul, hamairu urtekoa, atentatu batean hil zen Siriatik ihesi egitean, beste berrogeita hamasei errefuxiatuekin batera. Nire emaztea, Kaamla, Lesbosen hil zen gaixorik, beharrezko sendagairik gabe, bizitzeko aukera bakarreko ateak bat-batean itxita paktuaren ondorioz. Eta nire alaba, Azhar, orain bost urtekoa, ia nirekin batera ito zen Greziara heltzen saiatzen geundela. Hauek dira beste milaka istorio ezezagunen errealitatea.*

*Eta zein da Europak egiten dituen justifikazioak halako krimenen aurrean? “Terroristak dira”, “Europa islamiar bihurtuko dute”, “lanak kentzen dizkigute”, “gure identitatea apurtuko dute”... Honela, eskuin-muturreko alderdiak berpiztu dira, eta orain dela hirurogeita hamabost urte gertatu zena ahaztu dutela ematen du. Esnatu behingoz! GU gara terrorismoak gehien kaltetuak. GU gara gerretatik ihes egiten daudenak, eta GU gara bizitza hobe baten ateetan hiltzen garenak. GU gara kale gorrian geratutakoak gerraren ondorioz. GU gara muga-guardiak jipoituak eta GU gara gosez hilak.*

*GU ere pertsonak gara, zuek bezala; eta zuek bezalako gauzak nahi ditugu: bakea eta ogia mahian. Hitz egiten nagoela, norbait dago kontinente honetara heltzen saiatzen, eta gaur norbait hilko da saiakeran. Ez du axola ea gizon, emakume edo ume den; zuek bezalako pertsona bat hil egingo da, Europako herriek eta buruzagiek, orokorrean, beste alde batera begiratu duzuelako denbora gehiegiz.*

*Baina hau alda daiteke. Egin dezagun lan batera, ideologia eta pentsamolde guztien gainetik, krisi honi amaiera emateko. Egin dezagun eskolarik gabe geratu diren milioika umeentzat eta gaixo daudenentzat. Egin dezagun Europaren ateetan hiltzen diren guztientzat, eta gorrotoa jasan duten guztientzat. Egin dezagun Europarentzat.»*

Txaloak entzun ziren, eta Khaleden aurpegian irribarre bat agertu zen. Bere bidaiari, azkenean, amaitua zegoen.



**Naroa Artetxe**  
**DBH 4. Maila**

*“Pozik bizi eta irribarretsu beti”*

## **NIRE BIZITZA**

Afganistaneko herri txiki batean bizitako bi anaiaren istorioa gogorra kontatzera nator. Hesei auzo zaharreko txabola deseroso batean hazi ziren. Gurasoak, gerrak eragindako zauri handiak zirela eta, 2005eko otsailaren 3an hil ziren. Egun horretan, anaia txikiak, Alanek, 8 urte zituen eta Tawadek, anaia nagusiak, hamaika urte. Gurasoen heriotzaren ondoren, bi anaiak umezurztegi handi batera bidali zituzten. Bertan hainbat urte gogor igaro zituzten: langileek lan gogorrak egitera behartzen zituzten haurrak eta higine egoera ez zen batere ona. Zoritxarrez ez zen dena bertan bukatu; irten ondoren, beraien egoera txarrerantz joan zen. Ez dakigu asko Tawadi buruz, baina Alanek idatzitako testu bat aurkitu dut:

“Kaixo, Alan naiz. Gaur oso egun berezia eta tristea da niretzat: orain zazpi urte, nire gurasoak hil zirenetik. Gaueko hamabiak pasata dira eta hemen nago, ohe barnean, loak hartzen ez nauelarik, izarei itsatsita, nire lehengo bizitzan pentsatzen. Lau urte nituenean hasi zen dena. Adin horrekin ez nekien zer gertatzen ari zen horren asko maite nuen herri horretan. Soinu desatseginen gogorapenak ditut eta kaletik nindoala ikusten nituen etxe jauziak eta pertsona hilak askotan etortzen zaizkit burura. Gurasoek betidanik erakutsi didate bizipen gogorren alde ona ikusten eta adin horrekin familia elkarrekin geundela baino ez nuen ikusten. Zortzi urte nituenean gertatu zen bizitza aldatu zidan ekintza nagusia: gauetik egunera gurasoak ez zeuden, bakarrik geunden, anaia Tawad eta biok, herri zoramen hartan zer egin ez genekiela. Hiru egun oso gogor pasatu genituen anaiak eta nik. Ez genuen lo egiteko tokirik, ezta jatekorik ere. Azkenean, gizon zahar eta bizardun batek gu biok hartu eta umezurztegi batera eraman gintuen. Gure egoera hobetuko zen esperantzak nituen baina lortutako gauza bakarra lo egiteko toki bat genuela zen. Esklabuak bagina bezala tratatzen ziguten eta ura eta elikagaiak nahi bagenituen, imajinatzen ez dituzuen gauzak egin behar genituen. Hori guztia nahikoa ez balitz, umezurztegian bi urtez egon ondoren familia batek Tawad adoptatu zuen eta nire ondotik kendu zidaten. Momentu horretan nuen lagun bakarra, zutik egoten laguntzen zidan pertsona zein gauza bakarra kendu zidaten. Hamar urterekin bizitzari zentzua aurkitzen ez niola nenbilen. Ez nuen indarririk eta aurrera jarraitu nuen besteen menpe, esaten zidaten dena betetzen gozez ez hiltzeko.

Zorionez, 2008ko abuztuan, hamaika urte nituela, gaur egun horren maite dudan familia etorri zen ni bila. Familia hau lau pertsonaz osatuta zegoen: ama, aita, nire adineko arreba eta hiru urte gazteagoa zen anaia. Hauek Espainian bizi ziren, Euskal Herrian hain

zuzen, Gernika izeneko herri txiki batean. Familiak eroso senti nendin lan handiak egin zituen arren, ez zen uste bezain erraza izan. Eskolan barreak baino ez nituen entzuten, arraroa nintzen, hizkuntza ikasi behar nuen, ez nekien irakurtzen ezta idazten eta, zenbakiak inoiz ikusi gabe nituen. Oso zaila egin zitzaidan bertako kultura eta ohiturak barneratzea. Eskolara joateak beldurra ematen zidan: Patxik joko zidan, ikaskideek barre egingo zidaten edota irakasleek arraroa banintz bezala tratatuko ninduten beldur nintzen. Telebistan eta irrastian ez nuen nire herrian zegoen gerra amaiezinari buruz baino entzuten eta arduratuta nenbilen, Afganistaneko lagunak ondo zeuden beldur eta, batez ere, anaiaren bizitza nolakoa zen jakingai.



Orain hamabost urte ditut. Hausnarketa sakona egin dut gaurkoan. Merezi izan du; batzuetan ona da guretzat honelakoak egitea. Beti konparatu izan dut nire bizitza ferriako atrakzio bat balitz bezala, eta esan beharra dago azken hiru urte hautetan bizitzan izan ditudan aldapa guztiak pixkanaka gorantz egin ditudala. Hizkuntza menperatzen hasi naizenetik ikaskideen errespetua lortu dut eta lagun talde ikaragarri on bat dut orain. Lagunek, nire bizitzaren istorioa maite dute gogorra dela onartzen duten arren, eta laguntza baino ez didate eskaintzen. Gurasoak askotan faltan sumatzen ditut baina ez dago atzera egiterik. Orain bi gauza baino ez ditut buruan: lehena, munduko injustizien aurka egitea, munduko gerra guztiak eta bullinga atzean ustea. Bestea, neba berriz ikustea eta besarkatzea. Ez naiz geldituko ametsak bete arte.”



**Imanol Loza Martinez**  
**DBH4**

*“Bizitza gogorra izan arren,  
gogoak jarrita, dena ahal da; saia zaitetz”*

## 41 METRO

Galdu dut 40 urte hauetan izan dudan borroka, ezinezkoa izan da irabaztea, etsaia gogorra izan baita. Esfortzu guztiak mundu honetan irauteko gutxi izan baitira, ez du ezertarako balio izan ezerk.

Orain, 45 urterekin 10 pisuko etxe baten gainean nago, nire azken sentipenak entzuten eta nire bizipenak gogorarazten. Nire azken aukeraketa pentsatzen, betiko aukeraketa, bai ala ez.



Ni, Pedro Izagirre, 2018ko abenduaren 8an hilko naiz, 10 pisuko Madrilgo Leganitos kaleko etxetik salto eginez. Dena gainezka etorri zait eta. 3, 2, 1...

Goi solairua, sotoa pasatzen ari naizela eskolako momentuak etorri zaizkit burura. Haur hezkuntza ez zen ona izan... Bost urterekin hasi zen dena, orain hainbeste erabiltzen den bullying hitza sufritzen nuen etengabe. Goizetan, sarreran itxaroten zidaten, eta hortik arratsaldeko hirurak arte ez ziren gelditzen. Andereñoek, ez didate inoiz sinistu, eta horregatik beti geratzen ziren libre, haien gurasoak oso enpresa handiko lehendakariak zirelako. Eskola enpresaren baitan zegoen. Gainera, ez nintzen ezer esateko kapaz, egiteko ere ez. Ama izan zen nirekin bat egiten zuen bakarra, aitak, ostera, haiei joteko esaten zidan, baina indarrez askoz ere gogorragoak ziren.

Lehenengo hezkuntzaren bigarren maila errepikatu egin nuen, autoestimu falta izan nuelako. Lagun bakarra nuen, baina nire erruz Javik asko sufritu zuen eta horrek txarrago sentiarazten ninduen. Ni defendatzen saiatzen zen bakoitzean bere esne-haginetako bat galtzen zuen, horrez gain, femurra apurtu zioten euren arteko borroka batean. Javik, hurrengo urtean nirekin egoteko errepikatu egin zuen.

Oso lagun ona izan zen, baina, herriz aldatu zenean dena txarrera joan zen niretzat. Bere aldetik, ez dakit, ez dut berriz ikusi etxez aldatu zenetik. Hainbat gauza esan gabe, berari, izan dudan lagunik hoberenari. Ezer ez esateaz damututa nago. Beti esan izan da, “galdutakoa ezin da berreskuratu”.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza heldu zen, ez nuen andereño bat bera ere ulertzen, denekin aritzen nintzen eztabaidan. Denak nituen kontra. Gelakideek ez zidaten kasurik egiten, ez ginen bateragarriak. Amak ez zidan utzi eskolaz aldatzen, betiko zentroan geratu behar izan nintzen. Diru falta genuelako geratu behar nuen eskola nazkante horretan beste eskolak pribatuak zirelako, itzelezko diru kargarekin, ezinezkoa zelako.

Batxilergoa ez nuen egin, modulu baten sartu nintzen, mekanikan hain zuzen ere, eta ondo egon nintzen bertan. Titulua atera nuen!

Bi metro eta hainbeste bizipen buruan... Egia esan, arinago kendu nahi nuen bizia baina, ez nintzen ausartzen, oso gaztea nintzen.

Hamargarren pisua ikusten nuen, familia bat zegoen, osorik, neba-arrebak, ama, aita, amona biak eta aitona biak. Nire etxea gogorarazi dit, baina ez du zerikusirik. Ama, lanean hastear nengola, istripu batean hil zen. Ezpata bat bihotzean sartzea bezala izan zen, bai niretzat bai aitarentzat.

Aita, zoritxarrez, ez zen inoiz lehenaratu, bere penak alkoholean itotzen saiatzen zen baina ezinezko, txarrera bakarrik eramaten zuen. Hobekuntzarik ez zuelako ikusten kokaina edota pilulak sartzen hasi zen. Nik dena ikusten nuen, amaiera ere.

Urte batzuk pasa ziren amaren heriotzatik, lanetik bueltan nengoen eta etxera sartzean inork ez zidan erantzun. Leku guztietara begira ibili nintzen, eta ezer arrarorik ez.

- *Seme! Laguntza...-indar gabeko ahotsarekin.*

- *Non? Non?!*

Aita zen, baina ez nekien non demontre zegoen. Komunean sartu nintzen eta han zegoen, maionesa koloreko oka egindakoaren zikinkeria ahotik samaraino; begiak deskoordinatuta, bata alde batera eta eskuinekoa bestera; azal zuria, gorputz guztian zainak ikusten zitzaizkion, more kolorekoak.

- *Aita? Erantzun!*

Baina ez zegoen erantzunik. Ospitalera heldu zenerako oso berandu zen. Kokainaren gaindosiaz hil zen.

Ni bakarrik gelditu nintzen geure Izagirre familian, bakarrik nengoen. Aitona-amonak ez ditut ezagutu, izeko-osaba guztiekin harreman txarra izan dute nire gurasoek, ez zeuden prest ni laguntzeko. Egia da, adinez nagusia nintzela, baina nire soldatarekin ez nintzen heltzen hile amaierara.



Honekin batera bizia kentzeko nire bigarren saiakera agertu zen, ez nintzen izan kapaz, oso zaila izan zen, beldur nintzen, ezin nuen neure burua urkatu. Denok izan dugun beldurrarengatik ez nintzen soka batetik zintzilikatuta geratu. Ostean datorrenagatik, inork ez daki agur esan arte, bizitzari testuaren azken puntua jarri arte, azken orrialdea irakurri arte.

Behera noa, gelditu gabe, lurra hurbiltzen ari da etengabe. Azkenean, gabeziagatik aurkitzen naiz hemen, nire hiriko kale honetako pisu honetan. Poztasun faltagatik.

Zer da poztasuna? Emozio bat bakarrik? Ez, nire ustez ez, bizitza aurrera eramateko laguntza bat, gauza txarrak on bihurtzeko tramankulu bat, denok bilatu nahi dugun giltza bizitza on baten atea irekitzeko.

Niri, labirinto horretan aurkitu behar den poztasunaren giltza urrun geratu zait, jaiotzen bestea bide batetik joan nintzen, eta beste ate baten aurrean agertzen naiz orain. Azkenean, denok heltzen gara ni nagoen ate honetara, baina ia denak bide ona hartuta.

Zortzi, hainbat ukitu nauen zenbakia da, nire emaztearen jaioteguna eta orain falta zaidan solairu kantitatea lur hotz hura ukitzeko.

Hainbat sor diot nire bizitzako bigarren emakumeari, Claudia deituriko neska eder horri. Lanean nabilela agertu zen nire bizitzan, nire laneko momenturik txarrenetako batean. Ni kanporatzeko zeuden, baina bera agertu zen ni defendatzen. Apurtuta zeuden autoak konpontzen nituen, eta bera gure bezerorik onena zen. Kontatu egin nion zergatik nahi ninduten lan gabe utzi, eta berak nire nagusiari aurka egin zion, esanez ni nintzela zegoen mekanikorik hoberena eta azkenean biok bota gintuen.

Eskerrak emateko, kafe batera gonbidatu nuen eta azkenean afari bihurtu zen nire etxean. Kontu kontari, konturatu nintzen bere bizitza ez zela espero nuen bezalako, zailtasun handiko bizia zen. Konexio itzela zegoen, oxigenoak hidrogenoarekin duen bezalako lotura genuen. Berarekin nire gelako erlojuaren orratzen soinua gure arnasosken erritmoa eramateko bakarrik erabiltzen genuen eta horrela gau osoa, ez zegoen ordurik.

Ezkondutua egin ginen, eta ezkontzearekin batera umea eduki genuen, Ramon. 10 urtez bizi izan zen, minbizi terminal batez hil zen gure semea. Hainbat maite nuen semea egun batetik bestera kutxa baten barruan ikusi behar izan nuen!

Claudiak ez zuen onartzen nire laguntza, nire besarkadak saihestu egiten zituen, ohean pasatzen zuen eguna. Eta orduan, egunak urte bihurtu ziren, eta segundoak ordu...

Izan ahal dudana neskari onena izan da, orduak segundo bihurtzen genituen, urteak egun, baina, amodioarekin agurra dator, etorri zen bezala joan egin zen. Bera ez zen hil, bera karta bat utzita joan zen. Ezer argitu gabe.

*“Agur, ez arduratu ni deitzearekin, ez arduratu ni aurkitzearekin, polita izan da izan denera arte”*

Gutxiago falta da mundu hau azkeneko aldiz ikusteko, nire izena mundu honetatik ezabatzeko, nire birikiak azkeneko aldiz erabiltzeko, nire bihotz taupadak azkenekoz entzuteko, haizeak nire aurpegian azken aldiz jotzeko.

Argi dut nire esfortzu guztiek balio izan dutela, ikasi egin dut egunak pasa ahala hego apurtuekin hegaz egiten, hegoak falta izan arte ez naizela erori. Ez dut inor ni gogoratuko nauena. Espero dudana bakarra nire gorpua erretzea eta mendi batetik jaurtitzea guztiz desagertzeko.

Bi pisu falta zaizkit, segundo bat eta erdi falta zaizkio nire bizitzari amaierako puntua jartzeko. Nire bizitza, edalontzi baten azpian dagoen kandela baten sua bezalakoa izan da, zulo gabe, oxigeno faltan bizitzeko, energia faltan, denaren faltan, baina aurrera eginez. Azkenean sua itzali egiten da, nire bihotza itzaliko den bezala.

Lurra jo dut, amatatu da nire bizitzako sua, nire hegoak ezabatu dira, ezin dut aurrera egin. Arbola gaixoaren azkeneko hostoa erori da, bizitza gabe geratu da. Amaitu da, dena amaitu da. Amesgaizto luze hau amaitu da, azken puntua idatzi dut, agur.



**Arlene Rementeria Akordagoitia**  
**BATX. 1. maila**

*“Egunero pozik egotea eta ingurukoekin denbora aprobetxatzea gustuko dut, ezin dezakegulako geroa jakin”*

## **AMESGAIZTOA**

Euria ari du. Haizearen hotsak ez nau uzten loak hartzen. Gauero jasaten dudan amesgaiztoak daukadan logura zapaltzen du. Azkenik, begiak neke-neke eginda beraien kabuz itxi dira. Berriro gertatu da amesgaiztoa. “Amona non zaude?”. Nire oihuak erabateko beldurra sentiarazi dio nire ondoan lo dagoen nebari eta bat-batean izartu da. Elkar besarkatu gara baina, nire pentsamenduetan barneratuta ez diot kasurik ere egiten nebari. Burua biraka dabil hainbat ideia nahasturik.

Ideiak eta pentsamenduak piezak dira eta bizitza, haiekin osatutako puzzlea. Barneratuta daukadan amesgaiztoa, eta haren amaierako galdera, oihu bilakatuta, nire bizitzaren atal bat bihurtu dira. Amona berriz ikus ez dezakedala badakit, baina, ezin dezaket onartu, hori dela eta amesten dut. Ametsek errealitatek urruntzen gaituzte. Ametsak, sentimenduez gidatutako ideiak dira, errealitatea, aldiz, logikaz gidatutako pentsamendua da. Sentimenduak eta arrazoimena batzen diren lekuan amaitzen da nire amesgaiztoa.

Berriz, nire etsaia aurrez aurre daukat. Gaua. Iluntasuna. Amesgaiztoen sorterrria. Ingurukoekin azal ez ditzakedan sentimenduen batzarlekua. Hori da nire etsaia, begiak itxi eta amona beste behin ez dudala ikusiko pentsatzea. Tristura eta negarra nire bizitza asaldatzen ari dira azken egunotan.

Gau honetan nire etsai nagusiari aurre egiteko asmotan nago. Nire amesgaiztoaren bukaera bilatzeko asmotan nago. Jada, hilabete pasatu da amaren telefono deiak negar malkoak sortu zizkidana. Telefonoa jasotakoan amaren tristura sentitu nuen eta “Amonak ez du aurrera ...” hitzek nire amesgaiztoaren hasiera izan ziren. Dei hura nire oroitzapenetan murgildurik geratuko da betirako.

Iritsi da momentua. Neba txikiari izarak gainean jarri eta musu bat eman diot bekokian gabion esanez. Nire egunerokoaren edo beharbada gauerokoaren hasierari ekingo diot oraintxe bertan. Logelako mahaitxoan dagoen argia piztu dut eta arratsaldean erositako koadernotxo berdea ireki dut. “Hauxe izango da amonarekin komunikatzeko bidea” pentsatu dut eta idazteari ekin diot.

### **Otsailak 3. Amonak joan zenetik 30 egun igaro dira.**

#### **Gabon Amona!**

Joan zarenetik ez dut zutan pentsatu baino besterik egin. Beharbada, erratuta bizi izan ditut zure ondoko urteak. Beharbada, maitasun gehiago eman beharko nizuke baita zuk niri ematen utzi ere. Beharbada, amak esaten zidanean amonari bisitan gindoazela larunbat arratsalde batean, aurpegi eskasa jarri beharrean lagunekin ezin nintzelako egon ; gogotsu eta pozik egon beharko nintzateke. Zure etxera sartzean, beharbada, hobe izango zen zure kontutxoak entzutea eta mugikorra alde batera uztea. Baina ez. Zentzugabe ibili izan naiz zurekin, zure maitasuna baztertuz eta nire ezkutatuz. Eztakit zerk mintzen nauen gehiago, iraganean alferrik galdutako denborak edo zu jada ez egotea nire ondoan.

Nire tristurak ez nau idazten. Nire malkoak, boligrafoaren tinta urdinarekin erreka ilun bat eratzen hasi dira eta albo batera begiratuz ea neba izartu dudan, nebarekin ahalik eta denbora gehien igarotzea erabaki dut. Jarraitzeko prest nago.

Behintzat, zurekin igarotako azken egunak lasaitu egiten nau. Eztakit kasualitatea edo bizitzak konturarazteko eman zidan aukera izan zen. Hala eta guztiz ere, azken egun hura, urtarrilaren 3a, nire buruko oroitzapen liluragarria da. Egun hartan ez neukan mugikorrik, hortaz, zure kontutxoak entzuteari ekin nion. Ez dut inoiz ahaztuko nola kontatu zenidan lehenengoz ikusi ninduzun eguna eta hura kontatzean sentiarazten zenidan poztasuna. Pertsona berezi eta garrantzitsu bat izango banintz bezala sentiarazi ninduzun eta zure begietako disdirak nirekiko zenuen maitasuna erakusten zuen. Asko maite zaitut, Amona.

Koadernotxoa apalean gorde, argitxoa itzali eta ohera sartu naiz. Harrigarria badirudi ere, amonarekin izandako elkarrizketak amesgaiztoa ez gertatzea egin du. Nire barnean neukan arantza kendu dut eta aspaldiko partez lasaitasuna eta maitasuna sentitu ditut. Jendeak pentsatuko du zoratuta nagoela, ez dauden pertsonekin hitz egiten dudalako; haiei gidaturiko gaueroko batekin hasi naizelako eta horrek, poza sentiarazten didalako.

Hilabete pasa ondoren, aurkitu dut nire bidea poztasuna lortzeko. Aurkitu dut nire etsai nagusiaren aurka borrokatzeko tresna eta bidea. Amesgaiztoa bukatu da. Gau ilunak bukatu dira. Orain nire bizitzaren atal berri bati hasiera eman diot. Atal alaia. Maitasunaren atala.

Nire bizitza osatzen duten piezak aldatu dira eta puzzle berri batekin hasi naiz. Orain ideia berri eta argiak dauzkat. Ingurukoekin maitasuna sentitu nahi dut eta esperientzia berriak bizi; ez dakidalako noiz arte izango dudan pozik bizi ahal izateko aukera.



**Ibai Zobaran Díez**  
**BATX. 1. maila**

*“Ezin badugu lehenaldia aldatu, egin dezagun  
zerbait orainaldian iragana aldatzeko”*

## **HERIOTZAREN ONDOREN**

Heriotzaren ondoren... batek daki zer demontre dagoen, eta bakar hori ni neu naiz.

Ez pentsa zoratuta nagoenik, irakur ezazue ipuina eta ulertuko didazue. Ibai, bai Ibai Zobaran deitzen naiz eta Busturian bizi den hamasei urteko ume edo hobeto esanda, nerabe bat naiz. Oso gustuko dut nire familiari buruzko gauzak jakitea, eta batez ere interesgarriak badira.

Nik banekizkien nire birraitona-amonei, aiton-amonei eta familiartekoei buruzko hainbat kontakizun eta bizipen, non bizi ziren, bere familia nortzuk osatzen zuten, baina ez nekien heriotza nola ezagutu zuten. Nik jakingura handia neukan, batzuetan lagun artean geundenean gai honi buruz berriketan kafea hartzen genuen bitartean, norbaitek nire barrabilak eskuaz harrapatuta baleuzka bezala sentitzen nintzen, nik ez nekielako ezer horri buruz. Orduan nik gurasoei galdetzen nien behin eta berriz, baina betikoa kontatzen zidaten, den-dena heriotza izan ezik.

Gau euritsu eta triste batean, ni lo seko nengoela, nire birramona Leonaren ahots liluragarriak entzun nituen, baina ezer ez nuen ulertu. Hurrengo gauean nire aitona Anttonenak, baina gau hartan ezin ere ezer ulertu. Horrela ia gauero egoten nintzen, ahots bat entzun baina txinatarrez hitz egiten baleude bezala entzuten nuen nik.

Gau batean erdi negarrez oheratu nintzen, nire lagunek burla egiten zidatelako, ez nekielako ezer nire familiari buruz. Baina gau hori ez zen betiko gau bat, ez nituen txinatar hitzak entzun, euskera sano baizik. Hitzok nire birraitona

Doroteonak ziren, eta gau hartan kontatutakoa ez dut inoiz ere ahaztuko. Egun horretan nire gurasoek lo asko egiten utzi zidatela ohartu nintzen hurrengo goizean, istorio osoa entzuteko denbora izan nuen eta.

Horrela zioen:

*“1936. urtea zen, eta Espainian estatu kolpea egon zen. Ni Busturian dagoen Etxebarriatze izeneko baserri batean bizi nintzen nire emazte eta hiru seme-alabekin. Orain ezagutzen duzun ortu berbera geneukan eta gosetea zetorrela oharturik, ortua ondo prestatu genuen. Ni zure betiko herriko zinegotzia nintzen, hau da, Busturiakoa. Espainiako militarrek herri guztietara joan ziren Frankoren kontra zeudenak atxilotzeko. Ni zoritxarrez horietako bat nintzen, baina militarrek ez zekizkiten nortzuk ginen Busturian zinegotzi, ez nor zen “txarra” garai hartan, hitz bat jartzeagatik, lauzpabost “españolitok” salatu egin gintuzten arte.*

*Urte bete ibili ziren militar txoro haiek gure atzetik, baina azkenean 1937an harrapatu gintuzten. Atxilotu baino bi egun lehenago, nire etxean bizpahiru militar agertu ziren, txakurrek hezur gozoak bilatzen dituzten bezala bilatu ninduten. Orduan, hartu eta ezer esan gabe eraman ninduten. Familia ere ezin izan nuen agurtu... Nire seme-alabek ez zuten inongo errurik hau jasateko eta ezta ere nire emazteak, baina ala gertatu zen ezer esan gabe eraman ninduten.*

*Busturiako zinegotzi denak Larrinagako kartzelara eraman gintuzten. Ni jada oso urduri nengoen, ez ziguten azalpen txiki bat bera ere eman. Kartzeletako bizitza ezagutu nuen egun bakar batez, eta orain preso dauden guztien azalean jartzeak negargura handia ematen dit, nire antzera baina berrogei urtetako zigorrak jasaten egon beharra... Nik zure adina neukanean, hurrengo mendea, hau da zu orain bizi zarena, baketsua izango zela zioten, nahiz eta gezurra izango zela argi geneukan”.*

Gaueko hiru eta erdiak izango ziren eta nik txizalari handia neukan, baina nire birraitonaren istorio honek ohean geratzeko konbentzitu ninduen.

*“Hurrengo gau ilun hotz eta tristean, Busturiako zinegotzi batzuk, Derioko kanposantura eraman gintuzten. Hotza, beldurra... Ume txiki bat hiri handi batean galduta balego bezala sentitzen nintzen. Bat-batean, denak hartu eta horma baten aurka jarri gintuzten eskuak buruaren atzean genituela. Nire eskuinetara begiratu nuen eta nire lagun eta kideei azken agurra esan nien, goian ikusiko genuela elkar esanez. Oso triste da, heriotza gaztelaniazko bost hitz entzunez ezagutzea. Beti izango ditut buruan, gogoan eta baita bihotzean ere. Urduri eta jakin minez ikusten zaitut Ibai - eta nik lo nengoela baietz erantzun nion.*


*Beno istorioa kontatzen jarraituz, militar koadrila zikin horrek esan zituzten azken bost hitzak hauexek dira. “Sujeten las armas, apunten...”, eta gogo gehienez eta indartsuen esan zuten hitza, “fuego”. Hitz beldurgarriak, ezta? Heriotza honela ezagutzeak..., ikara, sarrakio, laztura.., ezin genuen ezer egin...*

*Espero dut, bihar arratsaldean zure lagunengana joatea eta zure birraitonaren heriotzetan harro hitz egitea, gaur entzun duzun guztia kontatuz. Beno Ibai, nik joan beharra daukat, mus-txapelketak itxaroten dit eta, baina azkenengo bi gauza esateko*

*astia daukat: nik egin nuen bezala nahi dut zuk zeuk zure herria bide berean eramatea eta dena ematea, eta bigarrena, heriotzaren ondoren...”.*

Bat batean nire anaia sartu zen ni esnatzera, eta ezin izan nituen nire birraitona kuttunaren azkenengo hitzak entzun. Baina gau hura aparta izan zen, eta beti oroituko dut, zu oroitzen zaitudan bezala.





**Jon Santa Maria-Amurrio Fernandez**  
**BATX. 2. maila**

*“Nik ere ez dakit bizitzen, inprobisatzen ari naiz.”*

## **BIDEGURUTZEA**



**Agriparen panteoia**



**Marcus Agrippa**

*“Gizon itzela izan zen. Militar aparta eta lagun zintzoa”* Lucak berba bihurtu zuen buruan zerabilen pentsamendua Agriparen panteoiaren aurrean. Haren ondoan, apur bat atzerago, Sofia atariko frisoan dagoen inskripzioa saiatzan ari zen interpretatzen: “M. AGRIPPA L. F. COS. TERTIUM FECIT”.

Luca, andrearen presentziaz konturatuta, biratu zen harengantz:

- *Barkatu, bakarrik nengoela pentsatu dut, ez zaitut ikusi.*
- *Ez du inportantziarik. Inskripzioari begira egon naiz. Ezagutzen duzu zer esan nahi duen?*
- *Ah, bai, atariko frisoan dagoena, laburdura bat da: Marcus Agrippa Lucii Filius Consul Tertium Fecit, hau da: Marcus Agrippa Luciusen semeak, hiru bider kontsul izendatuak, egin zuen. Baina Agripak K.a. I mendean egin zuen bere panteoia eta eraikin hau K.o.125.urtearen inguruan egin zen, Agriparena K.o. 80.urtean erre egin zelako. Hadriano enperadoreak aginduta, Agriparen panteoiaren ereduari jarraituz berregin zuten eta frisoko jatorrizko inskripzioa ostera ere kokatu zuten. Barkatu berriro, ez naiz aurkeztu, Luca Fabbri naiz.*

Sofiaren aurrean gizon gazte bat, irribarretsu, luzatzen ari zitzaion eskua; arropa koloretsuz apain jantzita, altu samar, lirain eta adats horail luzea motots batean lotua. Sofiak bere artean: *“Ene, zelako begi urdin ederrak!”*. *“Kaixo Luca, Sofia naiz, Sofia Tarantino”*. Bostekoa eman zioten elkarri.

- *Agripa miresten duzu, ezta?. Pertsona berezia izan zen. Geografo, arkitekto, militar eta politiko... Oktavio, Zesar Augusto bilakatu zen enperadoreari, laguntza handia eman zion hainbat egoera larritan. Bai, pertsonaiak biziki erakartzen nau.*

Eta ia jaramon egin barik Sofiaren begirada sarkorrari segitu zuen gartsuki: *“Panteoiaren atzeko aldean zulo zabal bat eta horma zati altu bi daude. Agriparen termen azken aztarnak dira. Erromara ura ekartzeko Aqua Marcia eta Aqua Virgo akueduktuak berregin zituen eta Cloaca Maxima, Erromako estolda nagusia, hiriko saneamendurako ikaragarritzko inportantzia zuela, finkatu eta zabaldu zuen. Gaur egun oraindik erabiltzen da estolda hori”*.

Monologia amaitu zuenean, Sofia aurkitu zuen, isilik, begirada finko, eta aurpegia irri xamur batek apaindua. Orduan, lipar batez, ohartu zen forma harmoniatsuak zituen andrazko bat aurrean zuela, espresio lasaia eta jaka arrosaren gainean nabarmentzen zen ile beltzaren koloreko begi handiak zituena. *“Begi...begi-bistakoa da Historia interesatzen zaidala, ezta?”* zezeldu zuen bere begirada Sofiaren begietan galduta:

- *Lizentziatu berri naiz, eta ba... Trastebere aldera joan behar dut, ondo badatorkizu eroan zaitzaketa nire motorrean.*
- *Ederto, eskerrik asko, Palazzo Tavernara noa, bertan daukat ostatua”* -erantzun zion Sofiak.

Auto ilaren artean bizkor mugitzen zen motorra. Atzean, Sofiak gerritik besarkatzen zuen Luca. *“Zenbat denbora motor batean ibili barik... gaztetan Kataniara joaten nintzenean motor zahar hartan...”* pentsatzen zuen. Lucaren bihotz taupadak igartzen zituen. *“Mutil erakargarria, biziz beterik...Um, lore lurrin freskoa erabiltzen du, arrosa usainaren osagaia daukan baten bat”*. Lucak burua atzera apur bat biratuz:

- *Nongoa zara, Sofia?*
- *Siziliakoa naiz, Catania inguruko herrixka batean jaio nintzen.*
- *Itxura hegoaldekoena daukazu bai, baina doinua...*
- *Orain oporretan nago, baina jada urte asko Parisen bizi naiz, Siziliako hizkuntzaren doinua galdu dut zati batean.*
- *Paris, Paris, oh, la, la!. Eta zer egiten duzu bertan?*
- *Informatika ikasi nuen aspaldi eta enpresa baten barne egitura informatikoaz arduradun nagusia naiz.*
- *Ene, horrek ez dauka zerikusirik handirik Erroma zaharreko istorioekin*
- *Beno, ez dakit... Historia ere atsegin dut.*

Azaroaren hasierako eguerdi hodeitsu epela zen. Motorraren abiadak sortutako korrontek Sofiaren ilaje beltza astintzen zuen airean. *“Zer nolako mutila izango da? Alai, dibertigarria dirudi”*. Eta oroimeneko artxiboetatik jauzika bere bizitzaren filmean, modu batean edo bestean protagonista izandako hainbat gizon agertu zitzaizkion Sofiari. Ez zuen haien inolako nostalgiarik, baina denbora igarotzearen kontzientziak hotzikara eragin zion.

Lucak motorra geratu zuen. *“Zure ostatua hango kale-kantoiaren inguruan dago”*. Eta Sofiaren agurrari aurea hartuz, irri eginez: *“Gura baduzu, gaur arratsaldean kafe bat hartzeko geldi gintezke, horrela Agripari buruz lasaiago hitz egin genezake. Zer deritzozu bost eta erdiak aldera Piazza Navonako zentroan dagoen iturrian elkar ikusteari?”*. Irribarrez ere, Sofiak: *“Bai, ondo, bai, Piazza Navona ezagutzen dut. Orduan, gero arte Luca”*. *“Ciao Sofia, a dopo!”*. *“Lagun arteko agurra”* pentsatu zuen Sofiak, Luca urruntzen zela.

Sofia iturri ondoan zegoen Lucak dei egin zionean plazako bazter batetik:

- *Ciao Sofia, zer moduz? Goazen Braschi kafetegira, hortxe bertan dago eta kafe ona egiten dute”*- Lucak Agriparen inguruan zenbait artikulu zekarren eskuan. Terrazako mahai batean jesarri eta segituan zerbitzaria etorri zitzaien- *“Nik caffè lungo bat hartuko dut eta zuk, Sofia?”*
- *Un latte macchiato, mesedez, kafe gutxi hartu behar dut arratsaldez, bestela ez dut ondo lorik egiten.*
- *Niri ere espresso gogorregia egiten zait eta urtu egiten dut. Agriparen pertsonaia ikertu duten autore batzuen artikuluen fotokopiak ekarri dizkizut.*



**Piazza Navona**

- *Eskerrik asko, nire aldetik apur batean Interneten web-orri batzuk kontsultatzen egon naiz.*

Hodeien artean pasatzen zen argi horixkak plazan zegoen guztia, eraikinak, iturriak eta astiro mugitzen zen jendea, kolore beroez tindatzen zuen. Zerbitzariak utzitako kafearen usaina zabaltzen hasia zen.

- *Zergatik interesatzen zaizu hainbeste Agripa, Luca?*
- *Bere sasoiko pertsona jakintsu bat izan zen, idazle, geografo, arkitekto, militar bikaina bai lurrean bai itsasoan. Baina Oktavioren lagun leiala izaten mantendu izana da gehien liluratzeko nauena. Krisi politiko zailean, gerra egoera gogor eta korapilatsuan bere lagun Oktavioren alde lerratzen zen beti. Miresten dut.*
- *Marko Antonio eta Kleopatraren aurka borrokatu zela irakurri dut -tartekatatu zuen Sofiak.*
- *Bai, triunbiratuko garaian, Oktavio, Marko Antonio eta Lepido boterean, gatazka ugari gertatu ziren. Agripak bandoz aldatzeko, traizioa egiteko abaguneak izan zituen, eta hala ere Oktavio leial izaten tinko segitu zuen eta parte hartu zuen gudu guztietan atera zen garaile. Ez da benetan aparta?*

Zirrara islatzen zitzaion aurpegian eta Sofiari begiratzen zion baiezko keinuren baten zain. Sofiak kafesnearen zaporea dastatu bitartean:

- *Erromako hiriaren aedil edo obretako zinegotzia izan zenean egin zuen lana erakargarri egiten zait. Ez zen prestigiozko kargua baina Agripak bere arkitektura ezagutza erabili zuen hiritar guztien zerbitzurako: eraikinak eta kaleak egin eta konpondu, saneamendua garbitu eta hobetu, ubideak berregin eta zabaldu, parke ugari diseinatu eta apaindu..., jendearen bizi-kalitatea hobetzeko izan zuen ardura, bere bizitzaren zati bat horrela ematea txalotzen dut.*
- *Bai, horretan ere gizon zintzoa izan zen - gehitu zuen Lucak.*

Sofiak, plazako Lau Ibaien Iturrian begirada pausatuz: “*Ez dago jainkorik, Luca. Aedil kargua utzi eta urte batzuk geroago, bere emaztea zen Klaudia Martzela abandonatu zuen, Oktaviok eskaini zion Julia Maior alabarekin ezkontzeko eta horrela enperadorearen familiaren parte izateko*”.

Lucak, harritu eta pixka bat nahigabeturik: “*Zelan esango zion ezetz enperadoreari estimatzen zuen alaba oparitu ondoren?, zelan uko egin Oktavioren gorengo laguntasun adierazpenari?*”.

- *Sofiak, artez eta argi: “Ez dakit zeintzuk izan ziren lagun bien arteko interesak, baina bi-biek emakumeak erabili zituzten truke-merkantzia gisa.*
- *Kontestu historiko eta sozialean ikusi behar dituzu pertsonaiak, Sofia.*
- *Bai, jakina, baina non gelditu zen emakume bi horien euren bizitza zelan eraiki erabakitzeke aukera?.*
- *Erromako sasoiko gizartea zen...,biak militar garaileak ziren..., Oktavio botere maximoa zen...*

Luca ez zen eroso sentitzen elkarrizketak hartzen zuen bidean. “*Sofia, begira, arratseko azken momentuak dira, ilunabarra laster hasiko da. Gura baduzu Tiber aldera joan gintezke paseo bat ematen, zer iruditzen zaizu?*”. Sofia gaztearen ezinegonaz konturatua zen. “*Ados, ideia ona. Ilunabarra asko gustatzen zait eta honelako arrats epelean naturaren benetako erregalua izango da, goazen*”. Jesarlekutik jaiki eta Sofia bizkor abiatu zen zerbitzariagana kafeak ordaintzen.

- *Nik pagatuko ditut kafeak.*
- *Esker mila. Denda batean egiten dut lan, bezeroen erosketak euren etxeetara eroaten motorrean. Soldata eskasa ematen didate. Ez dut oraindik beste hobeagorik aurkitu - Sofiak Lucak ekarritako Agripari buruzko artikuluak jaso eta hasi ziren oinez.*
- *Agian apur bat latza izan naiz nire iritzia azaltzean. Baina Historia ofizialean ospetsu izaten direnen aurrean distantzia zuhur batean kokatzen naiz beti. Mesfidatia naiz eta galdera elementalak egiten dizkiot neure buruari, oinarritzko argipenak eskatzen ditut. Militar itzel ona izango zen Agripa, baina zeintzuk ziren bere interesak soldaduak sufrimendura eta heriotzara bidaltzen zituenean, zer egin zuen zaurituekin edo arerio presoekin, zelan gelditu ziren hildako soldaduen familiak edo zer-nolako tratua ematen zieten okupatzen zituzten herrietako emakume, zahar eta umeei. Izen gabeko izanak, Historian sekula agertzen ez direnak.*

Luca isilik zihoan, noizbehinka Sofiari begiratu. Tiber ibaiaren ondora heldu ziren.

- *Badakizu Luca, zure begien kolorea urdin ilun bilakatu da egunaren azken argiekin, eta irri xamurra... eta aurpegi alaia...*
- *Kar, kar..., ba eskerrik asko, baina Italiako iparraldean ugari dira ilehori eta begi urdinekoak, Venezian jaio nintzen eta hango inguruan arruntak dira nire itxurakoak... Aizu Sofia, zergatik alde egin zenuen Siziliatik?.*
- *Sofia gelditu zen, begirada ibaiko uretan: "Jada urte asko dira, hogeita sei... ezin nuen jasan. Alaba bakarra nintzen, nire ama antzutu zen ni erditu ondoren. Umezaroa izan zen nire sasoi askeena, eskolan eta lagunaren artean. Baina ja ordutik hasi zitzaizkidan irakasten zein izango zen nire etorkizuna: ezkontza, seme-alabak eduki eta hezi, eta senarraren zerbitzari fidela izatea. Ama zen ohituren transmititzailea, haren atzetik aitaren agintea nabarmentzen zen arren. Pubertaroan andrazkoen mundu mugatua bat-batean agertu zitzaidan. Zer egin, baina batez ere zer ez egin: zer ez esan, zelan ez jantzi, nondik ez ibili, zein ordutan ez egon kalean... Amak Siziliako gizartean emakumeek bizirauteko ezinbesteko prebentzioak erakutsi nahi zizkidan, baina horiekin batera hainbat ohitura eta arau emakumeak mendeantzeko nahasten zituen. Hilekoa hasi zitzaidanetik nire gorputza ez zela nirea sentiarazi zidaten. Etxean, nire irudi publikoa, nire ospea eta, batez ere, nire birjintasuna gordetzea familiaren arazo bihurtu ziren, familiaren prestigio eta ohoreari lotuta. Eta kalean, nire gorputza gauza bat gizonentzat desiragarri zena, harrapatu edo konkistatu behar zutena. Amaren istorioak – gogoratu nola bortxatu zuten neska hura eta beste hura bahitu eta hil egin zuten – izuz josita zeuden. Amaren beldurra zentzuzkoa zen, errealitate gordinaren ondorioa, baina itogarri, planteatzen zuen irtenbide bakarra zen gizon on bat aurkitu, gure defendatzailea izango zena, eta haren pean beste familia bat sortzea. Ohiturek eta erlijioak emakumeentzat arautu eta agintzen zutena bete eta jasan behar genuen, eta gizarte itxi, zurrun eta zapaltzailera moldatu.*

Sofiaren adierazpen lasaia, gorroto gabea, bere ahots irmo eta goxoa... Ilunabarraren azken argiek bere irudia argiztatzen zuten. Ez zen gertatzen ari Lucak pentsatzen zuena, Agripari edo haren garaikideei buruzko solasaldia, baina Sofia hasten zitzaion jakin mina sortzen.

- *Eta joan zinen...*
- *Ihes egin nuen. Kataniara joaten nintzen batxilergoa egiten. Amaitu nuenean, informatika ikastaro batean matrikulatu nintzen, kostata aitak ez zuelako gura. Irakaslea, andere bat, Frantzia egonda zen eta berak nola ikasi zuen informatika Parisen eta bertan eduki zituen esperientzien inguruan hitz egin zidan. Bizimodu berria zen niretzat eta perspektiba horrek erakarri ninduen. Apurka-apurka alde egiteko behar nuena bilduz joan nintzen nire ikasgelako takilan. Dena prest izan nuenean hanka egin nuen, ikastaroa amaitu baino lehen, Parisera. Hemeretzi urte nituen.*
- *Ausarta izan zinen.*
- *Ez dakit, beharra zen motiboa, itotzen hasia nintzen nire herrian eta ni neu izateko aukera bat zen.*
- *Eta zure gurasoak?.*
- *Ez nuen ezelako harremanik izan. Eten egin nuen. Duela hemezortzi urte edo herriko lagun bat kontaktuan jarri zen nirekin auto-istripu batean hil zirela esateko. Orduantxe itzuli nintzen herrira, hiletara eta herentzia kontuetara. Hori bukatu eta segituan bueltatu nintzen Parisera.*

- *Ez duzu zure Siziliako herrira itzultzeko asmorik?.*
- *Opor egun batzuk Erroman pasatuko ditut baina izatez Siziliarako bidean noa. Ez dakit ondo zergatik. Beharbada nire Kataniako neska lagunak zertan bilakatu diren ezagutzeko, edo beharbada jaioterriko paisaia daroagulako barruan beti eta bultzatzen gaitu itzultzera. Hango lur lehor eta latza, lurraren usainak ekaitz baten ostean, hango ilunabar gorri eta zabalak..., ez dakit, baina denboraldi baterako bertara joango naiz.*
- *Zure Parisko esperientzia pozgarri izan zen, Sofia?*
- *Ez da erraza izan. Lehenengoz lana aurkitzeko, gero enplegu kaxkarrak, denetarik egin dut ikasketak, janaria eta bizilekua pagatzeko. Sei neska bizi ginen pisu zahar eta ziztrin batean. Ikasketan lehena izateko borrokatu nintzen, enpresa batzuk onenen bila etortzen zirelako. Enpresan ere konpetizio zakarra izan da. Emakume naizelako gizonak baino hobeago ez, beti askoz hobeago nintzela frogatu behar izan dut mailaz igotzen joateko. Orain gorengo postura heldu naizenean apur bat baretu da konpetentzia borroka. Baina ez da ezer betiko, nire prestakuntza gaurkotzen segitu behar dut gogor. Maitasun erlazioak...*

Sofiak eten eta isildu zen. Gauean farolen argiak Tiberreko uretan islatzen ziren. Sant'Angelo gaztelua ikusten zen ez urrun, ibaiaren beste aldean.

- *Zer, esperientzia txarrik izan duzu, Sofia?.*
- *Beno, mutil-lagun batzuk izan ditut. Pertsona zintzoak batzuk..., elkarbizitza eta maitasun ideiarekin koherente izatea izan dira nire oztopo.*
- *Ez dakit zer esan nahi duzun, Sofia.*
- *Luca, seguru ezagutzen dituzula elkarbizitzan sortzen diren tira-birak....*
- *Lige batzuk izan ditut baina ez dugu inoiz pentsatu luzerako proiektu komunik, bizitzeko leku bat eratu eta hori dena.*
- *Bada, maiteminduta egonda eta guzti, elkarren ondoan bizitzen hasten zarenean eta maitearen idealizazioa baretzen zaizunean, lagun erreala goa ezagutzera heltzen zara: bere ordena, bere garbitasuna, bere maniak edo bere ardura maila eguneko beharrei begira: erosketak, arropa, janarien prestaketa, etxeko garbiketak,... Eta krisiak sortzen dira. Hasieran jasateko gaitasun handiagoa izaten nuen, moldagarriago izaten nintzen, orain, ja ez. Maitasunaren kontzeptua eta praktika da beste oztopoa. Nik maitasuna eta askatasuna lotzen ditut. Nik maitea aske nahi dut, hura bera izan dadila eta maite dut hura bera izan dadin, baita horrek nigandik urruntzea ekartzen duenean ere. Niretzat nahi dudana askatasuna nire maitaleei ere eskaintzen diet. Ez dut nire inongo maitalerena izan gura. Andrazkoak jada gizartean sobera menderatuak gaude gure harreman intimoetan ere menderatuak egoteko, hain justu konfiantzazko komunikazioa eta kolaborazio zintzo eta zabala askatasunean eraiki behar ditugun espazioan. Zoritxarrez, amodio partaideen artean ez dut oraindik inor aurkitu hori onartu duenik. Ni neu izaten saiatu naizenean susmoa, kritikak eta gaitzespena jaso ditut beti.*

Luca gelditu zen espaloian:

- *Ez da maitasun lar perfektua, idealegia, Sofia? Ez dirudi mundu honetakoa denik. Pertsona bat maite duzunean zuretzat desiratzen duzu, zuretzat mantentzen saiatzen zara, ez duzu nahi joan dadila edo beste batek ken diezazula.*
- *Bai, Luca, hori da gauza bat asko gustatzen zaizunean gerta dakizukeena, eduki nahi duzula, haren jabe izan eta gozatu nahi duzula. Baina pertsona askeen*

*maitasun erlazioetan ezberdina den zerbait espero dut. Zure izan baino inportanteago maite duzun horrek bere bizitza askatasunean eraiki dezala da. Badakit mingarria izan daitekeela baina maite dudana pertsona bere osotasunean maite nahi dut. Erabaki dudana nire bizimodurako hori da bateragarri den maitasun mota bakarra.*

- *Ez nau harritzen bikote egokirik zuk ez aurkitzeak. Zure planteamenduarekin bat datorren gizon gutxi egongo da, Italian behintzat oso gutxi. Eta seme-alabarik edukitzea pentsatu duzu, Sofia?*
- *Maitasun teoriarekin adostasuna lortu ahal da, zailena da praktikan zintzo, arduratsu eta koherentea izatea harremana luzatzen denean. Hasierako maitemina hormonon kontua da gehienbat, erlazio helduak esfortzua eskatzen du adostu duzun maitasuna aurrera eroateko. Ez, Luca, ez dut harreman luze egonkorrik lortu, eta nire ahalmena seme-alabarik edukitzeko agortzear dago. Ez dakit inoiz izango ditudan...*

Sofia, aurpegia goibel, Sant'Angelo gazteluko zubiari begira geratu zen. Luca hurbildu zitzaion: *"Sofia, han dagoen kalea hartu beharko dugu zure ostatura joateko. Ilun samar dago..."*

- *Mila esker, Luca, zure presentzia barik ezin izango nukeen gaurko paseoa egin. Andrazkoen mugen artean gauarena da bat adierazgarri. Laguntza behar izaten dugu gauaz gozatzeko, edo taldea edo gizonezko babesleren bat makulu gisa. Gaua atsegin dut. Parisen nengoela, emakume andana batekin "lapiko jotze" zaratatsuk egin genituen gauez familia "errespetagarriak" euren etxeetan zeudela. "La nuit est à nous aussi" oihukatzen genuen, gaua gurea ere badela aldarrikatzeko - Sofiak irribarre egin zuen -. Inoiz gure beldurrak zuenak besteko badira berdintasuna lortzeko zorian egongo gara.*

Luca pentsakor ibiltzen zen Sofiaren ondoan. *"Emakume adimentsu, kemenduna..., bizi-esperientziaz betea. Honen aldean nire neska lagunek umemoko taldea dirudite"*. Sofiaren ostatu ondora heldu ziren. *"Sofia, biharko beste elkartzeko aukera bat eman behar didazu. Honetan ez dugu ia Agripari buruz hitz egin. Eta Cloaca Maximaren kontserbatzen den zatia ikusi ahal izango dugu. Zer diostazu?"*. Eta erantzunari itxaron gabe, Sofiaren esku bat hartuz, *"Esan baietz, bihar Fontana di Trevin ordu berean, bost eta erdietan"*. Sofiak, ezustean harrapatuta baina irri jostaria aurpegian, baiezko keinu bat egin zion buruarekin: *"Primeran, bihar arte!"*. Sofiaren eskua une batez masailean pausatu zuen. *"Buona sera, Sofia. A domani!"* eta abiatu zen espaloitik aurrera. Oraindik kaleko iluntasunean galdu aurretik biratu zen berriz deiadar egiteko, *"Ez ahaztu Sofia, Fontana di Trevin, bost eta erdietan"*, Sofiak espaloian eskuaz agur egiten ziola.

Goiko kale batetik Fontana di Treviko plazara hasi zen jaisten Sofia. Bezperako arropa bera janzen zuen, baina betileak apaindurik apur bat luzeagoak emateko, begi beltzak are ederragoak izateko. Aurreko orduan euria ari izan zuela-eta aterki koloretsu loredua esku batean, bestean koaderno bat Lucak emandako Agripari buruzko artikuluak barruan zeuzkana. Ez zegoen jende gehiegirik iturri inguruan eta haien artean Luca ikusi zuen. Fontanaren urmaeleko bazter batean jesarrita zegoen eta arrosa gorri sorta bat zeraman eskuan.






**Fontana di Trevi**

Sofia gelditu zen eszena kontenplatuz: Fontana di Trevi bikaina eta mutil gazte ezagun berria bere zain. Aterkia eta koadernoan espaloiaeren ertzeko karel zabalean laga zituen. Lucak ez zuen ikusten. Ez zen lehenengo bider gizonen batek loreak oparitzen zizkiola, oroimenean beste irudi antzeko batzuk berpiztu zitzaizkion: *“Parisen..., askoz gazteago nintzen”*. Ustekabean aktore berri batzuk agertu ziren eszenan. Neska talde bat hurreratu zitzaion Lucari. Lau ziren. Barrez. Lucaren lagunak, gazte-gazteak. Begi-bistakoa zen lore sortaz txantxetan ari zirela. Bat hasi zitzaion arrosa batzuk kentzen. Lucaren erantzuna sasi protesta dibertigarria izan zen. Beste hiru neskak jolasaldian sartu ziren, batak alde batetik, beste biek bestetik, lore sorta desegin zioten, korrika jendearen artean, barre algaran. Luca euren atzean, jolaskide, harrapatu guran edo. Eta neskaren bat atzematen zuenean, neskak besarkatzen zuen eta ezpainenetan musua ematen zion bitartean, eskuan zeramatzan loreak beste neska bati pasatzen zizkion. Aldian-aldian Lucak kexa plantak egiten zituen, baina nabari zen pozarren zegoela.

Hodeiek estalitako arratsa zen. Iturriko argiak piztuta zeuden. Estatuak, ur-zurrustak eta urmaeleko uhintxoak hori-berde kolorez jantzi ziren. Jada ugariago zen jendea, Eta bikote gazte batzuk hasi ziren txanponak botatzen uretara, Fontana di Treviren ohiturari jarraituz. Sofiak erlojuari begiratu zion, ia seiak ziren: *“Laster ilunduko du”*. Luca eta neskak orain lasaiago zeuden urmael ondoan jesarrita, barreka segitzen zuten. Neskek arrosak mantentzen zituzten euren artean bananduta. Euri tanta batzuk jausten hasi zen. *“Udazkena...”*, Sofiak Lucaren koadernoan utzi eta aterkia jaso zuen karel gainetik. Berrito zuzendu zuen begirada Luca eta neskak zeuden lekura, irri apal bat egin zuen eta lehenengo bidean, orain gorantz, abiatu zen, nesken barre hotsek bere bizkarrean jotzen zutela.





**Oihane Abete**  
**BATX. 2. maila**

*“Bat inon loturik deino, ez gara libre izango (Mikel Laboa)”*

## **NEGUKO GAU LUZEETAN**

Bizitzan dena neukala argudiatuko lukete askok. Inguruko familia dirutsuena ginen eta inoiz ez zitzaigun ezer falta izan. Baina ametsezko irudi horren atzean ezkutatuta, errealitatea oso desberdina zen. Aitak etxetik kanpo hilabeteak pasatzen zituen, “lanean” berak esaten zuenez, gure herrian egin ezin zituenak egiten. Bidaietatik bueltatzen zenean, joanda zegoenean baino okerrago zen. Izan ere, negozio eta jai horietan guztietan erabili ohi zuen diplomazia hori erraz asko galtzen zuen etxean sartzean. Ama koitadua. Azaleko ubelduak ez ziren bere min bakarria ordea, ezta handiena, eta bere lagun ginebra botilak laguntzen zion guzti hauek aldi baterako ahazten. Pena ematen zidan. Nazka ematen zidan.

Eta hemen nengoen ni, eskualdeko famili boteretsuenaren alaba bakarria. Kanpotik, Irene polita. Irene zintzoa. Inoiz plater bat apurtu ez zuena. Barrutik ordea, nerabe galdu eta beldurtu bat baino ez, burua txoriz beteta. Herri txiki horretan usteldu nahi ez zuela bazekiena, ez ordea nola irten.

Nire 17. urtebetetzerako pare bat egun falta ziren. Aita Argentinan zegoen, bere adinaren erdia zuen emakumeren baten praktetan sartu nahian, segur aski. Gau hartan amarekin eztabaida handi bat izan nuen. Etxetik joateko eskatu nion, biok batera. Dena atzean utzi eta hutsetik berriro hasteko eskatu nion. Berak ezetz, ordea: “Zer esango lukete herrian horrelakorik egingo bagenu? Ez bakarrik herrian, Bizkaia osoan! Eta aita... Aita haserre bizian jarriko zen Irene, badakizu hori!”.

Ezin izan nituen malkoak gorde. Ez nuen ulertzen amaren jarrera. Bere bizitza osoan zehar jolasten pasa zuen itxurakerien joko horrek harrapatuta zeukan. Besteen iritziei bere ongizateari baino kasu gehiago egiten, gizarteak inposatutako legeen morroi.

Gelara igo nintzen korrika eta ohe azpitik motxila atera nuen. Aspaldi prestatu nuen. Itsulapikoan neukan dirua hartu eta atetik irten nintzen. Ama ez zen ni geldiarazten saiatu.

Tren geltokira heldu nintzenezan goizeko ordu bata pasata ziren. Udako gau epel horietako bat zen eta geltokian isiltasuna zen nagusi. Tiketa erosi nuen eta ordua heldu arte egurrezko bankuetako baten jesarri nintzen.

Ez nekien nora nihoan, baina urrun. Herri zikin honetatik urrun. Ihes egingo nuen eta bizitza berri bat hasiko nuen nonbaiten, dena konponduko zen azkenean. Lehen esan bezala, 16 urteko nerabe galdu bat baino ez nintzen, ez nekien ezer.

Hurrengo bi urteak Euskal Herritik bueltaka pasa nuen, Bilbotik Donostiara, Donostiatik Zarautzera eta gero Ipar Nafarroarantz abiatu nintzen. Neraman bizitza nomadak ematen zidan askatasuna zoragarria iruditzen zitzaidan. Egunero pertsona berriak ezagutzea, euren istorioak entzutea eta nire istorioa ere konpartitzea. Inongo presarik gabe bizi nintzen. Hiriko kale nagusietan jartzen nintzen egunero, turistei karikaturak eginez. Batzuetan diru asko lortzen nuen, beste batzuetan ez horrenbeste. Leku batez nekatzen banintzen, nahi nuenean joan nintekeen. Neu nintzen nire buruaren jaun eta jabe.

Noski, dena ez zen zoragarria. Benetako gosea eta hotza berriak ziren niretzat, eta orain nirekin lo egiten zuten askotan. Asteak ematen nituen arropa berdinekin, dutxa bat emateko aukera lortzen nuen arte. Kaleko erakusleihoetatik pasatzean beste aldera begiratzen nuen, islatuta ikusiko nuenaren beldurrez edo.

Neguak gogorrak ziren, gauak ilunak eta itzalak luzeak bihurtzen ziren. Turistak gutxitzean nire diru sarrera eskasen iturria agortzen zen eta berri batzuk aurkitu beharra zegoen. Guztiz beharrezkoa ez zen guztia salduz joan nintzen, soinean neramana baino gutxi gehiago izan arte. Gauda helduzan lo egiteko leku bat aukeratzen nuen, gehienetan parkeetako bankuak. Lurra hotzegia zen eta txakur usaina izan ohi zuen. Harrigarria da egoera txarretara moldatzeko daukagun erraztasuna, normalak bihurtzen diren arte.

Neguko gau luze horietako baten ezagutu nuen. Goizaldeko ordu biak inguru izango ziren, eta farolen argia zen ilargirik gabeko gau hura argitzen zuen bakarra. Bat-batean, ilunetik emakume bat irten zen. Soineko labur beltz bat zeraman, eta kolore bereko ilea erdi desegindako motots baten batuta. Gaueko makillajearen arrastoak ere bazeuzkan, begien inguruan bi orban gris handi baino ez baziren arren. Esku batean takoiak zeramatzan, bestean likore botila ia hutsik.

Niregana zetorrela zirudien, lerro zuzenean ez bazen ere. Gehienetan honelako eszenak komikoak iruditzen zitzaizkidan, baina neska honek desolazio aura bat zeraman bere inguruan, bakardadeak irentsi izan balu bezala. Nire bankura heldu eta alboan eseri zen, isilik, eta keinu batez trago bat eskaini zidan. Ohituta nengoen hurbiltzen ziren mozkorrak uxatzera, baina berarekin salbuespen bat egin nuen. Agian pena baino ez zen izan. Edo, agian, begi handi eta desesperatu horietan nire desesperazio propioa ikusi nuen islatuta.

Botila amaitu eta lo geratu zen bankuan eserita, eta handik gutxira ni ere lokartu nintzen. Hurrengo goizean esnatu nintzenezan, joanda zegoen jada, ezer esan gabe. Ez nuen uste berriro ikusiko nuenik, baina hurrengo goizean agertu zen berriz. Itxura guztiz desberdina zeukan: praka zabal eta koloretsuak zeramatzan eta ile beltz luzea sorbaldetan behera erortzen zitzaion. Eskuetan bi kafe eta okindegiko paperezko poltsatxo bat zekarren. “Egun on!” alai batekin agurtu ninduen eta betiko lagunak bagina bezala, nire alboan eseri zen berriz. “Gosaria ekarri dut, gose zara?”. Ez neukan hitzik.

Jaten hasi ginen, erdi isilik hasieran. Astiro-astiro garrantzirik gabeko gauzei buruz hitz egiten hasi ginen, denbora pasatzen. Baina oraindik ez nuen ulertzen, zer nahi zuen nigandik?

Eta horrela, hain sinpleki, ohitura bihurtu genuen batera gosaltzea. Noizean behin egiten genuen, egutegi finkorik gabe. Edozein goiz batean agertzen zen, inongo abisurik gabe eta betiko bankuan esertzen ginen gosaria partekatzerara. Harrigarria da halako keinu txiki batek zer nolako eragina izan dezakeen pertsona baten bizitzan. Negu luze hartatik atera eta udaberrian murgildu ninduen, eta kafesne bat eta irrifar bat baino ez zituen behar izan.

Hasierako elkarrizketa arinak sakonagoak bihurtu ziren, interesgarriagoak. Gauak pasatzen nituen hurrengo aldiz agertzen zenean zeri buruz hitz egingo genuen pentsatuz. Nire pentsamendu sakonenak azaltzen nizkion eta inor baino hobeto ezagutzen nuela sentitzen nuen. Bere imajinazio eta adimenak ez zeukaten mugarik. Bere pentsamenduetan galtzen zuen bere burua askotan, baita aurkitu ere. Inoiz ez nuen pentsa inorekin horrelako lotura izango nukeenik, are gutxiago hain azkar. Eta hala, konturatu gabe, guztiz maitemindu nintzen.

Behin etortzeari utzi zion arte.

Inolako abisurik gabe.

Agurrik esan gabe.

Zer gertatu ote zitzaion? Ondo al zegoen? Mesedez ondo egon zedin espero nuen... Baina ondo bazegoen, zergatik utzi zion etortzeari? Asteak pasa ziren, gero hilabeteak... Ezer. Nitaz aspertu ote zen? Nigandik nahi zuena lortu eta alde egin al zuen? Baina zer zen nahi zuen hori? Galderak gehiegi ziren eta nire buruan zurrumbiloka zebiltzan etengabe. Ezin nuen beste ezertan pentsatu, beste ezer egin. Aurkitu egin behar nuela pentsatu nuen, nonbaiten egon behar zela.

Eta orduan konturatu nintzen: Ez nekien ezer neska honi buruz. Ezer. Ez izenik, ezta adinik, ezer. Hutsa. Nola zitekeen hainbeste ezagutzen pertsona bati buruz hain gutxi jakitea? Ez zidan bere izena behin ere esan, eta nik ez nuen horretarako beharrik sentitu. Ez nuen horrelako daturik behar bera nor zen jakiteko, ez zuten bera definitzen. Orain bera bilatzeko ezer ez neukala ikusten nuen, inoiz ezer gertatu ez balitz bezala.

Urte asko pasa dira orain eta, noizean behin, neguko gau luzeetan, berataz gogorarazten naiz berriz.



**Beñat Landajo Villaverde**  
**BATX 2.maila**  
“Idatziek egiten naute”

## **ESKERRIK ASKO**

Koldarra izateaz nekatu den eta 26 urte dituen baina oraindik gizon izatera heldu ez den mutil bat naiz. Bakarrik nago bakarrik sentitzen naizelako, eta bakarrik sentitzen naiz bakarrik nagoelako. Hau da errealitate krudela, eta orain mundu guztia honen lekuko da. Otsaileko arratsalde euritsu eta hil bat da gaurkoa. Bilboko kale goibelak mamuz beteta daude, itxaropenik ez duten gorputz izoztu eta ustelez beteta. Hotza dago etxeko atetik at dagoen mundu horretan. Errutinak eta dekadentziak irentsi naute. Neuzkan amets guztiak desagertu egin dira. Ez nau ezerk alaitzen, ez dut inon zoriontasuna aurkitzen. Gaur, atzo eta bihar bezala, bakarrik nago etxean, ohean etzanda. Baina, gaurkoan atzo gertatu ez zen zerbait gertatu da eta iraganean gertatutakoa kontatzeko unea heldu dela uste dut, iragan deituriko zulo ilun eta sakon horretatik askatzeko. Baina nori kontatuko diot, bakarrik banago munduan? Aireari? Itsasoari? Ez, zuri.

Arnasa sakon hartu, eta ahotsak dardara egiten didan bitartean, lehen hitzak ahoskatu ditut: *Mundu guztiak du ozenki irakurtzen ez duen kapituluren bat, ba, hau da nirea.*

Aita umea nintzela galdu nuen, kartzelan zela hil zen. Gaixotu eta han bertan eman zuen bere azken arnasa, inolako agurrik esan gabe. Anaia ere kartzelan hil zen, baina ez gaixotasun bategatik, torturatua izan zen, eta bere azken minutuak sufritzen eman zituen. Arrebak ere zorte txarra izan zuen. Herriko jaietatik etxera bueltan gizon talde batek bahitu zuten, eta bortxaketa eta garrasi artean hil zen. Azken honetan amari suertatu zitzaion. Familian izan ditugun galera guztiek lur jota utzi zuten, eta depresio izugarri batean erori zen, berari era agur esateko ordua heldu zitzaion.

Bakarrik nago munduan orain. Ez dut lagunik, eta ezagunik. Ez naiz kalera irteteko gai. Ezin dut aurpegirik ikusi, barrutik hausten nau, are gehiago, posible bada. Baina kasualitate hutsez ni ezagutu nauzu. Zure ama hil zenetik zure ondoan egon naiz, eta hor jarraituko nuke munduaren amaierara arte, zutik zure aldamenen. Gogoratzen al duzu ikusi ninduzun lehen aldia? Nik bai, atzo izango balitz bezala. Praka beltz batzuk neramatzan, kamiseta urdin eta zapatila zikin eta zahar batzuk. Ilea orraztu gabe eta betazpi oso markatuak. Egunak, edota asteak lo egin gabe neramatzala zirudien. Hatz koskoak gorrituta

zenituen, odoletan. Esan beharra dut, eta ez haserretu, oso txarto usaintzen zenuela eta dutxa bero baten beharrean zeundela. Bost aste igaro dira jada egun hartatik, eta denbora gutxi honetan oso garrantzitsua bihurtu zara niretzako. Bakarrik egongo nintzateke munduan, zuregatik izango ez balitz. Zu zara dudan ezagun bakarra, lagun edo are gehiago, maitale bakarra. Ezagutu zintudan lehen egunetan oso zorrotz eta urrutiko sentitu zintudan, baina guztiz normala zen, zure ama galdu berria zenuen. Aste horretan odoletan zeunden barrutik, izotz errea bezalako izan zinen nirekin; hotza baina aldi berean sutua eta bortitza. Ulergarria zen niretzat, mingarria zuretzat. Egunak aurrera egin ahala egoera hobetzen joan zen, eta ikatza baino beltzagoa zen egoera horrek gris kolorea hartu zuen, edo hori zirudien, behintzat. Koloreak eta lore-haziak ikusten nituen zure barnean, eta desiratzen nengoen hazi horiek arrosa gorri-gorri batzuk bilakatzeko. Ez zen horrela izan, ordea. Ureztatu behar zintuen ur magiko eta mirakulutsu hori pozoiz bihurtu zen, lore-hazi horiek desagerrarazi zituen pozoiz ilun bat. Petaloak beharrean kristal zati mingarriak hazi ziren zure barnean. Deabruak eta sugarrak dantzan sentitzen zenituen bihotzean.

Zure gorputza inguratzen zuen kolore gris hori beltza bihurtu zen, inoiz izan dena baino beltzagoa. Buruan arantzazko koroa zenuen, zainetan pozoia, eta bihotzean kristal hautsiak. Mina sentitzen zenuen zure azaleko eremu txikienean ere. Mina errailetan. Dena galduta ikusten zenuen, bakarrik ikusten zenuen zeure burua. Ezagutu berri zenuen psikologoak agindutako pilulek ez zuten eraginik egiten, paraxetina, mirtazapina, fluoxetina, igual zion, ez zuten funtzionatzen. Beltza zen ikusten zenuen guztia. Eta beltza zen sentitzen zenuen guztia. Eta beltza zen ikusten zenuen guztia. Egun haietan zure bizitza beltza zen. Mina arnasten zenuen, mina bizitzen. Zulo sakon bat zenuen bularrean, eta zulo horren barruan izoztutako arima bat. Bizitzako amildegi zorrotz eta arriskutsuenean zeunden, eta guztia bukatzeko pauso ñimiño bat baino ez zitzaizun falta. Zure burua zauritu zenuen, ebakiak zenituen besoetan eta hanketan, barrutik usteltzen zintuen likido hori kanporatu nahian. Hamar mila zaldi zure gaintetik pasatu izan balira bezala sentitzen zenuen, nekatuta, latz. Hilda zeundela zirudien, baina, zoritxarrez, ez zen horrela.

Guztiz ahaztu ninduzun. Zure bizitzatik desagertu nintzen egun haietan. Orduak, egunak eman zenituen nirekin hitz egin gabe, eta egia esan zure falta sumatu nuen. Hutsik sentitzen nintzen zu gabe. Hutsik eta errudun. Errudun sentitzen nintzen min horren konplize sentitzen nintzelako. Infernu amaigabe hori bizitzen utzi zintudalako, eta infernu horretan erretzea gustuko zenuela uste nuelako. Zerri ziztrin eta lotsagarri bat sentiarazi ninduzun, eta zintudan. Baina zerbait egin behar nuen zure lore ezkutu horien petalo biziek azkenean argia ikus zezaten.

Ez nintzen beldur arantzaz eta kristal zorrotzez inguratuta zenuen bihotz apurto hori besarkatzeko, eta horretara nindoan. Nire odola izurtzera nindoan, zure odola zure zainetan mantentzeko. Banekien ez zela prozesu erreza izango eta bide honetan asko zaurituko nintzela, baina igual zitzaidan. Poesia zinela uste nuelako.

Egunak igaro ondoren berriz elkartu ginen, kasualitatez. Espero nuen bezala, izotza bezain hotz baina haizea bezain zorrotz agertu zinen. Zure besoetan ebakiak ikusterakoan begiak igurtzi nituen, ikusten nuena errealitatea zela egiaztatzeko. Sakonak ziren. Ez nekien zer egin, ez nekien nola erreakzionatu. Hanka-puntetan jarri, eta aingeru sendatzaile bat izango banintz bezala, eta inongo baimenik eskatu gabe, besoak luzatu eta nire bular artean hartu zintudan. Hasieran sentsazio arraro eta bortitza izan bazen ere, zure aurpegira erreparatu nuenean eta irribarretxo hori ikusi nuenean, nire bihotzaren zatitxo bat urtu zen. Zulo hartatik zetozen kate pisutsu eta astunak askatu zenituen, eta azkenean askatasunez arnasa hartzeko

ausardia aurkitu zenuen. Mina baretu zitzaizula sentitu nuen, zure bihotz izoztu hori zerbait berotu zela. Bada, apurtuta dauden bi bihotzek, bihotz oso bat sortzeko ahalmena dute. Edo hori diote esaera zaharrek.

Magikoa zirudien besarkada horrek sentsazio arraro samar eta kontrakoak eragin zituen. Inoiz bizi izan dugun esperientziarik mingarriena izan zen biontzat. Kristalek barruak zulatu zizkidaten, odola dariola nengoen barrutik. Baina aldi berean, beharrezkoa izan zen sendatzeko. Eta zu, lor jota, baina aldi berean lasai eta libre, txori mindu baina aske bat izango bazina bezala.

Haziak loratzen hasi zinen. Hostoak sentitzen zenituen, eta inoiz ikusi ditudan arrosa politenak agertu ziren. Hunkigarria izan zen momentu hori. Hunkigarria oso. Pixkanaka gorputzean zenuen pozoiz guztia desagertzen joan zen, baina ezinezkoa zen guztiaz desegitea. Zauriak zuhaitz magiko baten enbor lodi eta sendoek estali eta guztiz sendatu zituzten. Infernua bizirik eta sutsu mantentzen zuten sugarrak itzaltzen joan ziren, errauts bihurtu arte. Eta errauts horietatik indarra aurkitu zenuen, zure buruaren kontra egin eta irabazle irteteko.

Maitatzera irakatsi nizun, besteak maitatzera, eta garrantzitsuena, zu maitatzera. Zure irribarreak munduari bira bizkor eta fresko bat ematen zion, eta nire mundua argi garbi, distiratsu eta koloretsu batez betetzen zuen. Pasatutako infernuak batu gintuen, eta nahiz eta nahiz eta mina eragin, iluntasun horretan elkarren izpi bilakatu ginen. Eta nire bihotzaren alderik zintzoenetik eskerrak eman nahi dizkizut, ni izaten erakusteagatik, ni sentitzen uzteagatik eta zu ni bilakatzegatik.

Orain hilabeteak pasatu dira iluntasuna eta mina guztiz desagertu direnetik, eta gaur ere zurekin elkartuko naiz, egunero bezala. Ohetik indarrarekin jaiki, kafesne bero-bero bat edan, eta heldu da elkar ikusteko ordua. Gaurkoan urduri samar sentitzen naiz, baina badakit ikusiko dudana nire gustukoa izango dela. Ez dizut askotan esan, baina maite zaitut. Inork maiteko zaituna baino gehiago. Asko eta ondo maite zaitut. Harro eta oso zorte oneko sentitzen naiz zu ezagutu izanagatik, denbora luze batean gertatu zaidan gauzarik eder, xarmant eta kuttunena zara niretzako.

Heldu da ordua. Hor zaude, betiko lez, beti bezain polit ispiluaren islan. Nire salbatzailea zarela esango nuke harrotasun osoz, indarraren eredu zarelako. Eta ez da harroputza izateagatik, baina orain daukadan, neukan eta izango dudan onena naiz.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, zeuri, neure buruari.



**Claudia Parfene Parfene**  
**BATX 2. maila**

*“Norberan zoriontasuna bilatzen duena  
soilik izango da benetan zoriontsu”*

## ATZERA EZIN

Gau hartan negarrez eta izerditan esnatu nintzen. Nire gorputzak benetako eguzkiaren izpien beharra etsi gaiztoz erregutzen zidan, nire azalak udaberriko egun bero baten haize goxoa sentitzea baino ez zuen behar. Ohetik altxatu eta amesgaizto horietatik ihes egiteko amonaren egunkaria hartu nuen. Gailurrik gorenera abiatu nintzen kanpoko naturaren magia bustitzeko eta nire barruko tristura askatzeko. Amonaren itxaropen sutsuak kemena ematen zidan zulo beltz horretan jarraitzeko.

XXII. mendeko lehen urteko lehen hilabetean jaio nintzen, 2100eko urtarrilaren 3an hain zuzen ere. Familia apal batean munduratu nintzen eta ia bakarrik hazi nintzen, garai hartan familia batean ume bat baino gehiago izatea debekatuta baitzegoen. Eskerrak auzokoek seme bat izan zutela. Aritz deitzen zen eta adin berekoak ginen. Mutiko hura eta biok lagun kutunak izan ginen hasieratik gure bizitzetako azken unera arte. Nahiz eta jakin ez, urte batzuk beranduago, Aritz izango nuen maite bakarra.

Zoritxarrez, zulo beltz deitzen nion kupularen barruan igaro nituen nire bizialdiko momentu gehienak. Gure kupula 2075ean eraiki zen, mundu osoko gehienak bezala. Kontinente guztietan hainbat zirkuluerdi zeuden eta eremu bakoitzean bizirik iraun zuten familien seme-alabak biltzen eta babesten zituen. Gurean, 5.000 biztanle inguru zeuden, baina eremu nahiko zabala hartzen zuen, bertako jendea hornitzeko eta arnas egiteko, ur garbiak eta basoak beharrezkoak zirelako.

Bizimodua neketsua zen, heldu gehienak nekazaritzan edo abeltzaintzan aritzen ziren, bizirik iraun zutenek industriaren aro beltzari beldurra hartu ziotelako. Medikuak, irakasleak eta horrelakoak ere bazeuden baina jatea behar-beharrezkoa zen edozein ekintzaren gainetik.

“Baina, zergatik bizi behar dugu kupula mugatu honetan?” Hura izan zen nire haurtzaro osoan buruan izan nuen galderarik nabarmenena. Ohikoa izango litzake umeek jolasten dutela pentsatzea, baina hura ez zen inoiz deigarria izan niretzako. Oroimena nuenetik, nire kezkarik behinena aurreko mendean gertatutakoa estalgabetzea, zergatiak

ulertzea eta infernu horri bukaera ematea zen. Baina oraindik ez nekiena, infernua kupulatik kanpo hasten zela zen.

Nerabesarora heldu nintzenean ikerketa sakonak egiten hasi nintzen. Burbuila barruan gai hau tabu bezala ikusten zenez, etxeko itzalaren babesean gurasoek izugarri lagundu ninduten eta hondamendiari buruz hitz egin zidaten. Mundu mailako kataklismo horrek ez zuen bazter txiki bakar bat ere suntsitu gabe utzi eta milioika hildako konta zitezkeen. Mende oso batean zehar, gizakiak berak eragindako berotze globalaren ondorioz, lurraren oreka perfektua pikutara joan zen eta klima-aldaketak sinestezin bihurtu ziren. Gune beroetan txingorra eta elurra egiten hasi zen, tenperaturak tupustean behera egin zuen eta ondoren, ekaitz eta urakan amaigabeek pairaezin bihurtu zituzten lurralde horiek. Gune epel edo hotzetan, aldiz, lehorteak eman ziren, glaziarrak urtu ziren eta kostaldeak desagertu ziren.

Ezbeharrek mundu osoa izutu zuten, ingurumen-ekintzaileek eta zientzialariek horretaz guztiaz denei ohartarazi arren. Nire ustetan, begi-bistakoa zen, lurra inolako neurririk gabe ustiatzeak eta kutsatzeak bere ondorioak ekarri behar zituela. Gizakiak naturarekiko lotura guztiz apurtu zuen unea oso urrun zegoen, baina niri naturaren premia aseezina hezurretaraino iristen zitzaidan.

Aurkikuntza horietan nobilela, nire aitak bere amaren egunkaria eman zidan. Nire amona Maria ingurumenaren aldeko ekintzaile garrantzitsua izan zen. Emakumea izatea ez zen inolako oztopoa izan, baina banekien belaunaldi batzuk lehenago, egoera horrek emakume askori makina bat eragozpen sortu zizkiela.

Nire amonak, goian bego, hainbat eginkizun egin zituen izadiaren alde: galzorian zeuden hainbat animalia eta landareren alde gatazkatu zen, hainbat aldizkaritan poloen urtzea saihetsezina zela adierazi zuen... Emakume borrokalaria izan zen, baina ez zen nahikoa izan, munduak egiari lepoa ematen baitzion. Errealitate horren aurrean, Mariak egunkarian etengabe idatzi zuen, bere semeak, nire aitak, bere urratsak jarrai zitzaizkion, baina aitak, zeukana onartu zuen, kupulan bizitzea onartu zuen inolako kezkarik gabe.

Nik, ordea, ezin nuen patu hura onetsi, nik gauzak zeharo aldatu nahi nituen, Mariaren ametsa bete nahi nuen, nire ametsa bihurtu baitzen. Orduan Aritzengana jo nuen, bion artean zerbait lortzeko asmoarekin. Aritz baxua zen oraindik, ume-moko baten aurpegia zeukan eta bere besoak meheak ziren, hain zen argala mutil hura. Bere itxura alde batera utzita, interes komunak genituen eta gure jakingura, gogoak eta irmotasuna bat zetozen.

2118ko udan, dagoeneko helduak ginenez, gure zalantzak argitzen kupulako gobernatzailearen eraikuntzara jo genuen. Sanchez jauna hastapenetik denon gidaria eta salbatzailea izan zen. Hasieran aparteko gizona zela zioten, baina biztanleen eta baliabideen gaineko botereak usteldu egin zuen. Hura ikusi bezain pronto, harri eta zur gelditu nintzen. Bizitzaren sena galduta zeukan gizona zen, inoiz helbururik edo nahirik eduki ez balu bezala, esku artean zeukan whisky botila hura irenstea salbu.

Gure galdera amaigabeak erantzuteko asmorik ez zuenez, isiltzeko esan eta jarraian telebista zahar batean bideo bat jarri zigun. Bideoa hondamendiaren ostean egin zen eta gauza beldurgarri eta adigaitzez hitz egiten zuen: baliabide naturalen gabeziak eragindako gerra luzeek, hondakin erradioaktiboek, klase guztietako desmasia naturalek...

Gu ziti horren aurrean, Sanchez jaunaren axolagabetasun absolutua sentitu nuen. Alkohol botilako azken tragoa hartu eta zuzen begiratu zidan begietara, hurrengo esanez: "Ez



zuk ez inork ezin izango du, ezta milioika urtean, gizakiak eragin duen lohikeria konpondu!” Amorruek nire gorputza indarrez inbaditu zuen, ulertezina iruditzen zitzaidan zorigaizto horren aurrean nola ager zezakeen halako baretasuna, higuingarria zen.

Segundo batetik bestera nire bihotzean neukan izpiritu alai eta iraultzailea itzali egin zen, hondoa jo nuela sentitu nuen. Sasoi luze batean zehar ez nintzen ni neu izan, besteak bezain arrunta bihurtu nintzen. Gai hau alde batera uzten saiatu nintzen eta etxeko zereginak egiteari ekin nion.

Kupula barruko gailurrik gorenera igo nuen eta malkoen artean, amonaren egunkaria irakurtzen nengoela, gizon bat hurbiltzen ikusi nuen, Aritz zen. Aspaldi, ume-mokoa izateari utzi zion. Bere beso meheak sendo eta gihartsu bilakatu ziren, bere ume aurpegia heldutasun sakonean galdu zen.

Nire alboan eseri zen, isiltasuna nagusi zelarik. Begietara begiratu zidan eta haietan ordura arte hauteman ez nuen distira sumatu nuen. Konturatu gabe, musu eta laztanen artean, egunsentia etorri zen. Betidanik barnean bizirik iraun zuen maitasun gar hura askatu genuen iraganeko oroitzapen goxoetan murgiltzen ginen bitartean.

Une hartatik aurrera, Aritz eta biok bat izan ginen. Nire euskarri eta sostengu bihurtu zen eta alde batera utzita nituen idealak berpiztu zituen. Aurrera jarraitzeko, galduta neukan itxaropena eman zidan, nigan sinesten zuen eta nire ametsa betetzeko azken bultzada eman zidan.

Erabakita zegoela esan nion behin eta berriz nire buruari. Hainbat urtetan burumakur igaro nintzen eraikuntza ilun horren aurretik, baina goiz hartan, inoiz baino ziurtasun gehiagorekin joan nintzen Sanchezengana, behin-betiko nire zalantzak argitzeko asmoz. Bere bulegora indarka sartu eta halabeharrez, kupulatik kanpo zegoena erakusteko eskatu nion.

Hark, nire ausardia nabarmena zenez, bere atzetik joateko agindu zidan. Soldaduz inguraturiko kupulako ate bakarraren aurrean utzi ninduen. “Zure nahia da, ez esan ez nizula jakinaren gainean jarri.”, haiek izan ziren berarengandik entzun nituen azken hitzak.

Kupulatik kanpo irten baino arinago, babes-neurri guztiak hitzez hitz bete behar izan nituen. Erradiazioaren aurkako jantzia, oxigenoa arnasteko kaskoa eta eskularruak soinean nituela aho bete hartz gelditu nintzen ate erraldoi eta ikaragarri haren aurrean. Ezin nuen sinetsi gertatzeko zorian zegoena, azkenean ere, bizitzak benetako errealitateaz gozatzeko aukera eman zidan. Grinak nire gorputzeko atal guztiak inbaditu zituen.

Atea ireki eta hainbeste denboraz irudikatu nuen kolorez eta biziz beteriko natura, grisa eta goibela zen. Unibertsoak eskaini zigun perfekzio bakarra zeharo suntsitu genuen. Ezin nuen sinetsi begi aurrean neukana. Kupula barrutik kanpoan ikusten genituen arbolak, txoriak, landak, mendiak, lakuak... iruzurra besterik ez ziren, kromaketa elektronikoko bat, proiektzio bat. Guk ikusi nahi genuena erakusten ziguten, baina errealitatea eztabaidea zen.

Ordu bakar bat besterik ez nintzen egon, ezin izan nuelako bertan gehiago iraun. Irten eta Aritzengana abiatu nintzen. Begietara begiratzen geundela, oroimenez gogoratu nuen haietan lehen aldiz ikusi nuen distira berezia. Azken agurra mingarria izan zen eta masailetik malko bat erortzen neukala, bere ondotik betiko aldentu nintzen.

Guzti horrek nire bihotza birrindu zuen, nire argitasuna betiko itzali zen. Ordura arte ez nituen Sanchezen hitzak ulertzen, itxaropen eta bihotz gabeko pertsona batek soilik uler zezakeelako bere axolagabekeria. Momentu hartan atal guztiak puzzle bat balira bezala nire buruan ahokatzen hasi ziren, Sanchezen aholkuek, gizartearen isiltasunak eta errealitatearen proiektzioak zentzua hartu zuten. Katastrofe horren aurrean bizirik iraun zutenak lotsatuta zeuden eta hori ahazteko izadiaren garai onenak gogoratu besterik ez zuten nahi.

Hau nire bizitzaren istorioa da, betiko iluntasunera bultzatu ninduen istorioa. Noizbait gizadiak gatibutasun honetatik askatzea eta naturarekin berriro bat egitea lortzen badu, gogoratu atzeraezina izan zitekeen historia. Azken borondate gisa, zeuk, irakurle maitea, oraindik indarra badaukazu, har ezazu neure lekukoa eta zain ezazu Mundua deitzen diogun gordeleku zahar eta berdingabea.



**Eider Salegi Frutos**  
**BATX 2. Maila**

*“Ez dakizu zer daukazun galtzen duzun arte”*

## **HIL ALA BIZI**

Negua da. Abenduaren 26a zehatzak izateko. Astelehena, mundu guztiak gogoko duen egun hura, bai horixe. Baina astelehen hau desberdina da. Ez daukat goizeko orduetan jotzen duen iratzargailu gogaikarria entzun beharrik ezta berandu jaikitzearen ondorioz institutura garaiz iristeko presaka ibili beharrik.

Oheko izaren berotasunetik ihes egin, eta salto batean jaiki naiz. Egurrezko zoruak hotzikarak egiten dizkit oin oinutsetan. Eskailerak jaitsi ditut banan-banan haietatik txiribuelbaka erortzen ez naizela ziurtatzeko eta jarraian, sukaldera abiatu naiz...

Ama dago bertan, irribarretsu, eta kafe beroa eskuan duela egun onak eman dizkit. Bere belaunen gainean, munduko katurik itsusiena dago. Murrta zanpatua du eta begiak pepino ustelaren kolorekoak ditu. Karlak, ahizpa txikiak, Cloe izena jarri zion, primerako sagu-ehiztaria zela esanez. Ni gorrotatu egiten nau, edo ez da nitaz fidatzen. Urte batzuk pasatu badira ere, nik uste dut gogoratzen dela oraindik nola ito nahi izan nion bainuontzian, Karlak etxera ekarri zuenean.

Ni ikusi bezain laster, amaren altxo gozoetatik ihes egin eta ziztu bizian irten da sukaldetik. Jarraian, leihotik, paisaia elurtsua ikusten nengoela, aita eta Karla sartu dira sukaldera.

*-Elur eguna!-or*ro egin du aitak, esku batean egunkaria eta bestean Olentzerok erretzen duen moduko pipa dituela-

*-Elurrezko panpina bat egin nahi?-* galdetu dio Karlak aitari gogo biziz-

*-Ausarta zara gero -erantzun* dio aitak irribarretsu-.*Baina elur zentimetro txiki batzuk baino ez daude kalean, ez dago elurrezko panpina bat egiteko nahiko. Zer iruditzen bisitatxo bat egiten badiegu aitona eta amonari?*

Amak eta Karlak elkarri begiratu eta irribarre bat partekatu dute.

Aitona Felix eta amona Julia, Hondarribian bizi dira, gure etxetik, Donostiatik, 30 bat minutura. Txikitan, nik 4 urte nituela, sarritan joaten ginen haiei bisitatzeraz, eta gurasoak, amonarekin berriketan zeuden bitartean, nik, aitona Felixen alegiazko ipuinak entzutea nuen

gustuko. Hark bai duela irudimena, bai horixe. Baina Karla jaiotzea, baserri txiki hura bisitatzeko aitzakia bat izan zen, eta gaur egun, 18 urte ditudala, Gabonetan baino ez ditut ikusten aitona maitagarriak.

*-Etorreran merkataritza-gunetik pasa gintezke ezta?*-proposatu du amak, ni konbentzitu nahian.

*-Izozki-dendatik ere* -gehitu du Karlak niri begi-keinu bat eginez.

Eta ez da nik ez dudala nahi aitona bisitatzera joan...Autoa hartu dugun azken aldiz, (orain dela 3 hilabete izango zen) Bilborantz joaten gindoazela, bat-batean autoa gelditu zitzaigun, eta autopista erdian geratu ginen geldirik, tentelduta, ez genekiela zer egin.

Kotxera igo gara, Opel zahar batera, amonak oparitu ziguna Karlak 5 urte bete zituenean. Gurasoek nik gidatu nahi dudana galdetu didate, baina ezetz erantzun diet. Ez dut nahi istripu bat izan eta norbait zaurituta ateratzea nire erruz, ez oraingoz.

Aitak motorra pizteko hainbat ahalegin egin ostean, piztu da, soinu ito batekin. Jarraian, auto barruan joaten garen bakoitzean gertatzen den bezala, irratiaren jabe nor den erabakitzeko borroka sortu da. Amak, Euskadi irratia nahi du, momentuko albisteen berri izateko. Aitak Cope nahi du entzun. Karlak, nahiago du Pocoyo entzun. Nik, Gaztea irratia entzun nahiko nuke, baina familia rockzale baten jaio naizenez, ACDC taldearen kantekin konformatu behar naiz.

Elur apur bat dago errepidean, baina bustita bakarrik dago, gauza berririk ez. Izan ere, Euskal Herrian gaude eta hemen, errepideak, bustita egotea da ohikoena. Burua leihatilaren kontra jarri dut eta paisaia begiratzen jarri naiz. Zuhaitz eta zuhaixka berdeak elur-maluta txikiz estalita, errepide erdia behelainoz estalita, zerua hodei beltz astunez inguratuta....

Begiak itxi ditut, irratian dagoen “Highway to Hell” abestian kontzentratuta...Baina bat-batean...

Autoa guztiz suntsituta geratu da. 90km/h-ko abiadurarekin zihoan kamioi erraldoiak talka egin du autoko laguntzailearen aldearen kontra. Autoko ateak bortizki atera ditu eta bidaiariaren eserlekuak gidariaren lehatila zeharkatu du. Motorra bat-batean gelditu da eta arraroa badirudi ere, irratiak martxan jarraitu du “Highway to Hell” rock abestia nire belarri erdi gorretara heltzen ahalbidetuz.

Lurrean etzanda nago, elur-maluta txikiz estalitako lurrean. Begiak ireki ditut poliki-poliki. Eguzki-izpiek min ematen didate begi berdeetan eta dena lausotuta ikusten dut. Ahalegin izugarria egin, eta ahal izan dudana moduan jaiki naiz.

Hasieran, ezer larririk gertatu ez dela pentsatu dut. Oraindik irratia entzuten dut, baina istripu aurretik entzun nezakeen kanta bukatuta zegoen jada, eta orain “We will rock you” kanta dago irratian, oraingo honetan “Queen” taldekoa.

Nire arropari erreparatu diot; jarrita ditudan praka beltzek, jertse arrosak eta bota beroek etxetik irten garen moduan jarraitzen dute; odol tanta eta zauririk gabe.

Autora hurreratu naiz. -Ni errepidearen beste alderantz erori banaiz, familiako gainerako kideak ere erori behar izan dira autotik urrun-.Pentsatu dut.

Aitaren gorpua ikusi dut lehena. Autotik metro batzuetara dago, eta Olentzerok duen antzeko pipa dauka praketako eskumako poltsikoan. Harengana hurbiltzen saiatu naiz baina errepeidea itsaskorregi dago, kola pote bat gainera bota balute bezala.

-*Aita!!* -garrasi egin dut gorputz barruan geratzen zaizkidan indar guztiekin- *Aita!!*-berriz ere-. Baina erantzunik ez.

Jarraian, ama aurkitu dut. Ez du ia odolik gorputzean, baina ezpainak urdinduta ditu, aurpegiko azala zuri-zuri eta begien barrualdea gorri dauka. Gaur egun, jendeak ikusten dituen zombi-en film batetik aterata dagoela ematen du.

*“Karla aurkitu behar dut, Karla aurkitu behar dut”*. Horretan bakarrik pentsatzen dut momentu honetan. Etzanda egon naizen lekura bueltatu naiz. Esku bat ikusi dut luzatuta, *“Karlaren eskua izan behar du horrek”* pentsatu dut.

-*Karla!!*-egin dut garrasi-, *Nik aterako zaitut hortik, egon zaitetz lasai!*

Baina hurbildu naizenean, gorpu horrek, aitonak 6 urte nituenean oparitu zidan zintzilikaria daramala konturatu naiz. Goizean jarrita nuen. Nire lepoa begiratu dut, oraindik jarrita daukat.

Gehiago hurbildu naiz eta gorpu hori ez dela Karlarena ohartu naiz. Nirea da. Belarritik odola irteten zait, belauna okertuta daukat eta begiak itxita ditut.

Ez dut ezer ulertzen. Autoan lo geratu behar izan naiz. *“Amesgaizto bat da dena”* errepikatzen diot neure buruari behin eta berriz.

Askotan edukitzen ditut amesgaiztoak, batzuetan, itsaslabar batetik erortzen nagoela amesten dut edo munstro batek atzetik jarraitzen nauela, edota nire etxera hiltzaile bat sartuko dela pistola batekin, eta familiako 4rok, Cloe katu itsusia barne, tiro bala batez hilko gaituela. *“Esnatu, esnatu”* egiten diot garrasi neure buruari. Amets bat izan behar da...amesgaizto bat besterik ez.

Sirenak entzun ditut. Polizia eta suhiltzaileak heldu dira laguntzeko. Gorputzak ospitalera eramateko eta bertan sendatzeko etorri dira. Edo behintzat hori pentsatu nahi dut.

*“Hilda al nago?”*, *“Hilda al nago?”* galdetzen diot behin eta berriz neure buruari. Inork ez nau ikusten ez entzuten, baina nik dena ikus eta entzun dezaket, mamu ibiltari baten moduko bat naizela esango nuke.

Aitaren gorpua, plastiko berde batean sartu dute, eta norbait, amaren gorpua estaltzen ari da beste plastiko batekin. Karlaren gorpua autotik hurbil dago. Ile marroia, odolez tindatuta dauka eta ezkerreko besoa dislokatuta, haren hezurra agerian utziz. 20 urte baino gehiago ez dituen sendagile gazte bat ari da bere gorpua plastiko arrosa baten sartzen.

Nireak egin du. Ez aita ez ama ez Karla. Karla txikitxo joana da. Cleo katu itsusia bakarrik geratzen zait. Ezin dut sinetsi. *“Hau dena ez da erreala”* esaten diot buruari *“Etxeko ohe goxoan nago, siesta bat botatzen, besterik ez”* errepikatzen dut ozen burua konbentzitu nahian.

Suhiltzaileen konbertsazioan jarri dut belarria. Nire amari buruz daude hizketan. Amak jaso duenez lehenik kolpea, hura hil da lehen, eta horrek odol arrastorik ez egotea frogatzen du.

“*Hilda al nago?*” berriro galdetu diot berdina neure buruari.

Nire gorputza, errepideko ertz batean dago, hainbat medikuz inguratuta. Lurretik jaso, eta anbulantzia barrura eraman dute nire gorputza. Barruan andre ilehori bat dago, eta esku batekin, airea ponpatzen jarraitzen dio nire gorputzari bestearekin, gazura eta monitorea estutzen dituen bitartean.

*-Eutsi, neska -esan dit ahapeka-*.

Hilda egon behar naiz. Ez dut ezer sentitzen medikuek nire gorputza ukitzerakoan. Ez dut minik sentitzen, ezkerreko belauna okertuta dudan arren. Ez dut negarrik ere egiten, nire familiari gauza pentsaezin bat gertatu zaion arren. Hilda egon behar naiz.

Anbulantzia ospitale hurbilenera heltzean,-ez nire hirikora, baizik eta zaharren egoitza bat dirudien zonako zentro mediko batera- medikuek presati eramaten naute barrura.

Nire zauriek, gorputzeko hainbat organoei eragiten die.

Beso bat dislokaturik daukat, belauna okertuta, eta denetatik txarrena; kontusio zerebralak ditut. Bi saihestasun ere ditut apurtuta, eta hanketan eta aurpegian hainbat zauri ditut.

Kirofanotik pasatu ostean, tramautologiako berreskuratze gela batera eraman naute. Gelan nago bueltaka. Ohean etzanda dagoen eta nirea den gorputza begiratzen.

Galdera asko ditut, haienezako erantzunak laster aurkitzen ez baditut, buruak eztanda egiteko adina galdera. Ez nago hilda, izan ere, nire gorputzari loturiko monitorea oraindik zarataka jarraitzen duelako. Baina nire gorputzaren barruan ere ez nago. Joan al naiteke nik nahi dudan lekura? New Yorkera bidaiatu dezaket? Bisita dezaket Karla txikia?

Kriskitin egin dut eskuko atzamarrekin baina ez da ezer gertatu. Hemen jarraitzen dut. Hormara hurreratu naiz, mamu ibiltari baten modukoa naizenez, hormak zeharkatzeko gai izango naizela pentsatuz. Baina horrekin, hormaren kontra talka egitea, eta aurpegian zauri txiki bati bat egitea bakarrik lortu dut.

Bata zuri luze bat jantzita duen emakume bat sartu da gelara, eta munduko maitasun guztiarekin, nire gorputzari hizketan hasi zaio.

*-Entzun, neskatxo. Sara ezta? Hau dena zure esku dago, entzuten duzu? Zure esku dago hemen geratzea edo beste mundura joatea. Zure esku dago bizitzen jarraitzea edo hiltzea. Oxala zerbait egin ahalko banu zuri laguntzeko, baina zoritxarrez, dena dago zure esku - hori esanda, irribarretsu irten da gelatik-*.

Inpotentzia sentitzen dut momentu honetan. Bizitzera bueltatu nahi dut. Istripu aurretik nuen bizitza eta familia berreskuratu. Geratzen banaiz, bizitzen banaiz, dena nire esku dago.

Familia ia osoa bildu dut ospitalean. Aitona Felix eta amona Julia. Osaba Edu. Izeko Maya. Nire lehengusu txikiak, Idoia, Naiara eta Ibai. Amak lau neba-arreba zituenez, hainbat senide bildu dira eraikin barruan.

Asko poztu naiz nire lagun Aitana ospitaleko atetik sartu denean. Bere ile hori luze eta fina, motots erraldoi batean darama jasota, eta beltzez dator jantzita, norbaiten hileta itxaroten egongo balitz bezala.

Hura sartu da lehena gela barrura. Egurrezko aulki bat hartu du eta nire gorputz geldiarri hizketan hasi zaio. Txikitan bizi genituen hainbat pasadizo gogorarazi dizkit, adibidez, nola behin, taberna bateko komun batera sartu ginen. Aitanak txiza egiteko gogo handia zuen, eta hain larri zegoenez, ez zen konturatu komuneko tapa zarratuta zegoela, eta txiza egiten hasi zen haren gainean lasai-lasai... Gertatu zenaz ohartu zenerako, ipurdia eta hanka biak bustita zituen.

Hori gogorazten didan bakoitzean, barrez lehertzen naiz, hura bai oroitzapen ona, bai horixe.

Denbora luzez egon den arren hizketan, niri oso laburra egin zait bere egonaldia. Bere naturaltasuna atsegin dut, ezer pasatuko ez balitz bezala dagoelako nirekin berrikerian. Jarraian, begiak itxi ditu malkoak atxikitzeke eta eskuak igurtzi. Ondo pentsatu ondoren, berehalako erregu bat gehitu du.

*-Mesedez, ez zaitez hil. Ulertzen dut, hil nahi izateko arrazoiak edukitzea baina mesedez, geratu nirekin. Norekin egingo dut nik ba txiza gainean zurekin ez bada?*

Hori esanda, gelatik irten da, aurpegitik erortzen zaizkion malko batzuk garbituz. Hura besarkatzeko gogoia izan dut, baina ezinezkoa da, oraindik mamu ibiltari bat naiz.

Ospitale honetan ez dago argi naturalik. Ez dakit zer ordu den ezta zenbat denbora igaro den istripu beldurgarritik. Nire grafikoei begira egon den mediku bati jarraitu diot atzetik, isilik, zaratarik egin gabe, nahiz eta munduko garrasi handiena egingo banu ere, inork ez zidala entzungo jakinda.

Itxarongelan familiako denak daude lanpetuta. Amona josten dago. Aitona kuluxka bat egiten dago. Izeko Maya sudokuak egiten ari da. Nire lehengusuak nintendoran jolasteko txandakatzen daude.

Jarraian, medikua sartu da bertara, eta nire egoeraren berri eman die.

*-Bisita dezakegu Sara? -galdetu du aitona urduri-.*

*-Bai -erantzun dio medikuak-. Baina bi pertsona sar daitezke gehienez, eta bisita laburra izan behar da Sararen onerako.*

*-Gu sartuko gara -esan du amona Juliak pauso bat aurrera emanez-.*

Sinetsi edo ez, aitona eta amona oso ausartak dira. Aitona, osasun-langilea izan zen Gerra Zibilean. Eta amona beti egoten da animaliak salbatzen; hegorik gabeko txoriak, urtxintxa gaixoak, orein zaurituak.

Hala ere, ospitaleko azken solairuko ate automatikotik sartzean, biak batera, sinkronizatuta egongo balira bezala, gelditu egin dira. Arnas sakon bat hartu, eta aitona

amonari eskua heldu ostean, nire logelarantz abiatu dira, medikua haien atzetik zetorrela. Amona ohe guztietatik paseatzen ibili da nire bila, aitona Felixek nire ohea aurkitu duen arte. *-Kaixo sagutxu* -esan dit aitonak tonu goxoz. Harrituta geratu naiz; Karlaren adina nuenetik ez dit deitu izen horrekin-.

*-Sara, zure aitona eta amona zu ikustera etorri dira* -esan du medikuak-.*Orain, bakarrik utziko zaituztet.*

Biak jesarri dira ohe alboan dauden egurrezko aulkietan. Denbora batez, isiltasuna gorde dute. Jarraian, amonak isiltasun hori apurtu du. Bere baserriko arrosa eta tulipan moreetaz hitz egiten hasi da, bai, eta azkenaldi honetan negutegian landatu dituen bere tomate, patata eta beste hainbat barazkiez ere.

Aitona oso isilik dago, eta eskuak dardarka ditu. Ulertzen diot, oso zaila izan behar da nirekin hitz egiten egotea egoera honetan. Hasperen egin, listua irentsi eta niregana hurbildu da poliki-poliki, munduko lasaitasun guztiarekin.

*-Sagutxu-ahotsa hautsi zaiou. Listua berriz irentsi eta berbaldiarekin jarraitu du. Ez dago hitzik zuri gertatu zaizuna deskribatzeko. Ez dago ezer positiborik. Baina arrazoiak dituzu bizitzeko, borrokatzeko. Familia bat duzu hemen, zure zain. Oraindik ez dut zure gurasoei eta Karlari pasatu zaiena onartu...*

Aurpegitik etengabe erortzen zaizkion malkoak garbitu ditu alkondarako mahukarekin. Jarraian, arnasa sakon-sakon hartu eta azken esaldi bat ahoskatu du.

*-Sagutxu...ez zaitetz joan...-erregutu dit negar-zotin artean. Nire eskua gogor heldu du, eta txikitan abesten zizkidan sehaska-kanta horietako bat abesten hasi zait bere ahots goxoarekin: "Lo dago gure haurtxoa, sehaska goxo beroan..."*

Begiak itxi, eta kanta horretan kontzentratu naiz. Orduan zerbaitek eztanda egin du nire buruan. Zerbait pasatu da nire buru barruan. Nire bizitza diapositibetan ikusten nago.

Sukaldeko mahaiari nago, familiarekin, Karlari barre egiten, aurpegi osoa tomatez beteta duelako makarroiak jateagatik.

Amarekin nago, egongelako sofan, film bat ikusten. Biak erdi negarrez gaude, oso sentikorrek gara.

Aitona eta amonaren baserrian nago. Sutondoaren alboan, aitonaren istorio zoragarriak arretaz entzuten...

Bat-batean, aitonak, nire eskua heltzeko jarri duen indarra nabaritzen dut. Bere ahots goxoa benetan entzuten dut. Zerbait entzuten dudan lehen aldia izango balitz bezala sentitzen naiz. Indarra daukat gorputzean, indarra daukat hanketan, eskuetan...Jaikitze gaitzela uste dut. Soinu altu bat entzuten dut buru barruan. Denbora aurrera joan ahala, soinua gero eta gogorragoa da. Gor geratuko naizela uste dut...Ezin dut gehiago jasan, buruak leher egingo dit...

Garrasi batean esnatu naiz, izerditan. Oheko izarak busti-bustita daude, gau osoan zehar bota dudan izerdiagatik. Soinu ezatsegina jarraitzen dut entzuten. Izaretatik ihes egin, eta salto batean jaiki naiz. Goizeko 7retako iratzargailuarena da soinu ezatsegin hori. Institutura joan beharra daukat.



Baina horrek ez du axola. Dena izan da amesgaizto bat. Ezin dut sinetsi. Lehen gertatutako guztia ez da erreal. Munduko pertsonarik zoriontsuena naiz une honetan. Eskailerak, ziztu-bizian jaitsi ditut, haietatik txiri bueltaka erortzeak, jada, ez dit axola. Sukaldera heldu naiz eta bertan ama, aita, Karla eta Cleo aurkitu ditut. Ezin izan ditut malkoak ezkutatu.

Denei besarkadak ematen hasi naiz, aldi berean “maite zaituztet” esanez, eta Karlari, hainbeste musu eman dizkiot, ia aurpegia musuekin jan diodala. Nire bizitzan lehen aldiz, katu itsusia ikustean poztu egin naiz eta musu txiki bat eman diot sudurrean. Katua ez da hainbeste poztu nire musuarekin, eta alde egin du, egunero egiten duen moduan.

Familiako denak geratu dira harrituta. Sukaldetik irtetean, gurasoak txutxumutxuka entzun ditut.

*-Zein eltxok ziztatu dio honi? -galdetu du amak txundituta-*

*-Hormonak izango dira -erantzun dio aitak erdi nahasita-*

Bai, arraroa izan behar da beraientzat ni horrela ikustea, niretzat ere bada. Arraroa izan behar da bere sentimenduak inoiz erakusten ez dituen pertsona bat, tupustean, denei “maite zaitut” hitzak esaten ikustea. Baina beharrezkoa da hori egitea. Denok, nik barne, inguruan ditugun pertsonak gehiago baloratu behar ditugu...Ez dakizulako noiz gal ditzakezun maite dituzun pertsona horiek.



**Mainer Bengoetxea Regatos**  
BATX 2. Maila

## AGURRAK ETA ONGI ETORRIAK

Gogoan dut goiz hura, nire bizitza guztiz aldatuko zuen momentu hura. Negu gogorra jasaten ari ginen eta nire anaiak eta ni egurretan genbiltzan. Izugarritzko hotza egiten zuen, mendi goi aldera begiratzuz gero elurrak utzitako arrastoak ikus zitezkeen oraindik. Eskuak izoztuta eta guztiz gogortuta genituen, harrien pare. Egia esan, inork ez zuen lan edo bizi modu hori aukeratu, baina baserria aurrera eraman behar genuen eta guztien artean familia zaindu, batez ere Amak utzi gintuenetik.

Eguerdi parterantz ahizpa txikiena etorri zen gure bila, beti bezain irribarretsu, barruko karga eta min guztiak ezkutatu nahian. Nik ongi ezagutzen nuen Mari eta banekien amaren heriotzak guztiz apurtu zuela, baina berak ere bazekien ez genuela atzera begiratzeko denborarik; etxean hamahiru aho baitzeuden elikatzeko. Bederatzi urte zituen Maritxuk; nik ordea 19; baina izugarri maite nuen eta bera zen eguneroko lan gogorrari aurre egiteko arrazoi nagusia, bera, indarraren eredia.

Etixerako buelta bazkarian pentsatzen egin nuen eta tarteka nire anaien kantuak entzuten. Eтарыera heldu orduko narruzko botak kendu eta laneko jakak kanpoan utzi eta barrura sartu ginen. Momentu hartan “en la gloria” sentitu nintzen, beheko suaren berotasunaren eta salda usainaren artean gorputzeko min guztiak joan zitzaizkidan. Eguna ilun zegoen eta leihotik lanbroa besterik ez zen ikusten, baina etxea babesleku genuen. Mahai inguruan jesarrita geundela Aita sartu zen eskatzera:

*-Ia mutilak! Lagundu honek egur zatixek sutonduan izten.*

Egurak mugitzen genbiltzala beste ahizpak, Josefinak, hitz egin zuen:

*-Aitta! Eztakizu zertaz enterau nazen. Goixian jun naz albokuanera eta esan deust euren seme nagosixe Ameriketara doala.*

*-Lejano Oestera!- gehitu zuen Marik barreka-.*

*-Ixi umia! Geusa serixu de, harek behintzet zeuzer eingo dau bizitzi aurrera atarateko.*

*-Eta Karmelek... - bukatu zuen Josefinak. Guztiak begiratu genion eta jarraian isildu zen. Karmele ahizpa zaharrena zen, 28 urte zituen eta Ama hil zenean monja sartu zen konbentu batean-.*

Isilik hasi genuen bazkaria eta isilik bukatu . Baina nire burua ez zegoen isilik, Josefinak esandakoari bueltak eta bueltak eman nizkion, nire ingurukoak egongo ez balira bezala. Ez naiz Karmelez ari, lehenagokoaz baizik; Amerikaz.

Egun osoa igaro nuen horrela, mamuen antzera, nire gorpua bai baina arima beste nonbaiten balego bezala. Arraroa izan zen, inoiz ez nintzen urrutiko herrialde batetara joateko posibilitatean pentsatzen jarri eta gutxiago Ipar Ameriketara. Baina ideia hori buruan sartu zitzaidanetik ez nuen beste ezertan pentsatzen eta lurralde harrigarri eta misteriotsu hartaz amesteak zirrara eragiten zidan barnealdean. Nolakoa izango ote zen? Paisaia oso desberdina al da? Nola komunikatuko nintzateke?...

Hamaika galdera eta erantzunik ez. Baina banekien nork erantzungo zidan eta hurrengo goizean galdeka joango nintzaion.

Jaiki bezain laster “albokoanera” joan nintzen eta bertan aurkitu nuen Balendin gosaltzen. Egunonak eman guztiei eta kanpora ateratzeko keinua egin nion. Balendin gure auzokidea zen eta ni baino bi urte zaharragoa. Txikitatik ezagutzen genuen elkar eta urrutitik nabaritu zidan zertara hurbildu nintzen goiz hartan.

*-Esaiztenu -* esan zidan jarraian. Ez nekien nundik hasi baina galderak botatzen hasi nintzen eta lasaiki azaldu zidan dena-.

Gernikara joan zen eta han autobusa hartu zuen Bilbora. Bilbon enpresa batekin kontratua sinatu zuen. Enpresa hark kontaktua zeukan Amerikako beste batekin eta hara bidaltzen zituzten euskal gazteak lanera. Esan zidanaren arabera, ez zen askorik ordaindu behar, hegaldia zen gehien balio zuena, gainontzekoa (ohea, janaria...) lanaren truke ematen zuten. Balendinentzat ere niretzako bezain ezezaguna zen herrialde hura, eta ezagutza ezak beldurra ematen ziola aitortu zidan. Neuk ere aitormena egin nion: Amerikara joan nahi nuela bizi-modu hobea baten bila.

Etxean hitz egin ostean Balendinek adierazi bezala Bilbora joan nintzen. Ez zidaten inongo trabarik jarri, ordaindu beharrekoa ordainduz gero edonor zen ongi etorria. Egia esan, ez zitzaidan asko gustatu tratatu ninduten modua, ez baitzizkidaten oso ondo azaldu gauzak, ezta argibiderik eman hara heldutakoan egin behar nuenaz, baina tira, kontratua sinatu nuen. Ez zidaten zehaztu zertaz edo non lan egingo nuen, baina Nevada estatuko Elko herrira bidali ninduten.

Heldu zen eguna, 1941eko Apirilaren 13a. Negar malkotan agurtu nuen familia, guztiak zeuden betilun eta triste, Maritxu batez ere. Ez genekien bueltatuko banintzen, ez genekien berriz elkar ikusiko bagenuen... baina nik nire eskuetan zegoen guztia egingo nuen gure baserri maitera bueltatzeko.

Sondikan hartu genuen hegazkina Nevadarantz Balendin eta biok, gure herriko batek eramane gintuen, senide baten bila joan behar baitzuen hark ere. Hegazkineko atea pasatzear nengoela zerbaitek geldiarazi ninduen, herriarekiko loturak edo, baina azkenena aurrera egitea erabaki nuen. Hamar ordu bueltako hegaldia izan zen hura, ba hamar ordutik hamaika eman nituen komuneko tapari itsatsita sabela husten. Nire inguruan Balendin nuen ezagun bakarra eta honek lo eman zuen bidai osoa. Beste guztiak dirudunak ziren, pijo hutsak, Bilbotarrak agian. Guztiek hitz egiten zuten erdaraz eta nik erdaraz justu-justu nekien, kili-kolo hobeto esanda. Lehen aldia zen bidaiatzen nuena, inoiz ez nintzen Gizaburuagatik harago atera,

bueno, Gernikara eta Lekeitiora noizean behin; Bilbora ere lehen aldiz kontratua sinatzeko joan nintzen!

Azkenik heldu ginen. Aireportuko sarreran Amerikar itxura zeukan gizonezko bat geneukan itxaroten: altua, ez oso argala eta ile argikoa. Ez zeukan atseginaren itxura, baina ez genuenez hitz bat bera ere ulertzen, berdin zitzaigun. Esku artean kartel bat zeukan eta hitz guztien artetik “basque” soilik ulertu genuen. Hau nahikoa izan zen gu berarekin joateko.

Lehendabiziko gaua Elkoko ostatu batean pasatuko genuela ulertu genion eta hala izan zen. Gure harridurarako hoteleko jaunak egin zigun harrera eta honek euskaraz hitz egiten zuen, ederki gainera. Jakinarazi zigunez, Nafarra zen eta hamar urte zeramatzan Elkon. Artzain lanaz nazkatuta ostatu bat irekitzea erabaki zuen, Euskal Herritik zetozen gainontzekoei laguntza eta argibideak emateko. Asko eskertu nuen euskaldun bat aurkitzea, jada zoratzen hasia bai nintzen ingelesarekin. Eta ez bat, gu bezala joandako hamar bat euskaldun ere ezagutu genituen, batzuk urteak zeramatzatenak, beste batzuk berriz asteak.

Goiza iritsi zenean Balendin eta biok maleta hartu eta beheko solairura jaitsi ginen. Bertan bi gizon zeuden gutaz galdezka. Hoteleko jaunak itzultzaile egin zuen eta horrela konpondu ginen. Azkenik bakoitzari lan egiteko toki bat egokitu ziguten. Nik pentsatzen nuen biok egongo ginela toki berean, eta nahiko golpe gogorra hartu nuen. Balendinek esan zidan lasai egoteko, Elko herri txikia zela eta lana bukatzean egunero ikusiko genuela elkar tabernaren baten. Onartu egin behar izan nuen. Kontratua hartu eta autoan sartu nintzen. Gizonek emandako sobrea ireki nuen eta nire lantoki eta bizitoki berria zein izango zen deskubritu nuen: Buffalo Ranch. Izenak berak ere errespetua ematen zuen!

Kontratuan adierazi bezala cowboy lanetan arituko nintzen; hau da, behiak zaintzen. Baina ingeleseko hitz hori erabiltzea gustuko dut oraindik, lan sofistikatua goa edo garrantzitsuagoa ematen baitu.

Rantxora iristean paisaiarekin liluratuta gelditu nintzen: larre horiak, lautada luzeak, mendiak... Izugarria zen, hori bai, ez dago ezer Euskal Herriko mendiak bezalakorik.

Buffalon Brown familia bizi zen, bikote batez, bi semez eta alaba batez osatuta. Hasiera batetik etxean bezala sentiarazi ninduten. Hiru aste inguru eman zizkidaten egokitze, ingurua ezagutzeko, ingelesera ohitzeko ... Eta azkenean lanean hasi nintzen. Lana urtaroen arabera banatu zidaten: udako hiru-lau hilabeteak mendian ematen nituen bakarrik. Karro batean eramaten ninduten eta bertan egiten nuen lo. Bi asterik behin familiakoren bat etortzen zen elikagaiak, ura, arropa ... ekartzera. Hilabete hauek ziren gogorrenak, bakardadean igarotzen nituenak. Hasieran behintzat beldurra pasatzen nuen, batez ere gauetan, behiak koioteen eta kaskabel sugeengandik babestu behar baintuen, bueno, baita nire burua ere! Baina azkenean ohitu egin nintzen eta bakardadea maitatzen ikasi nuen. Egunak antzekoak ziren: jaiki, gosaldu, behiak larrez aldatu, bazkaldu, larrean etzan ... Bigarren urtean beste tipo batekin topo egin nuen Elkoko mendietan, bera ere ni bezala cowboy lanetan zebilen. Tipo xelebrea iruditu zitzaidan Oytes hasiera batean, azal gorrixka eta ile luzea zeuzkan eta niregana hurbiltzean esandako lehen hitza “jao” izan zen. Berak azaldu zidan bannock arrazakoa zela, amerikar natiboa, eta beraiek beti aritu izan zirela animalien zaintzan eta landare eta senda belarren bilketan. Asko ikasi nuen beragandik eta oso lotura estua egin genuen. Gainera jada ez nintzen bakarrik egoten udako hilabete luze haietan eta egunak entretenigarriagoak egiten zitzaizkidan. Oytesek sekula ez zidan esan zergatik etorri zen ni bezala ranchora lanera, bere familia eta lagunak atzean utzita, eta ni ere ez nintzen ausartzen horri buruz galdetzera. Baina egun batean dena ulertu nuen.

Udako iluntze bat zen, herrian egon berri ginen eta gurdia hartuta mendira abiatu ginen, udako hilabeteak kanpoan ematera. Mendian gora gindoazela Oytes eskerrak ematen hasi zitzaidan, beragatik egin nuen guztiagatik, laguntasunagatik... nik ez nuen ezer ulertzen, ez nekien agur itsurako hitz haien zergatia zein zen... Goialdera heldu ginenean, besarkada bat eman, gauzak hartu eta alde egin zuen, eguzkia ezkututzen ari zen alderantz, basoko iluntasunaren bakardadean utzi ninduelarik. Egun batzuk igaro nituen aurreko eguneko gertakari horri bueltak ematen. Lau egun geroago ejertzitoko patruila bat nire bizitokirantz igotzen ikusi nuen urrutitik, arraroa egin zitzaidan eta jarraian nabaritu nuen Oytesekin zerikusia izango zuela. Eta halaxe izan zen. Jeneralak jakinarazi zidanaren arabera, Oytes iheslaria zen, bere herriaren askapenaren alde borrokan parte hartu zuenetarikoa eta mugimendu horren lider nagusienetarikoa. Mila galdera egin zizkidaten eta haren argazki bat erakutsi eta nik galderak erantzun egin nituen, beste gauza bat da egia esan ote nien edo ez. Banekien Oytes ez zela kriminal bat, oso ideal eta balore onak zituen eta bere herriaren alde edozer egiteko arrazoiak izango zituen beraz, nola edo hala laguntzen zaiatu nintzen. Zor nion. Ez dakit sinetsi bazidaten edo ez, ez dakit zer gertatu zen Oytesekin... baina bi egun geroago tiro hotz batek esnatu ninduen gau erdian.

Uda bukatzean ranchora bueltatzen nintzen, negu gogorra pasatzera. Oso temperatura baxuak jasaten genituen eta elurra egiten zuen ia egunero, baina guk lanean jarraitzen genuen euri zein aterri. Lanaldia bukatzean tabernetara joaten ginen eta bertan batzen ginen euskaldun guztiak, baita Balendin ere. Nahiz eta euskaldunak gure artean bildu, Elkoko biztanleekin oso harreman ona geneukan, pertsona langile eta zintzotzat gintuztelako. Hitza emandakoan bete egiten genuen eta beraiek hori asko eskertzen zuten.

Horrela pasatu zitzaizkidan lehenengo lau urteak. Ordura arte ez nuen familiako inoren berririk izan, nahiz eta hiru hilero gutun bat bidaltzen nien. Suposatzen dut ez zitzaizkiela helduko, hegaldi luzeetan sarri galtzen baitziren ...

Baina, espero ez nuen egun batean ranchoko atea jo zuten. Atea irekitzean gorputzeko gihar guztiak gogortu zitzaizkidan eta zainetan barna zihoan odola izoztu. Ezin zen egia izan nire begiek ikusten zutena, ezin nuen sinetsi.

*-Esaixu zozer ba!* - esanez besarkatu ninduen nire anaia Martinek. Ez nekien zergatik eta zertarako etorri zen, baina momentu hartan ez nuen horretan pentsatu; nire anaia nirekin zegoen! Denbora luze eman genuen hizketan; lau urteren ostean asko geneukan elkarri kontatzeko. Esan zidan hamar egunerako etorri zela, ez zutela nire berririk izan denbora guzti hartan eta nola nengoen jakin nahi zutela-

Hurrengo goizean behiak larrez aldatzen lagundu zidan. Momentu batez Martini begira gelditu nintzen: beti bezala zegoen, ez zen aldatu, baina bere begiradan zerbait susmatzen nuen, eta banekien ez zela ona. Bukatu genuenean etxe aurreko harrizko eserleku batzuetan eseri ginen. Bat-batean Martini malko batek ihes egin zion masailetik behera eta orduan ulertu nuen zertara etorri zen.

*-Maritxu pneumonixek jota hil zan oindala hiru hilabete* - Momentu hartan isilik gelditu nintzen, zer esan jakin gabe. Esaldi hura nire bihotza zulatu zuen bala bat izan zen. Maritxu, nire arreba txikia, jada ez zegoen gurekin, ezin izango nuen berriz besarkatu, bere barrea berriz entzun ... logelara sartu nintzen, atea itxi, ohean sartu eta argia itzali nuen-

Triste xamar pasatu nituen hurrengo egunak, baina nire anaiarekin egon nahi nuen gelditzen zitzaizkion egunetan, bai nirekin Ameriketara eta bai bizitzan. Zerbait edo norbait

galtzen dugunean normala da buru makur egotea, baina ezin dugu bizitza guztia triste pasatu, oraindik ditugunez disfrutatu behar dugu, joan direnez oroitzuz noski, baina beti ere aurrera begiraturaz.

Gogoratzen dut Martinek azken egunean esan zidana, hasiera batean komentario tuntu hartu nuena:

*-Eta neskarik badaukozu? Ordu de parienti topauteko!*

Nik barre egin nuen, ordura arte ez bainuen horretan pentsatu.

*-Ba jakin deizun Gizaburun badauela soltera bat, Hiruhartzako Miren, zure edade bueltaku. – Azken honekin bukatu zen gure hizketaldia.*

Aireportura bueltatu baino lehen etxeko helbidea eman zidan berriz, ea oraingoan gutunak heltzen ziren, eta familiakoen pare bat argazki eta gutun utzi zizkidan. Penarekin agurtu nuen Martin eta logelara abiatu nintzen. Gutunen sobrea irekitzera joan nintzenean gure etxekoa ez zen helbide bat aurkitu nuen, Hiruhartza baserrikoa alegia. Nire gelako bakardadean barre algara bat atera zitzaidan. Martinek Mirenen berri eman zidan, baina honek ez zekien Miren eta ni ondo baino hobeto ezagutzen ginela, Ameriketara etorri aurretik herriko jaietan dantzatzera atera nuelako eta ordu pare batez hizketan egon ginelako. Neska oso atsegina zen, bihotz onekoa eta zeharo maitagarria. Gainera, izugarrizko indarra zeukan eta ez zen lotsatzen ezertaz, pentsatzen zuen guztia esaten zuen. Beti zeukan irribarrea ahoan eta horretan Maritxuren antza hartzen nion. Martinek arrazoia zeukan, herrira bueltatzean jada gizon bat izango nintzen eta egokiena ezkontzea izango litzateke.; aittak ere horrela nahiko zuen.

Papera eta luma hartu nituen eta etxe aurrean eseri nintzen Mireni zerbait idazteko. Esan beharra daukat ni ez nintzela oso erromantikoa eta asko kostatzen zitzaidala nire sentimenduak adieraztea; nahiko "sikua" nintzen. Baina saiatu gabe ezin da irabazi, beraz, ahal izan nuen bezain hoberen idatzi nion. Nire harridurarako gutuna iritsi zitzaion eta jarraian erantzun zidan. Bere gutunean poztasuna nabari nezakeen, denbora luzez nire hitzen zain egon zelako. Aitortzekotan, nik ere sarritan amestu nuen berarekin ...

Bi urtez egon ginen gutunak bidaltzen elkarri. Hasiera batean hiru hilero idazten bagenion elkarri, azkenean hilero idazten genion eta gero eta pasio gehiagorekin. Konturatu gabe, maitasuna heldu zitzaigun bioi. Bere azken gutuna irakurri nuenean argi ikusi nuen egin behar nuena, ezkontzeko eskatu. Eta horrela izan zen. Mirenek pozarren onartu zuen nire eskaria eta dena prestatuta zegoenean, herrira bueltatu nintzen.

Pentsatzen nuena baino askoz urduriago nengoen Sondikara iristean. Oraingo hegaldia ez zitzaidan hain gogorra egin, dagoeneko ez zen lehen aldia eta! Baina bakarrik egin nuen aldiz, Balendin Elkon gelditu baitzen. Maleta hartzeko itxaroten nengoela, norbaitek eskua jarri zidan lepoan, esku handi eta epela. Banekien nor zen. Buelta eman nuen eta Aitta ikusi nuen. Zahartuago zegoen eta apur bat argalago, baina osasuntsu nabaritu nuen, ezin gehiago eskatu sei urte eta gero!

Gizaburuagara heltzean herriko tabernara joan ginen herrikoak agurtzera eta bertan Mirenen aita aurkitu nuen. Hasiera batean lotsa puntu batekin hurbildu nintzaion, baina jarraian hartu genuen konfiantza eta ez zuen inongo arazorik jarri Miren eta nire artekoan.

Tabernatik etxera joan ginen zuzenean, ezkontza hurrengo egunean baitzen eta ezin bainuen Miren ikusi denbora horretan, tradizioak hala zioen eta ... Familiakoek algaraka eta

zarataka egin zidaten harrera eta afari itzela egin genuen, Gabonak izango balira bezalaxe! Mahaian geundela komunera joan nintzen eta bueltan atearen atzealdetik gelditu nintzen begira, haiek ikusi ezin ninduten tokitik. Guztiak zeuden alai eta kantari eta ni ere hala sentitzen nintzen, baina mahaian toki bat hutsik zegoen, aulki bat inor eseri gabe, norbaiti itxaroten egongo bagina bezala ... eta nik benetan bueltatzea nahi nuen. Jada ez ginen hamahiru, hamabi baizik, baina hutsune hori azaldu ezina zen. Maritxu behar nuen.

Afal ostean tabernara bueltatu ginen Martin eta ni, besteek nahiago izan zuten hurrengo egunerako indarrak hartzeko lotan gelditu. Trago artean pasatu genuen gaua eta horregatik luzatu zitzaigun gero etxerako bidea, ezin genuen bidea zuzen jarraitu eta!

Goizean pixka bat zorabiatuta esnatu nintzen, baina dena kontrolpean eraman nuen eta oso ondo atera zen guztia. Ezkontza xumea izan zen, baina oso berezia Miren eta biontzako. Senideak eta betiko lagunak gonbidatu genituen. Iluntzean egin genuen, Mirenek nahi bezala, afaria jan eta herriko jaietan behin entzun genuen taldeak berriz jo zuen. Eta gero ... ai, gerokoa. Hogeia egun eman genituen bidaiatzen: Sevilla, Salamanca, Santiago ... Paris bakarrik faltatu zitzaigun! Nire bizitzako hogeia egun onenak izan ziren, Mirenek oso zoriontsu egiten ninduen.

Eztei bidaia bukatzean Elkora bueltatu nintzen. Mirenek penaz agurtu ninduen, baina ulertu egin zuen, lana bukatu beharra neukan eta diru nahikoa izandakoan bueltatu egingo nintzen. Ez nuen denbora asko egingo, beste bi urte edo ...

Beti bezala jarraitu nuen Buffalo Ranchen, Mirenengan gehiago pentsatzen baina bueno, pozik. Bere gutunak ez zitzaizkidan faltatzen, baina bueltatu nintzenetik lau bat hilabetera zerbait susmatzen hasi nintzen. Ez nekien zergatik baina Miren ez nuen guztiz zintzo ikusten, zerbait ezkututzen egongo balitza bezala. Urte bete geroago ausartu nintzen behingoz nire susma Mireni azaltzen. Bere erantzunak lasaitu egin ninduen, baita jakin mina piztu ere. Hala zioen gutunak:

*“Neure Jesus maitea, Iñoz baño gehiago sentitzen dot zeure utsunea, egunero eskatzen deutzat Jangoikoari bueltan etor zaitez. Ulertzen dot zeure kezka, badakit zeugaz ez nagoela betiko legez, zozer aldatu da eta. Baña ez txarrera, onera baño! Ez dotzut kontau gura, ez neukelako gura onegatik bueltau bear izetea eta zeure lana erdixka istea.. Kezka barik egon faborez. Sentitzen dot ez badeutzut guztiz argi berba egiten, eskubide osoa dozu honen barri izeteko, baña bueltan zatozenean ulertuko dozu. Asko gura zaitzut.*

*Biotzez, Miren.”*

Gutuna irakurri bezain laster argi ikusi nuen etxera bueltatzeko unea zela. Urte bat eta bost hilabete pasatu ziren bueltatu nintzenetik eta dagoeneko nahikoa nuen. Gauzak hartu eta bueltan etorri nintzen.

Elko eta Buffalo uzterakoan, tristura batek besarkatu ninduen, lehendabizikoz herria utzi nueneko berberak. Azkenean zazpi urte baino gehiago eman nituen bertan, gainera gatzetxo izatetik heldu izatera pasatu nintzen eta bizipen hartatik dena ikasi nuen, bizitzen ikasi nuen. Nire bihotzaren zati bat bertan gelditu zen betirako.

Miren besarkatzeko gogoz egin nuen etxerako buelta. Sondikan jaitsi nintzenean ez nuen inor ikusi eta kanpoaldera joatea erabaki nuen. Atetik ateratzear nengoela ahots xume batek nire izena ahoskatu zuen eta jarraian begiratu nion. Begiratzearekin jakin nuen bere arraro egoteko arrazoia. Arrazoia esku artean zeukan, manta batez estalia. Ezer esan gabe hurbildu

nintzaien eta pixkanaka begiak bustiz joan zitzaizkidan. Besoetan haurtxo txiki bat zeukan, lo zegoen goxo-goxo, zortzi bat hilabete zituela kalkulatu nuen gutxi gora behera.

Ederra zen irudia, betirako geldituko nintzake momentu hartan. Mireni begiratu nion eta bera ere negarrez ari zen, betiko irribarre polita jantzita ala ere. Biak besarkatu nituen eta Mireni muxu eman nion. Askatu ostean honako hau esan zidan:

*-Hau zure alabi de, Mari dauko izena; Maritxu geuretzat.*

*-Aupa Maritxu, welcome!-* oraingoan niri tokatu zitzaidan ongi etorria egitea.





**Mainer Serrano Ezquiaga**  
**BATX 2. maila**

## **GAUA DA ETA LASTER ARTE, MAITIA**

### ***Gaua da***

Gaua da,  
nabari da iluntasuna,  
Ez zaude,  
Eta heldu da isiltasuna

Gaua da,  
Galdu da hurbiltasuna,  
Krisi arrotz honetan,  
Sentitu dut urritasuna

Gaua da,  
Heldu da oroitzapena  
Zu joan zarenetik  
Desagertu da gozamina

Gaua da,  
Ametsek ez dute zentzurik  
Ezin izango dut  
Sentitu zure muxu gozorik

Gaua da,  
sentitu dut egonezina  
Zure hutsunea da  
zauri guztien mina

Gaua da,  
Izartu da ilargia  
Unibertsoari eskatzen diot  
Sortu dezala miraria

Gaua da,  
Bukatu da eguna  
Nire albotik joan zara  
Aita ez ezik, laguna

Gaua da,  
Egunak aurrera joan dira  
Larregi pentsatu dut  
Zure begien distiran

Gaua da,  
Orain inoiz baino gehiago  
Oihukatuko dut aita  
Zure alaba dagoela harro

Gaua da,  
Eta honen iluntasunean,  
Esaten dizut aita,  
zaudela beti nire bihotzean.

### *Laster arte, maitia.*

Eguna heldu da  
Eta honekin, unerik latzena  
Etxera heldu bezain laster,  
Hartu dut mezurik gogorrena.

Jada ez zaude nire ondoan  
Baina, beti sentitzen zaitut alboan  
Haizearekin joan zara, uda beroan  
Beti izango zaitut aita, nire gogoan.

Gau ilun honetan,  
Beste guztietan bezala  
Jainkoari eskatzen diot  
Berriz ekarri zaitzala.

Nire kanta guztietan,  
Zinen inspirazio guztien iturri,  
Amets gaizto horietan,  
Zurekin ez zegoen beldurrik.

Bizitza madarikatu honek,  
Eramaten ditu lorarik ederrenak,  
Horregatik joan zinen zu,  
Nire bizitzako gauzarik hoberena.

Jada ezinezkoa zait  
Izatea maitasun sentimendurik  
Zeruan zauden bitartean,  
Zertarako egongo naiz bizirik?

Gau hotz honetan,  
Nabil hizketan ilargiari,  
Bere orde z jarri zaitezene zu,  
Nire eguneroko zaindari

Beti izan zara aita,  
Nire bihotzeko maitasun.  
Nire guduen ostean,  
Agertzen den poztasun.

Maite zaitut zarelako  
itsasoa argitzen duen itsasargi,  
miresten zaitut zarelako  
Gaua esnatzen duen ilargi.

Zuretzako aita,  
Lortuko dudan guztia  
Behin esan zenidan bezala,  
Laster arte, maitia.



**Ziortza Barruetabeña Erdaide**  
**BATX 2. Maila**  
*“Aske sentitu aske izateko”*

## ASKE

Ni eta zu,  
Zu eta ni.  
Maitaleak,  
elkarren osagaiak  
eta aldi berean, bata bestea bezain independente eta osoak.  
Elkarren zati bat gara.  
Zati beharrezko bat,  
baina ez dakit ze puntutaraino heltzen den beharrizan hori.  
Dependetzia hori.  
Banako oso baten beharrizana  
Ez zati, ez erdi,  
Oso baten beharrizana,  
Bere bertute eta defektuekin.  
Garbi dagoena da,  
norbera bakarra dela,  
libre eta askea,  
osoa,  
eta inoren beharrizanik gabe bizi gaitzkeela,  
bizi behar dugula,  
baina askotan zaildu egin ohi zaigu eta  
dependenzian erortzeko ohitura dugu.  
Norbaiten beharrizana sentitzeko beharra.

Hemen gaude,  
Gure hondartza kuttunenean.  
Hondarretan oinutsik,  
Gure oinatzak utziz,  
Eta itsasoa  
Olatuz olatu,  
gure orkatilak ureztatzen bortizki,  
zakar,  
gure urratsak eta oinatzak  
berarekin eternitatera eramanez.  
Eta gu,  
Gu ilusiotan murgildurik.  
Hodei zuri eta gozoetan  
lo-kuluxkan bageunden antzera.  
Elkarri helduta,  
Besarkatuta,  
Besarkada bukaezinean  
Izarrez estalitako zeru beltzaren azpian.

Zeure enbor koloreko begi handi eta xaloak,  
neureen pare,  
zeure tontordun sudur txikia,  
neurearen pare,  
eta zure ezpain bigun eta zaporetsuak,  
neureen pare,  
neure kobazulora sartzeko desiratzen.  
Elkarren aurrean,  
Elkarren pare.  
Begietara begira,  
Ortzimuga ikus dezaket  
Zure begietan islatuta,  
zerua eta itsasoa batzen diren marra hura

marra amaigabe hura.  
Zure begietako itsaso zabalean gal gaitezen nahi dut,  
Asmatu gabe nora goazen.  
Noraezean,  
Txori askeen pare.

Biluztu nahi zaitut,  
amestu nahi dut.  
Azala azalaren kontra jarri eta  
larruazalari jolasten utzi.  
Gerta dadila geratu beharrekoa.  
biharra urrun dago,  
ez diezaiogun utzi biderik biharko damuari,  
ames dezagun.  
Ames dezagun elkarrekin,  
eta goza dezagun momentuaz  
elkarrekin egindakoa,  
elkarrekin amestutakoa,  
elkarrekin bizitakoa,  
inork ken ez diezagun.  
Gertatutakoa,  
zerua eta lurra batzen dituen marra amaiezin hori bezalakoa izango da.  
Infinitua.  
Eta nork jakin zer garen,  
zer ginen,  
eta zer izango garen.  
Biok soilik jakin dezakegu,  
Beraz, utz dezagun suspense hori  
Gure bizitzen bukaerara arte  
Eta goza dezagun txori haiek bezala.  
Goza dezagun aske.




**Emilia Albizuri Arrotegui**  
**HHI-EPAko ikaslea**

*“Eskerrik asko, Mari Belasko! Okela gutxi eta salda asko”*

## SASOIAN EGOTEA

Gaur egun sasoiari egoteari garrantzi handia ematen zaio; gure gorputza ondo zaindu eta forma onean eduki. Baina askotan larregikeriak egiten ditugu, eta hortik sortzen dira arazoak. Elikagai ugari daukagu eskura eta ez baditugu kontrolatzen kaltegarriak izan daitezke, bai fisikoki, bai psikikoki. Ondorio kaltegarriak ez dagigun izan, gure gorputza kontrolatzen ikasi beharko genuke.

Ez dugu denok modu berdinean ikusten sasoiari egotea. Banaka batzuentzat sasoiari egotea, bizitza osasuntsu eta zoriontsu bat izatea da; larregikeriarik gabe, janaria zainduz, kirol gustuko bat eginez, eta ahalik eta lasaitasun handienarekin bizi eta ahal bada, erretiro sasoiari gozatu.



Ez da erraza izaten osasuntsu bizitzea. Janaria arin-arin prestatzeko erraztasuna ematen diguten produktu asko ditugu merkatuan; etxera eramanez, mikrouhin labeetan sartu eta prest! Janari hauek ez direla hain osasuntsuak, jakin badakigu baina ez badira kontrolatzen eta egunero-egunero jango bagenu gizentasun arazoak sortuko liriteke gure gorputzean, eta hori gertatzen denean kirol arloa jotzen dugu, kirola eginez gizentasuna kontrolatuko dugula pentsaturik. Baina kirola bera ere neurrian egin behar dugu, zeren eta kirolaren larregikeriak ere arazoak eman ahal dizkigute, eta sasoiari egotea gustukoa badugu, larregikeriak albo batera utzi beharko genituzke.

Badaude asko eta asko, mota bateko janariak jaten dituztenak ortuariak eta frutak esaterako, haragia eta arraina alde batera utzita, gorputzarentzat hain onak ez direla uste dutelako. Baina horretarako ere jakin beharko genuke zein barazkitan aurki ditzakegun bai haragiak, bai arrainak duten beste proteina; proteinak oso beharrezkoak baitira gorputza osasuntsu eta sasoiari jagoteko.

Bene-benetan kaltegarriak diren produktuak eta gaitzak badauzkagu gure egunerokotasunean, adibidez, estresa, tabakoa, alkohola, edo eta gasdun edariak. Kontu handiz ibili behar hauekin!

Sasoiari egotea uste dut, denontzat dela onuragarria baina lehenengo ikasi beharko genuke geure gorputza kontrolatzen larregikeriak albo batera utzita, bai janari aldetik bai kirol aldetik.





**Leire Crespo Beistegui**

**HHI-EPAko ikaslea**

*“Bakoitzak bere zoroa bizi du”*

## **SINESKERIAK, EGIA ALA GEZURRA?**

Sineskeriak arbasoengandik datozkigun usteak, beldurrak, tradizioak eta abarrak dira; ahoz aho jasotzen diren istorioak. Gizon eta emakume nagusiek sineskeria asko kontatzen zizkiguten txikitan, guri beldurra eman eta sinestarazteko. Belaunaldiz belaunaldi ahozko tradizioaren bidez bide luzea egin ondoren, sineskeriak gure artean dabilta gaur egun. R.M. Azkueri esker, aintzinako sineskerien berri dugu; herriz herri ibili baitzen tradizio eta ohiturak ezagutzen.

Leku guztietako sineskeria ohikoenak hauek dira: katu beltza ikustea, eskailera azpitik pasatzea, kristala haustea, gatza erortzea, hamairu zenbakia...Sineskerietan sinesteko arrazoia beldurra da horregatik, beldur horri aurre egiten laguntzen duten hainbat tresna ditugu: eskumuturrekoak, apaingarri bereziak, kolore biziak (horia izan ezik), amuletoak, eguzkiloreak, irusta belarra....



Sineskeria hauekin lotutako istorio batzuk gogoratuko ditut:

- Izpilua erdibitzen bada gaixotasun txar bat datorrela diote.
- 13 zenbakia: Jesusen Azken Afarian hamahiru ziren, baina batek heriotza trajikoa izan zuen.
- Azpiko arropa atzekoz aurrera janztean, ustekabeko oparia jazoko duzu.
- Aterkiarekin ez zaitetz etxera sar bestela, urte beteko zorte txarra izango duzu.
- Kukuaren kanta entzuten baduzu sakelan diruan duzula, urte osoan parra-parra diru izango duzu.
- Txinatarren aspaldiko tradizio batek dioenez, euri tantek ostrak jotzen dituztenean osatzen dira perlak; euri malko haiek zorte ona eman ohi zuten. Geroago, beste sineskeria bat zabaldu zen, alegia, perlazko lepokoa puskatzen bazen zoritxarra helduko zela. Beraz, perlazko lepokoa edukiz gero, kontuz ibili behar da apur ez dadin.

Urteak aurrera joan ahala, gero eta sineskeria gehiagoz inguratuta bizi gara. Batzuk oso arraroak, eta besteak harrigarriak. “13” zenbakiarekin lotutakoa da harrigarrienetarikoak; horretan sinesten dutenek ez baitute aholkatzen egun horretan ezkontzea edo ontziratzea, ez eta ilea eta atzazalak moztea.

